

Eskualduna


---


1801. 1. 1.

"Babuar" ditbu Salbaiak

---

---





Nihil obstat

Baiona die 3<sup>o</sup> Aprilis 1934

A. Larralde

Censor

Imprimatur

Baiona 4<sup>o</sup> Maii 1934

J. Lassery

vic. cap.

A. M. D. G.

„Baknar“ deithu Salbaiak.

Olita P. Douristbowiek egina,  
Jean Elisalde ophezak estkuararatuia.

Messis quidam melior!

# "Baknar" deithu Salbaiak

zur 17 erian  
Wp 10 Ekin

## Lehen Kapituluua.

Bastapenak. — Do diahrea tokien ikusterat badao.

Jainkoa lehenik, Nere Jaun Cuenot, Metellopolis derizan hiriko apherpikua gero, horra Cochinchinako eskualde salbai batetan misionoak sor-arazi eta finkatu dituzten bi langile handiak. Ez dago niri jaun apherpiku horren espantuen egitea eta ez ditut eginen, bainan ez naileke hiltz batzu erran gabe egon, gero errateko ditudanen aditzeko baizik ez balitz ere.

Nahi zuena nahi zuen Nere Jaun Cuenotek eta etzen aise lotsatzen diren etarik. Berbeit ongi pisatu eta hastoan hartu zuelarik, etzen trabarik ez bertzerik hura gibela zezakemik; kandik edo hemendik bururatu behar zuen. Denik ere, bururatzeko errabia gehiago ematen zioten trabek behotzean!

Laurzaportz aldirz hasi lara utzi behar izatu zuen: etzuen ukho egin balere. Pide bat hetor-eta, bertze bat hartzen zuen. Hau ez bazen ona, hirugarren bat hartuko zuen urrunago. Etzen gelditzen, buru bururat heldu-eta baizik.

Haatik, errech da asmatzea zoin den here Jaun Cuenotek han gaundi kausitu duen trabarik handi-kandiena: sinhestearen hedatzaileeri <sup>Tonnam</sup>-eko buruzagiek egiten zioten gerla ikaragarria. <sup>erresumaren</sup> erditauko eskualdetan hango buruzagi eta buruzagichkek etzioten epherik uzten jainkoaren langile eta mandatariviri. Tore gutiago bakerik. Misionestak etzitarcken ager: gauaz eta gordeka ibili behar zuten beren ordien ondolik. Itcheman orduko, bazakiten zeri zagolzin: hiltzea segur zuten. Pada, Tonnam-eko erresumari kontra mendietan bizi ziren segurki salbaiak, bainan, bi egun bidetan beren, herriraino heldu zitzaizkoten Cochinchinako merkataruak, eta mendi horiek Tonnam-eko erresumarekin ikustekorik ez izanagatik, ez baitziren karen meneko, kambat gaichto kan gaundi zabalizan kempotarentzat: etzuten Tonnamen beren baino irriske gutiago. Buna zertako.

Europar, erresuma batetik kampo denak, fortzez hartakoa izanik ere, ez du hango legeekin gehiago ikustekorik: ez du hango juseen beldurrik. Bisiako eskualde bada edo erdi baratan, ez dire lege berak. Misionest bat atcheman deratela nun nahi eta Tonnam-eko burretarat ereman, harenak

egin du: juyatu (?) eta hilaraziko dute lasterako, hiri-nausiko  
karruketan atcheman balute bezen segurki. Salbaictarat  
joan ziren tehen misionestek etzuten teraz ongi eta ongi  
gordetzera baizik muga ondoetan: bainan barnagoko mendietan,  
ere guti agertu behar zuten, delako merkatariek berek ezagutzen  
etzizuzten eskualde taraino. Eran nahi baita, Tonnam-etik  
lauzabortz egun bidetan heriotzera bethi gainean zutela...

Nere Jaun Luenot horiek guzian jakintsun zen, bainan  
etzin horren gutiz lotisatua, eta 1842<sup>an</sup> bi misionest behotz dumeri  
manatu zioten, nirendik ahal bazuten, joazin salbaictarat.  
Pannan, Phu-Yen derizan eskualdean muga iraganik,  
jadanik hariasko ziren bita Michel eta bita Duclos, merka-  
tari batzuek ohartu zitzaizkotelarik eta estekatu, Tonnam-eko  
buruzagiekka bati eremateko. Jainkoak ez bazituen bi bita  
horiek beren chedearen bururatzerat utzi eta ez bazen orduen  
misionetegi bat Pannarren eskualdean sortu, bederen  
bita Michel eta bita Duclos etzuten beren dembora galde,  
ezen Jainkoarentzat edertki eta edertki pairatu zuten  
presondegi beltz batzuetarat joanik, hetako zaintzale  
basken. Hue, Tonnam-eko hiri-nausirat ereman  
zituzten herrestaka, auzitegiz auzitegi ibili, kaiola batzu-  
etan ere preso atchiki, zume ukaldika phorroskatu eta  
arkenean hiltzerat kondenatu. Heriotzearen beha  
zagotzin bi bita dohakabeak, Heroine frantses untziko  
soldadok salbairen aptaparretarik atzeratu zituztelarik:  
1843<sup>governen</sup> withea zen eta martchoa.

Ondoko urtheetan Kuangai eta Kuangrameko  
eskualde tarik sartzerat lehiatu zirenak, debaldetan  
egin zuten uratsik, eta ez netzazke ere entseiu horiek  
aipha, ez balute oraino hobeki ezagutarazi Nere Jaun Lu-  
noten khotz karlsua. Ez da dudarik Jainkoak kondu  
atchikiko diola zeruan.

Pinduneko eskualdean bi zi zen gordea, jaun  
aphezpikuak. Hortik aski hurbil da Ton-Ton. Herruekka  
huntan batetaratzen dire salbai eta Annamitak beren  
sal-erospenetako. 1848<sup>governen</sup> urthean jaun aphezpikuak  
hor gairi hobeki sortuko zirela menturaz egin zuen bere  
baitan. Pada, Annam-eko buruzagiek arrazoin bereziak  
bazituzten Ton-Ton ez begi onez ikusteko, behentzago  
Gualoiong erregearen kontra han phiztu asaldura  
baten gatik. Errege horrenak egin zukeen, Frantzia alde  
eman ez balitzai. Dena dela, geroztik debekatua  
zaiote alde batetik Annamiteri salbairen artean bizitzera,  
eta bertzetik salbaieri Ton-Tonetik haratago joatea Tonnam-  
eko alderat.

Horrengatik Annamitak aski zurutzatzem dire  
salbaiekin beren tratuetako eta salbaiek noiz-nahi, beren  
egitekoentzat, An-Toneraingo jausten ~~dira~~.  
Sinhestearen hedatzaiteeri gerla egiten zioten demboran  
misionestek etzitzen mentura Ton-Tonetiko bidetan Deus  
orik egitekotz Annamitak bati behar zitzaion <sup>beraz</sup> behenik  
bidea zabal-arazi, merkatariek zabiltzan bidetarik  
urrun, eta urrun-urrungo salbaiekin berreak hola ikasi.  
Guzien buruan urrungo salbaiek iduri zuten hurbil  
erechenak misionestentzat. Horra zer ibilia zuen  
buruan jaun aphezpikuak.  
Hain chuchen iguzkia aloko (Cochinchan orduan bazen

aphezgeri bat hango berekoa; Do zuen izena. Gain-gainetik  
dohatua zuen aphezgeri hori jainkoak eta iduri zuen  
irristkuan ibiltzeko sortua. Julo-Jinangeko aphezgeritik  
ethorria zen, zazpi urte ikasten arizan ondoan, gero bi  
urtez, irakasle-tagun egonik. Nausi ohiek etzizoten espan-  
turik baizik egiten jaun aphezpikuari beren aphezgeriez,  
arras jainkoari zagoela orotan alde baretik, eta ezin  
lotsatua zela bertzetik. Nere begiz irristku ikaragarriaretar  
ikusit dut gerortik eta etzuen ohean baino gehiago bururik  
galtzen.

Nere jaun Cuemotek Do hautata zuen beraz bihotzean  
zuen lan haren eginarazteko. Goy balez deitue zuen eta,  
zart eta zart huna zer erran zion.

— Salbaitan lehenbailehen sinhestea heda dezagun, behar  
daukuk Jon-Jonen gaindi hetaraino bide bat ideki.

— Eginen dautzut, jauna.

— Hola jokatuko hair, bada?

— Eginen naiz tratulari, eta tratuan bezala, joanen bertze  
tratulari guziak paiten diren baino urrunago! Oro ongi  
ikusit eta ikusi ondoan, bertze itzuliko naiz hunat, hila  
bat hartuko dut, eta hida irakutsiko diet...

— Ederki duk, Do. Orai hiri nagok osoki. Pevian hie  
laneko indar hainitz, beharko baituk, nik emanen  
daiat, diakregoarekin. Hota, egizak othortz eta bidu-  
tasun handienear ago zenbeit egunez jainkoak egiten  
daikan grazia handi eta ezin erranezkoaren beha.

Handik zortzi egunear buruan, Do, diakre  
berria, Jon-Joni buruz, jaun zanpa-zanpa jauntyz tzar  
batzu soinean. Eratuan nabiko zuen ari segurki, baiman  
hortako, etzuen zerbeit behar eta eskas: Jonnam-eko buru-  
zagien baimena. Nikolaz etzuela baimen hori ukhanen  
bere baitan eginik, tratulari handi baten muthil sartu  
zen berehala. Cheriak eman ziozkaten zaintzeko eta  
arthatzeko, bertze ordur haur prodigoari bezala. Bertze  
bati gaitzituiko zitzaion: hari batere. Loria handi bat  
bihotzean eta kantuz ari zen cherrien phazkatzen.

Nausiak etzuen segurki amesten zer muthil zuen:  
etzakien Do girichtinoe zela ere. Pevian bere lanak  
hain ongi eta halako amodioarekin egiten zituen gure  
diakreak, nun arras begi oner behatzen baitzuen nausiak  
eta laster kargutan goratu baitzuen: cherrien phaz-  
katze orde nausiaren harteko, hoinari ezarri zuen,  
eta hola, gerochago salbaiten gurutzatzeo sasoina  
ethorri zelarik, Do nausiari jarraitki zitzaion herri  
herri saski handi bat bizkarrean, eta saski hortan lupina,  
zenbeit gophor eta sukalde batean behar diren gaine-  
ratekodk...

Hainbertze lagunear jatekoaren egiteko, etzuen le egon  
behar dok: baiman eskuak ari zitzaizkon, ez gogoe.  
Hau eltzekari eta bertzetarik urrun zuen. Hlegia eta  
deus ez, salbaiteri mila galde egiten ziozkaten beren  
mintzaira eta oiturez, mendial-aldeko lurrez, hango  
bizitzaleez, eta bereziki hango mintzairako hitz batzen  
buruan kokatzen ari zen akal bezenbat, baitzakien  
egun balez mintzaira hortan beharko ziozkatela salbaiteri  
jesu-krichtoren erakaspinak eman... eta salbaiter  
etzuten segurki amesten zer chedek zabilkan!

Sei ilhabeteren buruko aski jakintsun zen Do, norat-nahi  
bakkharrik menturatzeke. Etzuen beraz gehiago muthil  
egoterik eta nausiari agur erranik izuli zen jaun  
aphezpikuaren ganat. Bere gain tratuan has zitakeela  
iduretzen zitzaion nkundik eta nola, bere nausi, kubi  
etzituen salbaitaraino hel baitzitaken aiseago, baimena  
galdetu nahi zion jaun aphezpikuari. Baimena ukhan  
zuen ... eta sal-erospenetako laur lagun.

Kastean gauaz ibili ziren bortz tratulari berri hauk,  
traba handirik kausitu gabe, eta nihor oharitu gabe  
nihun Ba-Drong direlako zende baretarat heldu. Etzuen  
gehiago koziari itpi Do, bainan tratulari handi bere  
meneko eta guzuekin. Bannan ez da bethi robe handitzea!  
Kozinari zeno, nihorik etzion behatzen: orai dirua sendi  
diotelakotz, hil nahi dute. Behin zenbeit salbaiek hitzartu  
zuten gau hartan berean garbituko zutela zituen guzien  
ebasteko eta lagunak esklabo bezala Laosterreri saltzeko.  
Jaunkoa ez dago behinere lo: zerbeit gisaz tratulari  
gaichoeri chede gaichto horiek jakinarazi zituzkaten, eta,  
gauerdi alderat salbaiek ichtika ethorri zirelarik Do hil  
beharrez, hau eta hunen lagunak, phuska guziak han  
utzirik arinago ipaiteko, harasteko joanak ziren ihesi.

Etzien guti salbatzea bainan gaichoek edorrik ikusi  
behar zuten bidean lauzpabortz egunaz. Alabainan jalekorik  
etzuten ez eta jateko zerbeitekin truka zezaketen deusik!  
Beren aringeru begiraleek etziturten utzi uruski: nolazpeit  
aphezpikuegaraino heldu ziren firirik eta osorik. Eta han  
badakizue zer galdetu zuten lehen-lehenik? Berritz  
lekhu beretarat itzultzea.

Do etzuen dembora nola-nahi galtzen dute netarik  
segurki eta halere. Salbaien artean iragana zuen dembora  
puchkan, jadanik guti edo aski hango mintzaura ikasia  
zuen ... eta bereziki mendiz mendi bidechka bat atche-  
mana zuen nihor oharitu gabe ibil zitakeena. Egia erran  
bide hori bortitza zen, avras bortitza, eta bertzeak baino  
luzeago, mendeal alderat itzuli luze bat egin behar  
baitzen, bainan nihungo tratularirik etzelakotz hartan  
egundaino menturako, etzuen iristikurik. Guzie buruan  
bide hura hautatu zuen beraz bere jaun Cunotek bere  
misionesten salbaitarat igortzeko ....

# Bigarren Kapituluua.

## Itita Combes eta Itita Fontaine.

"Bahar" deitua salbaieran egiazko sinhestearen hedatzerat abiata ziren lehen lehen bi misionestek Combes eta Fontaine zituzten izenak.

Ititi-ko diosesakoa zen sortzez Itita Combes. Garterik oraino Pariseko misionestegian apheztua, 1849<sup>garren</sup> urtean Cochinchinan hasi zituen misionest lanak: salbaieratart joateko hautatua zen haatik jada.

Garte izanagatik, edozoin zaharrek bezenbat zuhurtria bazuen. Etzen bethi ametsetan bizirik diren hetarik eta deusik etzuen ongi eta ongi pitaturik baizik egiten. Esku-lanetake ere arras artecha, zerbeit hasten zuenean iduri zuen etzuela egundaino bertzerik egin. Kartuenetarik bertzalde. Eta nola alegiantzia othortzaren amodiak lagun baitu, bethi irria erpainenetan zuen harekin bizirik zirenak kutsatzeke keineraino. Oro ihun eta beltz zirelarik, kura irriz ari zen oraino, bethi oihu hau erpaenen puntan: «Blegera gaitzen ... halere!» Baiman zertako behar dut gehiago mintzatu Itita on eta lagun maite horren alde: ikubiko duxue nola mintzatuko gaurkitzuen horren egintza eta urhats guziak...

Debruiak etzuen begi onez ikustean Itita Combes eta salbaieraraino heltzerat ez uztako hametka traba eman zion bidean. Beha Singapour derizuan hiri handian atehemanik Itita Fontaine, hau ere salbaieratart joana, untzian sartu zen Itita Combes lagun horrekin. Ondikotz, untziar bidean jabetu ziren Chinako iltas-ohor batzu! Tongles bat iduri zuen Itita Combesek bere ile zuriskarekin eta Chinatarrek ez dituzte Tonglesek begiko zikhina baimo gehiago ikusi nahi. Ohoretarik batetik erpatakaldi bat berehala eman zion beraz Itita dokakabeceri, eta hil arte joko zuen, Ititak ez balio erran Frantsesa zela. Bizirik utzi zuen orduan, baiman soinetoketaraino zituen guziak ebalsi. Eta hitz dautzuet gerochago, bere Jaun Cuenoten aintzinean agertu zirelarik, etzuteka eraria handirik eslite bi. <sup>Itita</sup> suneko ederregiak zituztela! Erdi beluz ziren! Horra nola hasi zituen beren bizirik berria gauchoek...

Dordoria zenbeit ithabete zuen Cochinchinan zirela Itita Combes eta Itita Fontaine, lehen kapituluuan aipatu itzuli hartarik itzuli zelarik Do. Badakizue nola hunen erranetarik aiparraldeko bidea errechago iduritu zitzaion jaun aphezpi-kuari, hanga harroka, leze eta basu-abere mota guzien gatik. Dok zion bezala: «Misionestentzat hobekak dire mun-

duko bera gathu eta elefant guziak „gizonak baino“  
 Annam.eko azken herrichka Erango da. Ez da mugatik  
 hain urrun. Herrichka hortan baitzupade etche bat behar  
 ginuela orok baginakien, tethi gordeka ibili beharko baigi-  
 nuen salbaitararot joaitcan. Etche bat erosi ginuen beraz eta  
 han ezarri adichkide luial batzu. Tlabaianan Erangon etzen  
 paganorik baizik eta ez gintozken bat bakharrari fida:  
 laster salduko gintuzten.

Delako elcherat jaun apherpikuak igorri zituen lehen  
 adichkideetan sendagile bat bazen arras jakintsun eta  
 trebea. Sendagile horren jakitate eta bihotz onak herri guzia  
 laster adichkideitu zaukuten, eta geroztik Erangoko etche  
 herri gerla egin badiote zenbeitetan paganorik, Erangotarrak  
 behinere ez diote pagano horieri eskurik eman!

Dembora hortan Do etzagon le: Bakharretarako bidean  
 ziren herri eta herrichka guzietan bere salb. erospenen egiteko  
 baimenaren ondotik zabilan. Herbeit gisaz eskuratu zuen  
 azkenean.

Oro prest ziren beraz lanari lotzeko. Nere Jaun Cuenotek  
 manatu zioten Jhita Combes eta Do duakreari abia ziten  
 berehala. Jhita Fontaine berekin atchiki zuen behin, per  
 gerta ere. Gothi derizan herrichkan zulu bere egotiza  
 Nere Jaun Cuenotek. Handik Erangi-rat bi egunen  
 bidea da. Nahi-eta ez gauaz ibili behar zuten Jhita Combes  
 eta Dok, han gaurdiko jendea laster harrituko baitzen  
 arrotz bat, guziz churia, ikusi-eta.

Nahi izanik ere, lehen itzuli hortaz ez dezaket cheke-  
 taturu handirik eman. Tilde batetik etzuen ondorio han-  
 dirik ukhan, eta bertzelik guti mintzatu zaurkit hortaz  
 Jhita Combes eta bertzeak. Hau erran dezaket baxhar  
 bakharrak beldurtien itzulia deitzen zuela itzuli hori gero  
 eta gero Jhita Combesek. Thunaren ihurak ez omen  
 zituen gau batez utzi zenbeit elefanten ikusterat, bainan  
 elefanteak ikusi zituzten gizonak eta batek muthil  
 gazteetarik bati muthur ukaldi batez sabel hezur bat  
 hautsi zion. Jhita Combesek ez omen zuen chapela baizik  
 galdu. Horrengatik aintzinarago joanen ziren segurki,  
 bainan dembora tzarra sortu zitzaioen, errekarak loditu  
 ziren, eta nola nikun ez baitzen oraino zuberik, gibelat  
 itzultzea zuten koberran: hala egiten zuten.

Egia hau omen da: batzuek eta bertzeek etzutela  
 espantu handirik, jaun apherpikuari horiek kondatzean,  
 eta, izan balute, laster sartuko zitzaizkoten haren kopeta  
 zimurtzen ikusi-eta. — u Jaurrak, jada ez balinbadakizue  
 nahi dut hemen ikas dezazuen munduan ez dela trabarik  
 missionest bat tere bidean gelditu behar duerik! Bainan  
 oro tzarra denaz, geroz oraino, eta zuek oro tzarrak  
 lotatzen baitzaituzte, hamabortz egun ematen dauz-  
 kituzet pausatze. Bainan bigarren aldian ez duzue  
 hola ukho egin beharko! „Eta hortaz segurago izai-  
 teko, Jhita Fontaine ere heyetun igorriko zuela aldi  
 hontan hitzeman zioten.

Hamabortz egunen buruan bide berari lotu  
 ziren beraz Jhita Combes, Jhita Fontaine, Do eta zenbeit gazte.  
 Dok gauak ez duela deus onik adiarazirik, egunaz ibiliko  
 zirela egin zuten guziek; bainan bi biten tarru churiari

paganoak ohart eziten, zerbeitakin belztu zituzten, chapel berezi batzuekin buruak gorde ziozkaten eta eskezala batzu bezala jauntzarazi. Gisa kortan bide gaichloena egin zuten nikor ohartu gabe. Elefantik ere etzitzaioten agertu. Nekhe eta gaineratekoak ez dire konda holakoetan. Misionestak badaki askoren berri.

Ehen geldialdia Baham delako baten herrian egin zuten. Erenu hetako nausi bakharra zen Baham hori. Herritar eta Annamitak, oro lotsatzen zituen. Ohoi hutsa, bipheldu eta larrutuak zaduzkan oro. Bizpahirur emazteekin jonsia bizi zen bertzalde. Erran gabe dola misionest gaichoek mila aldi, nahiagoko zutela holako chori baten menexen gelditu gabe aintzinago joan: baina Bahamen herria bide-bidean zen eta nikundik etzitatok huts egin. Halere gaitz guziak baslute beren ora: Bahamen heldurrak Annamitak handik urrun atchikitzen zituen eta horrek etzuen guti bali misionestentzat.

Bitia Combes eta bitia Fontainek batere etzuten bururik galdu ohoi baten gatik. Bertzerik egin egin, harekin orochikidetzera bilhatu zuten. Alhabet bat oso-oso iragan zuten haren etchean ... eta etzizozkaten Bahamek oro elatsi. Ordu arte etzuen Annamitik laizik ikusi kan jaind. bi bita misionesten larru zuri eta bizar handiek lotsatu zuten guti edo aski eta etzuen heyeikin espantu handirik. Akusten ziotenatarik zerbeiten gutizua zuenean, etzisten ebasten, baina poliki galdetzen. Beraz, ilhabet baten buruan handik joan zirelarik, Bahamek etzitzen bertzeak bezala larrutuak! Hainitz aldi, Bahamen erremuetan iragan dire misionestak edo misionesten laguntzaileak geroztik ... eta ohoinak ez dituz betki hoin guti khendurik aintzinat utzi. Kenbat aldi ez dituz gure saski guziak arzikoz, gora itzuli, barnean zen zen ikusteko ... eta hetarik zutuko zituen guziak hartzeko!

Baham dagon herritik Po-tu deitue herrirat egun baten bidea da. Bizgarren geldialdia han egin zuten gure bidetarik eta han ere ilhabet bat egon ziren. Baina Bahamen herritarrak Baham idurikoak balin-baziren gutiz gehienak, Po-tuko jendea arras estia da begitarte onkora eta maitagarria. Urtheak eta urtheak baditu misionestik ez dela gehiago Po-tutik iraguten, baina ez naiteke ora ere egon zoin orak izate deren guretzat erran eta errepikatu gabe! Gaicho jendeak! Jainkoak lagunt detzala segurki ...

Ez dut ueste aiphatzea merezi duenik bidetarik Po-tu gertatu zitzaiozen: egia erran, ni ez nintzen han go goan hartzeko. Bena dela handik bi eguner joan ziren Konpharrerat. Etzen Annamitik urrunago joaten. Beraz hatsa aisechago har zezaketen. Tokhako kasik nekhe eta buru-kaustak! Baina erran zitaken bururatuak zirela eta bihotzak jauzika ari zitzaizkoten, laster sinhestearon hedatzen hasten ahalko zirela! Ondikotz, zerbeit gertatu zitzaiozen orduanteko ederki lotsatu zituztena. Bai, ueste iragan zuten heyeinak egin zuela aldi hartan!

## Hirugarren kapitulua.

Kiem buruz-buru egiten dute bidekariek. — Do eta Kiem adiekkidebyen dire.

Misionesteri bidean gerta zaizkieteken guzuz jakintzun zen Nere Jaun Eucnot eta errana zioten, nikundik ahal bazen, huts egin zezatela Kiem zelako bat. Tama handiko bahnar bat zen Kiem hori. Norat-nahi zoon, etzen agurrik baizik harentzat. Egia erran, etzen nor-nahi: Tonnam-eko mintzaira errotik bazakien eta inguru hetan etzen tratulari handiagorik. Bertzalde bahnar eta annamitek beren tratustan makhurrik balinbazuten, Kiem destrukto zuten bethi auzjaren trenkatzeke. Tonnam-eko buruzagiektek berek holako gizon baten beharra egun batez, ez bada bertzean ukhan baitzezaketen, beren erregeari paper bat eginaraxia zioten Kiem bahnar guzuz nauditzat ezagutzeko. Dikotya arras atxekimana zioten beraz Kiem Annamitek. Horra zertako mila aldiz Kiem huts egitea hobe zuten misionestek, eta, jaun aphezpitkuak ipharraldeko bidea manatu ziotela misionesteri, bazakien zer ari zen! Jaunkoaren nahia! Ko. Sun sartu orduko nor atxekimaten dute? Kiem. Bainan kauntbertze kalte egin jizoketen gizonak, ez diote ongirik baizik eginen misionesteri eta misionesten laguneri. Ez baita froga hoberik jaunkoak ongi eta ongi nahi zuela eskualde hetan sunkestea kedatzea!

Kiemek esklaboak barjituen eta zombait egun lehentchago ihesi joana zitzaion bat Do. Surat. Haren bilha ethorria zen beraz herri hortarat hirur egun bide eginik. Bainan bertze orduz kis bere aitaren astagnen ondotik zabilalarik, profetaren aintzinerat ereman zuen jaunko berak ekharri zuen Kiem misionesten aintzinerat, heyen gidatzeke eta laguntzeko. Nola lotsatu ziren kaatik bi bitak buruz-buru agertu zitzaiztelarik! Lehentchago jakin balute han zela!

Bekinere kiernek etzen holako gizonik ikusi. Holako bidetan ibiltzeke etzirela begurki nor-nahi egin zuen bere baitan. Bainan nor othe ziren? Beren herrietak ihesi zozin gizon handi eta botheretsu batzue menturaz! Misionesten begitarteak halako bat egin zion barnean eta galdetka hasi zitzaizoten nor ziren, norat zozin: « Ez duzue nor-nahi iduri! Dudarik gabe urrundik, arras urrundik heldu zaizte? Ez dute behinere zuek beren gizon ehuririk ikusi! Berbeit egiten daut holako herrialde itusi eta galduan zuen ikusteak! Mintza zakizkitet lañoki, jada maite zaituztet eta hitzematen dautzuet bahnarren artean ongi ikasiak

izanen zaiztela. Hemen errege bezala naiz: Annamitek berak ez dauzute deudik eginen, ni alde nauzueno, ...»

Misionestek etzertakotan irai gibelat egin. Konbat aldiz ez dire heldu direnak heldu diren bezala hartu behar! *Pi* bitak etzuten beraz, kiemi ihes egiterik buruan iragan: othortzean hasi ziren.

Hamaka egin ahalak egin ditugu kiem nahun ez ikus-teko, zuen aphezpikuari izorri gutxun batean *Pita* Combesek, bainan, iheska ginabiltzalarik, chori batzu bezala ederki estruetarat erori gitzauo. Nork daki haatik ez daukuan Jainkoak berak biderat izorri?»

Berriak ederki lotsatu zuen nere jaun Cuemat eta odol gaichto frango egin zuen zenbeit egunez. Hain chuchen ni haren ondoan nintzen orduan. Gutxuna irakurtu orduko, nola zurutu zen! Bainan Jainkoaren ganat itzuli zen berehala: «Guzien buruan, Jainkoak bere egitekoa du eta nahi badu, deus ez da galdurik! Nik halako gutzia nuen haatik nere misionestak Bankarren erdian ikusteko, nun hil arte lotuko nauen lotu bat kede hortarat eginat baitut ...»

Horiek hola, itzul gaiten gure bitakitan ganat. Kiem laster ohartu zen lan handitan emanak zituela eta balere etzuen hori bilhatzen. Onez onean mintzatu zitzaioten. Berriak itzuli zitzaioten: «Ez duzue zeren lotua: ni zuen zerbitzuko naiz: galdetuko daukidan zuen gauzak eginen ditut gogo onez, ... eta uste izan ez dezazuen gezurrez mintzo naizela, adichkidantzak egun berean nahi ditut egin zuentkin ...»

Dada, toki hautan huna zer den adichkidantzaren egitea: hitz ematea ez dela elgarri gertarik eginen ez eta deusetan kalterik ekharriko. Hitz hori emanaz geroz, jatea, zorizaitzaren ondotik ibiltzea da. *Pi* adichkideek egiazko kontratu bat egiten dute. Huna nola.

Adichkidetzeko solasetan direneri ararteko batzu joaten zaizkote beren etxetarat, ez tekin, bainan gehiagotan, euan egiazki bihotzetik mintzo diren eta ez ezpainen puntatik bakharrik. *Paietz* ihardesten badute, bakhotchari galdetzen zaio, oilo batekin, untzi handi baten betho arno. Oilo horietarik bat erretzen da berehala eta bi adichkide beharri partitzen. *E* ditakun jan, edan gabe. *Pi* sekta muthur arnoan pulunpatzen dire, bi adichkideek batean edateko. Bainan lehen chorta ahoriatu duten baino lehenago, arartekoetarik bat predikuan hasten jaioa: «Belki orhorte beharko duzue egundik gort adichkide zaiztela. Baten adichkideak ere bertzearen adichkide izan ditela; baten jendeak, bertzearen jende. Eta egun baten bigetarik batek hitza jaten badu, ortziak ere dezala ... edo esklabo ereman deizatela nunbeitko tzarrek! Behar gorrian leher egin dezala eta haren gorphutza jan deizatela urean arrainek edo oihanean beleek! ... Bertze ahopaldi frango ere atheratzen dute kolakotan: prebostaria nolako den! Orduan hasten dire edoiten bi adichkide berriak. Bainan hau ere ez dut akontzi behar: tzarren oitza eta bertze arno untzia ... arartekoentzat dire ...»

Dadire oraino handizkeago adichkideetzen direnak, hauk basurde baten hortz handiak, burdinazko bi ezpata eta zenbeit saeta puhkanpatzen dituzte arnoan, paretan ditindan ezarritik pozoinki zerbeit, sskak eta ... suge buru bat. Eta orduan ... oro predikari, ederriki atheratzen dute!

Behin edo bertze hau ere egiten dute adichkidantzak hobeki finkatzeke: adichkide-gei bati besotik zenbeit odol chorta khentzen diotzate arnoarekin nahasteko. Horrek erran nahi du bi adichkideak haurridetu direla osoki eta deusek, deusek eta deusek ez dezakela hauts adichkidantza hori.

Kiemi sobera ohore handia zitzaion bi hitetekin adichkidantzak egitea: Dorekin adichkidetzera galdetu izuen: «Di aitatchi horiek nere aitak izanen dire, do eta ni adichkideak».

Hitetik jakin balute adichkidantza horrek zer ondorio onak ekharri behar zituen, etzuten kaintz dudatuko. Duda guzuen gatik, do eta kiemek egin zuten beren kontratua. Eta hau erran behar da: Kiemi bethi teial egon dela, egundaino deusetan ez duela hitza jan. Kenka gaichtoetan nihork ez gaitu hobeki lagundu. Erran dezakegu harek utzarazi daukula ipharaldeko bidea, harek alteratu gaituela beraz Ba-hamen aztaparretarik. Hura izan dugu bethi hitarte-korik hobereana Annamerat zerbeit eremalako ginuelarik edo Chikinchinatik zerbeit ekartzeko.

Kenbeit demboren buruan Annamitek nunbeit ikasi baitzuten gure berri, nihundik nahiko gintuzten bildu eta kiemi zer-nahi eskaini zitoten gure saltzeko. Debaldetan: kiemek ez gintuen saldu!

Herortik, ahalak jantcherik, kiem herri hautarik urrundua da. Ez du guretzat deus egiten ahal den lekuan: gure bihotzetan chokho bat atchi hitzen diogu halere, sekulan ez baitugu atchi erranen zer diogun zor.

Her diren haatik jainkoaren chedeak! Nola antha hartzen duen sinhestearen kedatzem dabilizanez! Horra beraz gizon bat ikusi nahi ere ez ginuena: uste gabeen biderat agertzen zauku Adichkidantzak egiten ditugu, adichkidantza horren behar gorri-gorrienean ginelarik! Hura ere beharrak bertze norakait erematen duelarik, jada ez dugu gehiago haren behar handirik onnamen ez baititote gerla handirik egiten orai sinhestearen kedatzailerik eta nihor gabe edozoin bidetan ibil bagintazke!!

¶ Ez da dudarik jainkoak berak igorria zuela kiem misionesten biderat. Hura gabe nihundik eta nihundik etziren urrunago joaten ahalke, bertze nihork ez baitzuten gidatu nahiko. Misionestekin ziren muthil gazteen begitartesak jada han gairdiko salbaia guzjak harrutzen bazituen, erran ditake misionestanak arrunt eta arrunt lotsatzem zituela! Siburu huntan behin baino gehiagotan ikusiko duzue debruak zer amarrua duen eta nola balatu den

gure larri zuriaz gutarik salbaiak urruntzeko.

Annamitelarik hurbilegi zirela oraino kan idurriturak, Doren adichkide beruari galdetu zituen eia urrunago gidatuko zituen eta gizagaztoak, berak aste kantuz ekuelakotz, Kolangeko bere adichkide bati fidatu zituen harek nahi zuten tokiraino bidea erakutsi zezoten...

Kiemen adichkide horrek Bliou zuen izena. Nola hornbertze lagun ez baitzezazken aise gorde bere etxean, oihan batelarat joanarazi zituen, bertze egoitza bat urrunago atcheman arte. Etzitarren kampean bizi bi Atak eta bertzeak: lanean hasi ziren beraz berehala eta arratsko bazuten, ez segurki fauregi bat ez-eta ere etche bat, larrin... herbeit. Herbeit, eskuaraz, etchola erraiten zaiona. Ur eder bat kantuz barzoan ekholaren aintzinean. Eskuin eta ezker, aintzinean eta gibelan, oihan beltzaren beltz ederra. Urrunean mendiak. Hovra nun bizi ziren Aita Combes, Aita Fontaine, Do eta bertze lagunak, goiz batez, tapa-tapa Aita Desgouts eta ni bizkammerat erori ginitzairziotelarik.

## Laugaren Kapituluua.

Abita Desgouts eta Jbita Dourisboure bidean

Nere Jaun Cuenotekin nintzela bakakizue Jbita Combesek jakinarazi ziotarik nola buruz-buru egin zuten hem. Etzen guti harritu jaun aphezpi<sup>ku</sup>a!

Parisen aphezpi orduko, nurbetik ikasi nuen ni ere naski salbaieharat igorriko nindutela egun batez eta jada maite nituen beraz salbaiak. Untzian nindotarik, kameta aldez othoiz egin dut kezentzat!

1849 garreneko urrian Nantesen untzian hartua, zortzi ilhabeteren buruan heldu nintzen bakharrik Nere Jaun Cuenoten egoitzarat. Jondoni Joan Batichtaren phesta bezpera zen. Jaun aphezpi<sup>ku</sup>ak berchala erran zautan, nahiz Bahnarretarat nere igortzeko chedea zuen, stjakiela ez othe ninduen egun batez, zerbeit arriazpinez, Bonnamerat deitue beharko, beraz zer gerta ere hobe nuela berahala Annamiten mintzaira ikastea. Hortzez eta kaginez tanari emanik, hirur ilhabeteren buruko kofesatzan hasteko gei nintzen. Painan bihotzez igurikatzen nuen manua aski laster ethorri zitzauntan: Jbita Desgouts lagun, Joan nadin Jbita Combes eta Jbita Fontaunen ganat. Zer zoriona!

Hitz bat lehenik nere bidets lagunaz. Un de sainduekin bizitzea: helaz orhoitzea ere ba. Sainduez orhoitzen denak ez othe du San Agustinen boza hura bera laster bihotzean adituko: «Eta ez othe duk hik bertze batzuek egiten dutena egiten ahal?» Sinhesten ahal duzue deus ez dela hoberik norbeiti berchala sainduta<sup>mu</sup>neko bidea har-arazteko....

Jbita Desgouts saindu bat zela erran ditake. Etzen jada garte-gartea, ez-eta ere Frantziatik ethorri berri-berria ni bezala, ezen itsaboa iragan baino lehen urheak lanean iraganak zituen Frantzian Touch-eko diosesan. Painan martirigovaren gutziak bere diosesa utz-arazirik, Cechinchinan zen aspaldi. Gaicho Jbita Desgouts! Petri orhoituko naiz nola erran zautan behin: «Ni, ez naiz bekhatoro handi handi bat baizik! Beraz nola nahi nuken nere sinhestearentzat ezpatakaldi batez lephoa moztan balautet hemen gairi!» Perrogoita kamar urtheren gainean zitaken jada orduan. Nik baino hogoi bat urthe gehiago bazuen beraz, bainan zaharrago iduri zuen oraino: jada kraskatua zen, eta gutien-gutienetik hiruetan hogoi urthe emanen ziniotzkatzen orok.

Ona zen Jbita Desgouts eta etzen ona baizik.

Gure artean ez dugu egundaino «Aita Desgouts» erran, bainan belhi «Aita Desgouts ona». Etylaken apha, ona zela erran gabe.

Boin icheil eta gordea, bertzalde! Eta belhi bertze gurjek baino beherago nahi! Gaikoa! Bahnavretan bertz Aita laginen elgarrekin: kura zaharrena ... eta kalere kura, gure muthila karrik! Behinere etyuen hitz bat bertzea baino gorago erranen. Etyakien kechatzea zer den, zerbeit eta zerbeit aldiz kechatzekoa izan duelarik segurki gurekin eta bertzekin! Haren lanotasuna orok maite ginuen bai eta haren zuzentatuna. Bainan asti erranik badut hola, geroak ere zerbeit erranen batur Aita Desgouts onaren alde.

Misionetako lanak kuangaieto eskualdean hasi zituen nere lagunak eta han zen ordaino jaun aphez-pikuak manua igorri ziolarik Gotherainoko bat berekala egin zezan, zerbeit baziola errateko. Eta bada-kizpe zer erran zion: nerekin salbaictarat Joan behar zuela. Salbaictan guk sunkstearen kedatzen ari behar ginuen, Aita Desgouts onak aldiz ikastegi berri batean aphezgeien plegatzen! Ikastegi hori etzen kaatik zabalitzeko helnean ordaino ...

Gotherat hazilaren behen egunetan heldu zen Aita Desgouts. Jsideari lotu baino lehentzago Aita Combes eta Aita Fontaineak hitz bat hel-arazi zautkuten: nola atseginekin, atsegin handirekin ikasi zuten heyan ganat laginoazila. Demбора berean chehe-cheheki ematen zautkuten kolangeko berri guziak. Etyiren kaatik oro koberenatarik. Kala nola hau: bat eta bertzea sukhar gaichte batek burriari josiak zautkala aspaldiskoan, eta laguntzaila gurjak bardin eri zituztela! Horrengatik Aita Combes etzen arras lotsatua, ezen, hitza bururatzeke, belhiko orhua egiten zautkun: «Blegera gaitzen ... kalere!» Jainkoaki nola dakien noiz zer egin! Misionetak azkartu nahi dituelarik, beharriktarat berri tzarrenak hel-arasten diozkate: han gerla dela, hemen ezurritea, karatchago iriisku handi bat, nunbeit hotza edo beroo edo gosetea edo bertze zer-nahi. Eta lotsatzeke orde, kolako berriek errabia on bat hitotzean ematen diete misionest gurzeri ..... Su berri bat lotzen zaute ....

Ongi orhoit naiz ordaino neroni Larresoroko ikas-tegi maitean iragan ditudan urtheez. Bauru hotz bat baizik ez nintzen. Eguerdi batez, oro faten ari ginen demboran, lagun bat gora-gora irakurtzen ari zen. Misionest baten berriak emaiten zituen liburuak, eta gehiago dena preso zagon misionest dagon batena. Gosea ahantzia, irakurtzaitzari nindagon nere begi eta beharri guriez. Behen alditotz orduantche aditu dut jainkoaren deia: «Hik ere egun batez misionest egin beharko duk!» Bagoi urthe badeu ichtorio horrek, eta egungo egunear ordaino, orhoitzan, ngarra heldu zaut begirat! Oi, benedikatua izan bedi segurki jainko ona! Jesu. Krichtok gurutzeta bizkarrean hartu duela kotz, gure gurutzetak arinago dire. Gure min.

guzeri beren kiretasuna khentzen diote zeruko Aita onak,  
eta zorizagutzaren aldean bethi hanteka da zoroena ....

Ikuntze batez lotku ginen biderei Aita Desgouts  
eta ni. Bazilaren hametka zen. Bi gau luze urez ibirik,  
— alabainan egunaz ez ginuen ageritu ere behar — untzitik  
mendi handi baten ondoan alkeratu ginen. Poagnakuen  
irrisku frango kausituko ginuela, bainan untzitik alkeratu  
orduko urruntchago zenbeit gizon elheketa entzunik, nola  
harritu ginen! Lotsa baino atsegin gehiago zuen kaatik nere  
lagunak eta amets gozoena berehala egin zuen: «i Aidi hontan  
nahi nuena badut! Mantu hilen naz, oraitoan bederen!» Daduk  
hoberik: mintzatzaileak, gure biderat heldu ziren! Geroztik  
zenbeit aldiz irri egin dut Aita Desgouts onarekin huts egin  
ginuen martirgo hortaz, bainan egia aithortu behar dut:  
demboraren buruan ere halako urriki bat bazuen  
gaichoak ahoko choris kola eskapatuik!

Mendiz etzen biderik eta gaverdi arte ederki  
pekatu ginuen hango patarrelan gotti. Orduan paubatu  
ginen lehen aldikot, eta pokado bana jan, egundaino  
bezala mendiarri lotzeko berritz. Urruntchago elefanten  
orroak entzun gintuen, etxiren arras gure bidetan.  
Erdi eta ahuntzen ondotik haurrean ibilia, nere  
hogota hamar urte ederrak zamari, ni erdi aise banin  
doan patar guzien gatik: bainan ikusi bazinute nere  
lagun gaichoa! Her kalbarioa iragan zuen gau  
hartan! Gurekin gintuen lagunetarik bat bidan erori  
nizraukin, indar guziak joanik. Egunak ez atchema-  
teko, hanteka berean utzi ginuen gizagaixoa bi lagu-  
nekin, ahal zuen bezala eta ahal zuenean jarraik zakizun  
Erangon ederki izertuik jo ginuen argiko eta hango  
adichkide baten etchean gorde, nihork ikusi gabe. Egun  
bat bazinuen loz eta jatekoz pasetzeko. Hitz deutzuet  
ederki baliatu ginuela. Poainan iguzkia mendi gibe-  
lean gorde orduko, makhilak eskuan eta zakuak  
bizkarrean ginauden aintzinago joateko.

Hamabortz ginen orotarat. Do diakrearen  
ancaia joan aintzin-aintzinean. Ezpata bat bazuen  
traba guzjen baztertzeko. Gau hartan deusek ez gintuen  
gelditu behar: basa-gathu eta gainerateko guziak norapeit  
joanak zitazken! Dordora zenbeit basa-ahuntz eta orkatz  
entzun gintuen han-hemonda, ... bainan guk lotsatu  
gintuen hek.

Gorutz e handirik ez duenak, ttipiak bederen  
behar ditue edo lokhartuko da. Guk ez ginuen lokhartu  
behar: zer-nahi ikusi ginuen beraz gau hartan chinawri  
larri batzuekin: ko-tu deitzen diturte han gaindi. Hamar  
bezala lotzen dire chinawri horiek larruari eta khendu  
nahi balinbadire, eztena larruan sartua uzten diote oraino.  
Michteriozki bada korietarik eskualde zenbeitetan eta  
bioteko deus ez da okharzagarruagorik....

Gaverdi gabe Annamete muga iragana ginuen  
halere: beldur gutichagorekin egin ginuen beraz  
goizaldeto bidea. Eguna gabaldi gabe berritz gordeak  
ginen kaatik orain beltz batean, salbu gure lagunetarik  
Gizpahirur. Hauk eskuin eta ezkerreko khurriketaraino

segitu zuten, nun zer ageri zen ikusteko, guziz han gaudu bizen Annamitik jakiteko.

Sasipean ginaudelarik, nere lagunak izpiritua nunbeit zuen eta huna zer erraiten zautan chapelik: «ker bizi egin sikhelna deramagun, adekidea! Jainkoak egin ditu manamenduak eta gut manamendu horiek ez ditugu segitzen! Gauak egin zituen lotzeko, egunak ibiltzeko... eta beha zazu zer egiten dugun! Mitaka aldez zuk eta nik erreplikatu ditugu Daliden hitzak: Jauna, ihuna igorri duzu, gaua ethorri da eta eta orai abere gaichtoak atkeratuks dire jainkoak bidean ezarriko dioten jatekoaren bilha. Gero jekiko da iguzkia, orduan gordeko dire abereak, eta atkeratuks da gizona bere egilekoatarat berritz ihundu arte. Hitz horiek zer erran nahi duten ikusten ez duena ihua da eta bizkitartean iduri luke zuk ez dugula ikusten, abereak bezala gauaz gabiltza, Annameko jauntxo bihotzgabe baten gatik...»

Hortu hortan, urrunago joan lagun bek itzuli zitzauzken, nihun Annamita baten itzalik ikusi gabe. Pulharrak jabalik halsa hartzen ahal ginuen beraz eta berritz bideari lotzen: ez ginuen hainitz luzeatu.

Soratsari buruz zer harritzea haatik bidearen erdian Annamita bat agertu zitzaulkularik betbetan! Lurraren barnean gordeko ginen, ahal izatu baginu. Lurra gainerat ethorri zitzaulkularik epagutu ginuen bakharrik: Do diakrea ginuen. Lau egun bazuen bidean zela gure atxematuko. Forietan jauzika hasiko ginen hura ezagutzarekin, baina inriak laster sartu zauzkur nola eta nun bizi ziren erran zaulkularik. Baina misionest guzkek badakigu gurutzearan garhaiaheko egiten dela misionest eta bihotzak jainkoari altchatu giniozkam, Fiat! erranik.

Ondoko bi egunak Pooham lotsagarri haren etchean iragan gintuen. Hski gizonen zen eta gure saskiak etzauzkun arras hustu. Handik Dourat egun baten bidea da. Per bidea haatik! Mirakulu da Heita Desgouts ez bazitzaunkun hamarretan hil! Mendiak hain chutak dire nun elgar tagundue behar baizginuen eta noiz nahi, elgar utzirik, zuhaitzen erroeri aytaparka lothurik aintzinate! Baina gero punta batzuetarat heldu eta berritz beherte abiatur behar zelarik, bizkar hezurra hausteko leze batzuetan barna! Jainko maitea! Drains bezetan dut nere lagun chakar gaichoa, bi makiletan finkatua belhaunak noiz nahi huts egiten ziola kotz! Berrestan eginen zituen hamar metra, gero hogoi gibelka irriskua ikusi nahi izan ez balu bezala! Eta gero behererat heldu orduko, berritz egundaino bezala haste! Hainik etzuen gehiago arrakidan eta tiroka ere ez ginion urhats bat eginara-ziko. Egiarki urratua zen Heita Desgouts. Salbai batzuek bizkarrean hartu ez balute, etzen helduko. Ni aldez ez nintzen hala nekatur. Di, gauza ederra da garzotasuna!

Dolun ginen. Hango jendea ez da aberatsen, bainan ederki lagundu gintuen halere arrats hartan. Eguberri zen biharamunean. Gau hartako nere ametsak eta ametsak: «Mundu guzian zer alegantzia gaur! Aphrezekek hiruna meza ematen dute, eta nik bat bakharra ezin eman! Hiruetan Jesus maitea behotzetarat jautziko zaiote, eta nori behinere! Ezen ni salbaen erdian naiz orai! Duela urteak untzian nintzen oraino! Añian egun hobeak ethorriko ahal zaizkut noizbeit!» beruan bederen!», hita desgouts nekatsuegia baitzen berehala bidcan emateko, hirur egun handi egon ginen Dolun.

Handik Konpharreat joateko berrogoita zortzi oren behar dire. Izardi ederrik igorri ginen bidcan, negua izanagatik, bidcak terra baitziren. Elhurra egina zuen eguberri. Irina erori zela erran zaukuten han gaudiko salbaek.

Abendoren hogota hamekak orhan bethean atcheman gintuen gauak. Gidariak, abar batzu han eta hemen bidduak, etchola tchar bat egun zaukuten berehala eta su handi bat erdian phiztu. Nekhearen nekhez hita desgouts etzitaken gehiago mintza. Zabal zabal turrean etzan zitzautan beraz eta lokhartu. Biraka iratzar-arazi nuen biharamunean («urthe on» errateko: «hita, althea bihotza! Bi egunen buruan ikusiko eta besarkatuko ditugu hita (ombes eta hita Fontaine!»)

Do gidari, bidca hartu ginen aski goiz, bainan ez gintuen ehun urrats eginak, orre bat ikharagarria egin zaukularik dok: «Kolpatua naiz! (Bainan laudate Dominum!») kanabera punta zorrotz bat ondoraino zangoan sartua zuen.

Hauek erran behar dautzuet, orai eta gero jakin dezazuen: han gaurdi etsuen kontra herri bat zaindu nahi dutelarik, kanabera puntak landatzen dituzte inguruz-inguri, ongi zorrotzurik. Padire zehe bat luze direnak, eta itzea baino chorrotchago. Kerbat salba ez da kiltzen, horiek zangoan kolpatuak! Do hirur ilhabe handi egon zitzaukun kolpe hortarik gelditua...

Urthea ongi hasten ginen segurki, ... balaitzketoz, urtheak kola kate behar baitu!

Odol hainitz bazoakion diarre dohakabevri eta mihise bat bezen ehuri egina zen. Etzen lotsatua halere, eta erdi uruz erraiten zaukun: «Denedikatua izan bedi segurki Jainkoa! Urthea ez nezaker hobeki has!»

Laguntzailetarik bizpahirur lasterka joan ziren lehen herrikkarat hango jendeari erraterat zer gurtatu zitzaukun heyen eremustan eta zatorzkeguz laguntzerat. Herri guzia han ginen ondoan gerochago. Oro ikharan zauden haatik. Su bezalako gizonik egundaino etzuten ikusi eta azkarrak izan gintazken alde batetik, eta do kolpate bazen, heyen gatik egun zen, bertzetik. Gogo onez lagundu gintuzten beraz: «Ez gintuen segurki zuen kontra landatuak punta horiek! Hortik iraganein zinetela jakin baginu, ez ginen biderik heliko. Ez gaitzazuela beraz madarika!» Do bezen herriat airean ereman zaukuten, han arthatzeko...

Gertakari horren gatik ihuneko Pharrerat helduak  
 ginen. Handik Kolong zenbeit orenen bidetan da bakharrik.  
 Freskoan kolpeak etzian kalako mina egiten deakreari eta  
 aski aise jasan zluen bizkarrean zabilkatonek bide tzar  
 hetan eginarazten ziozkaten jauziak. Mainan bixaramusean  
 deus etzizaken jasan eta Pharren gelditu zitzaunkun. Giza-  
 gauzoa etzen beraz gurekin beta Combes eta Rita Fontaine  
 eguerdi alderat bedarkatu gintuelarik! Zenbeit egunen  
 buruan ethorri zitzaunkun bakharrik, Pharreko salbai baten  
 bizkarrean istapeka.

---



---

# Bortzgarren Kapituluua

## Kotangen.

Nihork ez du ahantzia, bita Combes eta bita Fontainen egoitza zer zen: oihanaren erdian etchola tchar tat. Gizonik etzitzaiolen usu heldu ikusterat, ba kaatik Jesu-Krucho gure Jauna. Egun guziz ez bada, bederen aski maiz. Sukharrak etzituen ordu arte belki utzi meza sainduaren erroiterat. Misionesten etsai handia sukhar hori da: indarrak laster khentzen ditu eta urinak urtzen. Gu harat heltzean, bita Combes etcholatik agertu zaukularik, ez nuen ezagutu. Bizkitartean aski dembora elgarrekin egonak ginen Parisen eta etzuen urte bat baino gehiago ikusia nuela! «Zu zurela bita Combes? Ez dezaket kasik sunhets!» Hitz horuek erraitean, jauzi batz etche aintzineko erreka iraganik, bi besoak zabaldiak neozkan gizagaizori. Iriz ikardetsi zautan: «baude, adichtidea: ikusiko dugu eia sei ilhabeteren buruan horren aise eginen duzun oraino jauzi zuk ere! Bauran alegera gaitzen halere! Eta benedikatua izan bedi egun hemen bildzen gaituen Nausi Ona!»

Nun othe zen bita Fontaine nindagon, barnetik oihuka hasi zaukularik: «Ni jaun handiegia nauz zuen biderat ethortzeko: zuek zatorze hunaraino!» bita gaichoa! bitzineko egun batz kolpatua hura ere, etzama zagon, ichter guzira telytua. Minak laster gaichtatzen dire toki hetan.

Horia beraz lau misionest elgarrekin etchola tchar batean, gizonen egoitzetarik urruen, eta Jondoni Patichita bezala abere gaichtoen erdian!

Oihaneko aireak etzion on egun bita Desgouts maiteari, berehala eritu zitzaunkun. Nik ez nuen luzamen puchka tat baizik, bita Combesek lehen egunean errana frogatzeko. Hamabortz egunen buruko sukharrek hartu ninduen! Ez nauen oraino hoven berri: ez nion beraz amor eman nahi izan berehala. Orduan ikoragarritzko su batek burutik zango puntetarar hartua, eta nere laguneri deus erran gabe, mainhatzerat joan nintzen. Ber haurkeria! Urerat orduke, odol guzia hormatu zitzaunkun eta ez nintzen aise atheratu uretik ez eta etcholan sartu, zabal zabala etzateko. Ezkarrari gaitza oraino arkonkiago lotzen baita, ez da sukharrekin nik ikusi ez nuenik. Sendatuche eta ere, nere meza ez nuen hasi eta belki segitzen ahal, hala aruldua bainintzen!

Guzien gatik, norik erran etchola hartako zoriona! Jainkoak berak harat bilduak, har gincauden bertze orduz Jesus Pitlemeko etcholan bezala. Mehide

beraren gainean etzanak, laukak su berari so, kantuz eta othoi-  
tzean gineraman dembora, artetan pipa on batzue errez, goiz edo  
berant Jainkoa urrikalduko zaukula. Bertzeak baino hobeki  
zena, oihanerat joanen zen jateko zerbeiten telha. Oro on dire  
bertzerik ez denean. Iratze erro edo belhar batzue baldurik,  
ekharriko zituen, egosiko... eta, irrisarekin nahasirik, janen  
zitezten etcholakot eriek, bertze batzuek bertze nunbeit ephernak  
jaten dituzten bezen gozotik.

Egunak hola zoazin. Behin sekulako phesta bat egin  
ginuen haatik. Beha. Jutarik batek erreskan arrain bat  
atcheman zuen ... chardinaren heinekoo, eta, Aita Combes  
baginuen nautsi, chardinaren keineko arrain hori lau parte  
egin zuen ... eta bakotchak gure partea jan ginuen! Xer phesta  
guretzat! Pannan gertatu zauku ederki barur egitea ere, eriez  
uzanez oro jatekoaren telha joaitiko!

Osagarri onean delarik eta apetitua chorrotch, asti  
errek da irrisaren irestea, idorrik ere. Sukharrak hartzen  
zaituenean, irrisaren usainak berak lotsatzon zaitu. Eta  
bertzalde haste hetan bederen ez ginakien betri jatekorik  
ukhanen ginuen ere. Pannan jainkoak adekikide batzue  
zgorri zaukun lasterko: Kontomo derizan herruko sende  
gaichoak. Kolangeko oihanen iragam dugun demboran, hek  
ekharri daukute gure irrise guzia.

Gu han kokatu eta laster, badakizue nor ethorri  
zitzaunkun ikusterat? Niem. Eguerditan bazkaltzako gin-  
tuen iratze erroak ikusi zituelarik, negarrez hasi zitzaunkun  
... eta handik bi egunen buruan haren muthilak etcholarak  
ekharri zauzkuten bi basa-idi, cherri eder bat eta zenbeit oilo.

*St* Sukharrak uzten gintuelarik, ez ginen le egoten:  
inguruetakoko herrichketarat joaiten ginen lasterka.  
Aita Fontainak, bere ichterreko mina etzuen arras sendatua: horrengatik  
itzuli horietan gurietan gurekin jabilan, jada. Behin  
Aita Combesek ere minhartu zaukun, kanabera punta bat  
zangoan sarturik dok bezala: zauria etzitzaiion haatik gaich-  
tatu eta hamabortz egunen buruko sende zen.

Itsteak bazoazin anhartean, ilhabetiak ere be, eta  
Pliou dakizue nari debaldetan galdetuzen gion urrunago  
chokho bat atcheman zezan nunbeit guretzat. Itzul jadian  
estuin, itzul jadian ezker, orok beltzuri gaichtoa egiten  
omen zioten: nihork nikun ez gintuen gu nahi! Ez gintay-  
ken bizkutarlean betri etchola hartan egon: hurbitegitik  
zabilzan tratulari annamitak. Pliouk terak errana  
zaukun, goiz edo berant, azkanean ohartuko zauzkula. Eta  
egin ziren! Zenbeit Kolangeraino ethorri zuren, beren bagiz  
fogatzeke, bainan nihork ez gintuen saldu. Ethorri bide-  
tik itzuli ziren beraz Annamitak.

Pegriak ez ginetzayken gehiago hats: lehen aldian  
ez bagintuzten atcheman, atchematen ahal gintuzten  
ligarenen. Bertzalde gure oihana etzen osagarriaren-  
tzat hobere netarik bere umidura eta aire eskasarekin.  
Jada muthil bat burutik joana baginuen: noiz-nahi teluz  
gorri-gorria oihanaren erdian atchematen ginuen, somekoak  
zuhaitz baten puntan. Bldi batzue hirur egunen buruan  
atcheman ginuen bakharrik, nunbeit: belhar jaten ari  
zen gosearekin. Gerotik hobekitu da segurki, bainan oraino

hilo bat bade buruan. Sukharrek ez baigaituzte geroni hortaratu, eskerrak zor ditugu segurki Jainko Onari!

Nigararak begietarat heldu jauzkit Kolongeko berriak hemen ematean. Abegin eta zorionezko negarrak dire haatik! Baginuen segurki hainitz jasaitako, hala da, bainan Jainkoak ez othe daki zer-nahi landareri usari onaren ematen? Gaua baizik ez baginuen begien aintzinean eta ez baginahun norat joanen eta zer bilhakatuko ginen oraino, bederen hau ez ginuen ahazten: Jainkoarena dela lur guzua eta beraz, nun-nahi izanik ere, telki Haren geruzan gindela! Hiritako lotsa beraz? Apostoluak lotsatu ziren eta berehala Jesussek larderiatu zituen....

Oren beltzak bagintuela horrengatik ezin ukatua da. Kalako batez, hura zer erraten zautan Jeta Combesek: «Eli, hil baino lehenago lauzpabortz paganoaren batzaitzeko zoriona banu, edo bederen haur batzueri kati-china puchka bat irakusten ahal banote, zori aise joan nintaken mundu huntarik! Eta zori gogotik kanta nezaken Nunc Dimittis!»

Jainkoak hitz horiek aditu zituela iduri du, ezen Jeta Combes hola mintzo zitzaudalarik, jada bidean baren gizon bat, Blouren jendekitik. Hura izanen da gure lehen-lehen ikaslea: Hemur zuen izena eta koram deitu herrikoa zen. Nihork ez gaitu eskualde hetan sinhestearen hedatzen gehiago lagundu hemurrek baino. Bainan Jainkoak ederte kristatu du: Balmarrik ez da batzaitako urak lehenago garbitu duenik....

## Seigarren Kapituluua.

### Koxamen. - Debrua sinhestearen hedatzaileen Kontra.

Hemur Kolangen ikusi ginuelarik nungoa zen erran zaukun berak, eta guk berehala galdetu ginion, Koxamerat poiten baginen egoterat egun batez, zer begitarte eginen zaukun hango jendeak. Etzakiela ihardetsi zaukun, bainan, bere herritarrek mintzaturik, hek erriana helaraziko zaukula: si Nola nahi, Koxamerat Pliourekin itzuli bat egin nahi baduzue, atherbea eta jana lorietan emanen dauzkitzuet, nik v. Etzen gauzke, eta berehala hitzeman ginion ondoko egun batez joanen ginetzavola ikuslerat.

Hemurren herritarrek behinere etzuten kempotarrak ikusi. Behar gabe ez lotsalazko Koxamarrak bita Fontaine eta Aita Desgouti gure etxolan utzi gintuen laguntzaila gehientsuekin, eta Forta Combes, Do, ni eta bi era-krasle lotku bakharrik bideari.

Kolangetik Koxamerat egun baten bidia da, zazpi zortzi herrichketan barna. Herrichka horietan gu ez ginen sartu. Bainan horietan ez sartzeke, gure bidia sasuz sasi egin behar ginuen. Her izerdiak izorri gintuen! Bainan ihuntzeko Koxametik oren erdi baten bidian ginen, Ponang deitxu bertze herrichka baten alde-aldean. Hain chuchen phrestak zituzten Ponang, eta herriko jende guzia plazarat bidia, asean eta bethean zagon. Norbeitak ikusi gintuen halere eta bertzeak ohart-arazi. Ustoz etsaiak ginen, orroaz hasi ziren oro. Bainan ez giniotela behatzen ere eta aintzinat ginoazila ikusirik, ichildu ziren eta ... dudarik gabe, berriaz phrestari lotku.

Gau ilhuna zen Koxameko tehen etxetarat heldu ginelarik. Pliou hasi zen Hemurri oihuka. Bainan humak ez gintuen herritarren baimenik gabe her-arazi nahi. Bidle zituen barne batetarat, erran zioten nor ginen eta nola haren etxerat ginoazin. Hemur herriko gizon handiskoemetarik baitzen, nihork etzion deusik ihardetsi, eta Hemurrek terro-terro ereman gintuen bere etxerat. Kan egin ginuen le gau hartan.

Koxamerat sartu gabe bada ibai bat jada aski maiz aipatu duguna: Pla deitzen da. Ipharral-detik heldu da, bainan Koxamen betbetan mendial alderat hartzen du. Askiz zabala da, eta guzuz oldere handian doa. Udan ur guti dabilka haatik.

Nere Jaun Cuenotek nunbeitik bazakuen Bahnarren eskualdetan ibai handisko bat bazela, Saoseko ibai handirat bere urak zeramaizkama: Dla hori da delako ibaiak. Bita Combes Bahnarrekin egotekoa zen: Bita Desgouts ere ba, gerochago apherzeitegi bat idekitzeko. Painan Aita Fontaine eta ni, ibai hori ateheman orduko, horri segi urrunago joatekoak ginen. Apherzeitegiak kala manatua zaukun eta liburu bat emana zaukun hango mintzaurari oharitzeko.

Painan chedeak ez dire bethi bururatzen. Behinik behin, hori ez dugu behinere bururatu. Eritasunak sobera langile janen zola kusirik, jaun apherzeitegiak jakinarazi zaukun etzuela balio urrunegi joatea: « Ibaia atehemanen, duzelarik, urrunago joan gabe, hoka zaizte aldeko herrietarik batean, eta han berean loth lanari .... »

Santeginat helduicheak ginen beraz. Denik ere beherachago lautsi behar othe ginuen, eskualde arnago baten bita? Dema dela, ez ginuen gehiago buru-hauste handi handirik ....

Bikaramunean gure begitarte churiak Hoxameko salbaireri agertu giniozkatelarik, nola eman zauzkun beha! Korizaitzez bat bakharra etzaukun ondorat menturatu eta inguru herriez ez ginuen cheketasun bat ere ukhan. Funtzean bat ethorri balitzauku ere alderat, nola adituko ginuen elgar? Heyeu mintzaura ez gindakien, salbu Dok zenbeit hitz, eta erran gabe doa berena lauzik etzakitela. Ez ginisten beraz urrunachago joateko laguntzarik galdetzen ahal izan.

Ibaiazen ezkerretik da Hoxam. Ekherrean mendi handi bat oro gordetzen zauzkuna. Beharra eragile handi: puntaraino joan nintzen ahuntz bat tezen zalku, Aita Combes beherean utzirik, nunbeit zerbeit ikusiko othe zen handik. Puntaren puntan zuhaitz bat bazen hain chuchen. Urrunago ikusteko, hortarat izan nintzen azlapartea. Painan izan banintzen izan gutik egin zuen Ez banuen hantche izkar kezurra hautsi. Alabainan izerdia uretan nintzen. Zuhaitz haren puntan hotzak berehala hartu ninduen eta indar guziak belbetan joan zauzkitan. Ezagutza ere ba naski. Horras nerebaiteratu nintzelarik, zuhaitzari bi besoz lothua nindagon, hortzak karrastian. Nola eskerrak bihurtu niozkan berehala jaingo Onari!

Kala lekertu, kalako irriskuan izan, ... eta deusit ikusi gabe abiatu nintzen beheite, ezen nere mendiazen aintzinean bertze mendi batzuek oro gordetzen zituzten. Bita Combes nere beha zagon. Ondikotz, ez non berri onik emateko!

Horrengatik Hoxameko itzuli hori ez ginuen arras debaldetan egin: Hemur etzela nor-nahi baginakien orai, bai eta ondoko egunetan haren gainean kondatzen ahalko ginuela. Hoxamen lehenbailehen etche baten egiteko chedeak hartu ginuen beraz, etcholan utziak gintuen bi lagunekin hortaz mintzatu eta.

Hoxameko etchola hortan maiz eta maiz gure

ikusten ibilea laginuen gizon bat: Diong-dia zuen izena. San eginarekin adichkide, bi besoak gurutzaturik noiz-nahi orenak egonen zen gurekin. Mandatu batzu eginarazten giniozkan noizelik noizerat, eta hortan truk ogi phusta bat edo bertze ematen. Ezuen bizitzeko bertze irabazpiderik.

Koxamerat parteko chedea ginuela aditu zuelarrik, lotatu zen, eta badakizue zer egin zuen gure gibelatzeko? Herri herri berria hedatu, ginaliltzan toki guruztan emazteak ebasten gintuela, eta nahi gintuen gurien hilarazteko mita eta mita sorginkeria tagintuela! Eta ondikotz, salbu Hemur gure adichkideak, orok gezur horiek sinketsi zioz kalen! Hemurrek ba, gure alderdia hartu zuen goraki, eta oihuka ari zen nahi zuten gurjieri: « Diong-dia ez da gezurte handi bat baizik. Gizon churuak, horiek dion bezalakoak balire, etziren Bliou famatuarekin adichkidetuko! » Bainan gezurrak laster egiten ditu erroak eta handik goiti aski begi gaich-toa egiten zaukuten salbaich.

Kamar urthe joan dire gutic netik guk gezur horiek hedatu zirela ikasi arte. Odukotz, ezagutuak ginen kan gaindi ere. Bainan ez baginakien gezurrak gure kontra hedatu zitela, aise okartzen ginen bederen zondeak arras ikus egiten zaukula, zegenak ukhan baginu bezala. Gizon edo emazte, nor-nahi kausi zadiela gure bidean, hiru delbruck hauzteko lasterka abiatuko zen zu ikus orduko, orkanak orkanari. Herri edo herriikka batetoriat hurbiltzen baginen, laster atke eta leiho gurziak hetako ziren. Norbeiti barmerat oihu egin ginazola, « dieng » zela ihardetsiko zaukun. « dieng » horrek « ezin hurbildua » erran nahi du, eta « dieng » izan ditake edo eriz edo bertze zerbeitzen gatik. Ez da hemen gaindi haizue « dieng » denari mintzatzia ere. Eta hola herri osoak « dieng » gintuen!

Ez baiginakien Diong-diak gutaz deusik erran zuela, Do Koxamerat igorri ginuen etche baten kan egiterat. Denbar lagun ereman zituen berekin. Hemurrek begitarte ona egin zioten, bainan laster okartu ziren bertze salbaich etziturzela begi beraz ikusitxo. Gure Annamiten jaunziak ikusi zituzteneke, herriko emazte gurziak gorde ziren, eta zuzonek etzuten onkartu. Do has zadien herri hartan etche baten egiten, Hemurren bertz egin ahalen gatik. Honek erran zion dori zer chedetan ziren salbaich, bainan etzadin Kolangerat deus egin gabe itzul, chokho bat irakutsi zion oren erdi baten bidean, Bla ibaiari hurbil: « Hau nere-nerea da: zuretzat ematen dauzquit. Etche bat egiten baduzu eta hortarat heldu badire churuak, errozuta nik zaurduko ditudala » Beha Hemur zoin atchikria zen zuri, eta kalere egundaino ez dauku Diong-dia gure kontra mintzatusa zela salatu! Zer den haatik!

Dalako etchea chutetu orduko hartan egoterat joan ginen bita Combes eta ni. Mementoan etziren nikorat higitzeko on Aita Fontaine eta bita Desgouts. Ondoko egun batez ethorri zitzaunkun Aita Desgouts. Bidean norbeitak lagundu ez balu, ez omen zen haatik sekulan Koxamerat helduko! Aita Fontaunek etzuen hain aise deliberata bere etchola tcharretik atheratzea, bainan bakharrik unbatu zen ... eta egun batez makul batean finkatuz ethorri zitzaunkun.

hura ere. Her atsogina egoitza berrian egun hartan!

---

---

---

---

---

## Kazpiaren Kapituluua.

Koxamarrekin. — Sua. — Hil nahi gaituzte.

Hona lau hitak egoitza berriuan. Oro ikus, zoin urrikaltzekoak diren haatik! Sinhestea hedatuz, debruari eta haren mandatarari guzjeri gerla egiteko hunat ethorriak, geroni debruaren mandataritzat hartu nahi gaituzte orai! Gaijkiaren erakasterat heldu gitzaiotela derasate laster guzjetan! Oi, zer zimikoa gure bihotzetan gizon bat, emagte bat gu ikus orduko ikhasari ematen zankularik! « Gaichoa, bahaki Jainkoaren dokaina! Bahaki edaterat emateko erratan daukana nor den! Bahaki, nek galde bezoko ur lizia! » Horia zer gogoratzen zitzaiztara, norbeit ikhasi- tzen zautalarik, eta gibeletik oihu egiten nion bihotzaren barne barne netik: « Norat hoo, dokakabea? Oi, ez dakik, ez dakik zoin maite hautan! Ez dakik hure gatik zer egin nezaiken! Itsasoak iraganik, mila irriku garhaturik, sort-herria utzerik, ama gaicho bati bethikoiz adio erranik, hunat ethorri nauk hure gatik ... eta hi, ikhasi hoo? Heretzat lotsa haiz? Bada, ez duk munduan ni baino adichkide hoberik! »

Bainan bihotzeto zimiko guzien gatik, ez ginen ukho egiteko heinean. Sinhestea duena ez da lotsatzen, ez du ukho egiten. Bertzerik ikusi zuen Jesu-Kristok! Eta, guzien buruan, salbaiek holako begitartea egiteak zer erran nahi zuen? Jainkoak benedikatzien gintuela! Alabainan, Heta Combesek erraiten zankun bezala: « Egun dainokoa da, eta orotakoa: sinhestearen hedatzen hazi diren guziek trabak kausitu dituzte beren bidetan. Debrua oihuka ari bada, zalapartaka ibilki bada, froga lotsa dela, oro ez doazkiola nahi luken bezala! Bainan ez da debrurik ez bertzerik, Jainkoari fidatzen dena bururaimo heltzerat gibelatuko duenik! Ez, ez da! Guk ere beraz, gure lekaltu guzien gatik, heldu behar dugu bururaimo! »

Koxamen nitor etzen harte hartan gutarik hurbildu ere nahi zuenik, salbu hemur. Huria arrats guzjer heldu zitzaunkun ikusterat eta berrien galdetzerat, eta gaur ere noiz nahi gure ethean iragaiten zuen. Ehen gaur gurekin iragan zuenean, ederki lotsatu zen haatik, ilhun ondoan gure laguntzarik guzjak, kantuz bezala, gora-gora othoitzean hasirik! Hainetake ikhara lotu zitzaion, zer othe ziren oihu horiek, eta ikhasi jautkotan zen othoitza bururatu zelarik. Orduan aditu zituen elke eta irriek ez omen zuten segurki karga txarra khendu bizkarretik!

Hemur izan dugu zenbeit ikhabetoz jateko guziaren eskuratzaille. Hirisa gutitko bildurik with hartan herriko landetan, Koxamarrek nihundik etzaukuten gure doia

saltzen ahalko. Urrunago bilhate behar ginuen beraz. Eta  
frangotan aski urrun. Alabainan hogobat lagunon harjake  
ez da guti behar. Bainan hemur garzou norat nahi joaiten  
zitzaunkun lorietan! Bertetan bertze zerbeit ere ekhartzen zuen  
edo oilo batzu, edo zenbeit sagu gazitu, edo kolako zer-nahi  
gochokeria! Deus handirik atzuen berak ... eta halora egun-  
dains ez du bilhate gure bizkarrean aberastea! Zeririk ez  
du behinere galdeta egin dauzkun mandatuentzat, eta  
zerbeit eskaini diogunean, bethi sobera zitzaion!

Arreba alharguntza bat bazuen hemurrek, bera bezen ora:  
harek lehertzen zuen guretzat anaia ekharri irrita: harek  
dite azkenean gure ganat kerrike emagte beldurtiak  
bildu. Anoiak arreba itsuluki maite zuen, eta nola berak  
ez baitzuen haurrik, arrebarena bere gain hartua zuen.  
Haur ziren beraz orotarat hemurren etchea: Hemur bera  
emagtea, arreba eta huren haurra. Jeng zuen emagteak  
izenak, hemon arreba eta teot haurrak. Horra, bada,  
gure bathaiko lituru handian irakur ditazken  
lehen-lehen bahnar izenak. Jada horiek ziren gure  
adichkerik hoberenak, bathaite auztinezar: hameta  
othortz, jaunikoari egiten, ginion lehenbaithehen arzi eta  
bil zetzan bere arthalde handirat.

Ban gairdi ez ginuela bethi irritarik atchemanen  
naski, geroni hasi ginen etche ondoan eraiten eta ez  
ginen segurki debaldetan izertu: jaunkoak ederki la-  
gundu gintuen eta lehen urthean berean sei ilhabe-  
teren irrita selhauruan sartu ginuen. Baino urta  
aiphatu baino lehen ez othe nuen erran beharke oha-  
naren errotek atheratzen haki ginelarik zer gertatu  
zitzaunkun? Ba, ezen aski lotatu ginen. Kerbeit zuhaitz  
bagintuen jada bospasei egun hartan lurraz etzanak.  
Su eman ginisten. Bainan sua eman eta gelditzen  
jaken behar da, eta zuk ez ginakien. Sua nauaita zi-  
traunkun beraz: gureak eta gure etchearenak egin zuen,  
kozameko jende gurzia lagungerat ethorri ez baitzaunku  
eta kontra-su bat eginik gure sua geldetu ez balu...

Ni bederen egundaino ez naiz hala izite! Jainkoak  
egun hartan kozamen sua lotzerat utzi balu, helen gintuzten  
salbaiek chori batzu bezala. Bertzalde ere fita Combes eta  
ni ederretarik eskapatu ginen. Landaren erdian ginen,  
sua nauaita zelarik, harrituak, eta ez ginen oharitzen  
zero eta hurbilago heldu zautkula. Zerbeit begiak edaki  
zituen, beharrik, nere lagunak. — «Bainan bidea hetua  
dugu, hala dourisboue! Baierrat jauzi egin dezagun!» Eta  
hala egin ginuen, lasterka panik. Bi, jaunkoak ez balauke  
hori gogoratu! E dut uste egundaino be Deum orduan bezen  
gogotik kantatu dutan!

Ernan gabe doa debrua etzela lo egon bere abdetik:  
gairki-egile batzu fairik ez ginela mar-mar-mar orotarat  
hedatu zuen.

Berenaz ez da Bahnarrak baino jende ezti eta  
baketiarragorik. Pada, aldi huntan orok hitzarta zuten  
gure etcholan kalite behar gintuztela! Bai, debrak zabilz-  
kan. Alabainan bere eremuetan mundik orhatsiko zituen  
missionestak, hem-krichte beroren mandatarriak!

Huna chehe-cheheki gertakari guzia. Egun batz  
 auzo-herritar batzuekin edaten ari ziren Koxamarrak.  
 Hemurrek emana zuen arnoa. Huren karraz, han ginon  
 Aita Combes eta ni ere phesta hortan. Jada zallutzen  
 hasiak ziren mihiak eta berotzen buruak. Gau hartan  
 kalitzekoak gintuzten salbarek. Bazakien numentik hori  
 gure adichkideak. Berea gogoan joanaraziak gintuen  
 beraz bere phestarat. Bizkarra zen alde batetik, ohe-lari  
 gaitza bertatik: ez da beraz harritzeko zerbeit balinbazon  
 Hemur bere herrian. Chutetu zen beraz betbetan eta orraz  
 hasi lau basterretarat: « Herritarriak, ongi adi nezague:  
 norbeitik erran dautanaz, gaitzi atchematen omen duzue  
 ni Annamitekin adichkide izatea! Kenbeitik ez omen dute  
 ongi hartu egun nik horiek hunat ekhar-araztea! Bertako  
 nahi diote zenbeitik Annamita horieri? Zer gaitzi egin dute  
 hemen gairi? Kuen irrisa jan dutenean, ez othe dautzue  
 ederki ordaindu? Eta funtsean, saldu badizue, ez othe ditzue  
 zuen nahitarat egin? Ba othe da hemen nikhor, handi ala  
 thipi, behar ez den zerbeit aditu diotela finka dezakerik?  
 Chuti hortik, ichilkariak! Eia zer ikhardesten ahal duzuen  
 nere solaseri? Ni, ez naiz lotsa goraki eta goraki aharrezko.  
 Ba, maite ditut Kampotar horiek, onak eta onak baitira!  
 Korigaitzez ez da bertzerik hemen hori ahortu nahi  
 duenik!»

Eta orduan, jauzian joanik, sutik itchindi bat  
 hartu zuen Hemurrek, zintzurerraino sartu, eta beritzi,  
 gure etxaien buruzagiari begietarat so, egundaino baino  
 orro handiagotan hasi: « Eik uste baduk ni bezenbat  
 baharizela, ausikian itchindi hau harturik erradak, bai  
 erradak higuintzen nautala nik higuintzen hautan  
 bezenbat!»

Bai, basterriak ichiloko zaudela barne hartan  
 orduantche! Nikhor etzen atrebizten ahoaren idelkitzerat...  
 Jure etxain bera ikharan zagon bere chokhoan! Gerokago  
 barkamendu galdetu zion Hemurri, hura bere uliekir  
 uztea hobeki zuela iduriturik.

Hango mintzaira ez baizinaikien oraino, hitzik ez  
 ginuen Hemurrek erranetarik aditu. Bizpahirur urkera,  
 buruan ikadi gintuen beraz horiek, gure kontra zirenen  
 buruzagia... bathaiatu ginuen goizean. Delhauneko  
 Aita Combesen aurtzinean, nigarrez eman zauzku  
 chehetasun guziak: « Zer dohakabea ni! Zutik gizona du  
 ez baitzaituztek gau hartan hilarazi! Hemenduk goiti  
 ez duzue haatik ni baino laguntzailu handiagorik nikun  
 ukhamen! Lorietan hil nentake zuentzat!»

## Mintzagarren Kapituluia.

Aita Desgouts eta Aita Fontaine ithotzer. — Mintzagarren ikasten. — Koxametik Kolangerat, Motongon barna.

Ondoko egun batez Aita Desgouts eta Aita Fontaine ez baizintuen galde! Aita Desgoutsak nunbeit ezkabia atchamana zautkun eta sukharriarekin etzetzaken le chortarik egin. Mainhoek baizik etzieten on egiten. Hain chuchen Aita Fontainek ere mainhoek behar zituen bere zauriarentzat. Gori batez bigak joan zitzaunkun beraz eta urruntehaso blaiten ur handichago bat, hantartu. Ez batek eta ez bertzeak etzakiten iheretka. Untziska bat hartua zuten uruz bertzaldetat poiteko, han ondoa hobeki unkituko zutela, noiz-eta ere geiak hartu baitzuten eta, Aita Fontainen marinel jakitate guziaren gatik, harroka batzue-tarat firrindan eremanik han pausatze "bizkar heruriak hautsi gabe! Jainkoak lagundu zituen halere, eta harritik harurak, kuskako batzuen gatik, urak berak ereman zituen lehorrerat: Aita Desgouts ezkerretako alderat, Aita Fontaine eskunetorat. Hau atcheman genuen lehenik, eta zer gertatu zitzaieten oraino ikharaz erraiten ari zautkun, guk jada ithoa uste ginuen Aita Desgouts bertzaldetik oihuka hasi zautkun: «Ehorre gogo duize ala ez chakarraren bilha?» Zer eskerrak behurtu gintuen orduan, ere jainkoak!

Haritzan ari gintuzten ~~an~~ hartean Koxamarrek. Ez gintuen gehiago hainbertze lotsatzen eta dudatzer, hakiak izen gure kontra erran ziozkaten gezurrez. Zerbeit saltzako zutelarik, bakhar batzu baziren jada gure egoitzaraino menturatuko zirenak. Beraz, hetarik gehichago hurbiltzeko eguna ethorria zitakela eginik, hemurri galdetu ginion bere etchean chotko gutarik lutzakiruentzat. Esta-kuru ederra ginuen mintzaira ez ginuela han baizik ikasten ahal. Gure galdea gogotik onhartu zuen gauzo gizonak.

Deutik ez da munduan hain gaitz nola mintzaira baten libururik gabe ikastea... guzuz salbaia balinba-ditutzu bakharrik haren irakable. Ba, salbaia batek nor-nahik tezen ongi erranem dautzu begien aintzinean duen zerbeiten izena, bainan bertze deutik! Hukarek behar duzu azkenean mintzaira guzia moldatu. Eta prediki bat nunbeitko mintzairan epin behar duenak, hango mintzaira behar du lehenik errotik ikasi! Padakit: predikari bat ahal don bezala mintzaturik ere, jainkoak egia sar-araz dezake aditzaitearen hitotzean: Favian ez da holakorik ikusten egundavotik: alabainan jainkoak baita

bere chedeak. Mitronestari dago beraz ongi bermatzea eta izertzea mintzairaren lehenbailehen ikasteko....

Beta Fontaine, Aita Combes eta ni joanen ginen Hermeun, etcherat. Hoxam guzia lotsatuko ginuen, oro batean joan bagine! Hhuntze guziez, herri guziez, etche batetarot biltzen baitzen, guk ere agerraldi egiten ginuen eta han, lapitza eskuan, zer aditako ginioten beharriak luzatuak egonen ginen batzu eta bertzeri. Herri murri ere hainitz, galde egiten ginion. Gauaz ikakak beharamunean berritz gogoan ibiliz, hitz larro pollet bat laster buruan kokatu ginuen. Dainan, ondikotz, predike bati lotzeko beharren. Beharrenak diren hitzak ez ginatzen Ken hola kas!

Ez bide duzue ahantzia Holangetik joatzen zenbeit lagun han utzi gintuela hango egotzaren zaintzako. Gure berriketari eta mandataruen pauba lekua han zen, bertzalde. Noizetik noizera geronek ere agerraldi bat egiten ginuen haradino. Holako batez, Aita Combes eta neroniri gertatu zitzaunkunak gain-gainetik ohore egiten baitie Ama Burjinarri, ez nazoke hemon errangabe. Biztak ginen. Bakhar-bakharrik aldi hartan. Gurekin eremanak gertuen gure othortzeko liburuak eta bazkaltzeko irrisa.

Ez da ostaturik lan gairdi: bidetari bat ez da beraz behinere bere bidetek baztertuko eta herri batean sartuko aharriuen tenoretan, nun-eta ez duen bertze egiteko zerbeit herri hartan. Erreka txhar bat atchamatan denean, aldean jar eta jan. Horra hango moldeak! Eta gero aho onarentzat, pipatze bat edo biga ere ....

Hoxametik Holangerat bada bide bat baino. Gehiago: ez ginuen bethiko bera hartu, Motongen baiginuen zerbeit egiteko. Ur kegi batean bazkaldurik eta gure othotz guziak erranik, equerdi ondochean bideari lotuak ginen berritz. Horra nun artho landa batean bidea galtzen dugun. Jo eskuan, jo esker, nikan chendrarik ez gehiago! Urruntchago zenbeit nekatcha ikusten ditugu. Bidea bada kikatela, hurbiltzen gitzaiote, ondotik jarraikitzeke chedearekin. Beditu bazintuzte gaichoan izkiritu eta karrakiak! Larritu nahi izan lagintu, elgarri besarka lotuak etzuten oihu eta orro gehiago eginen! Lastersko ketarik urrundu ginen beraz, zer gerta ere, eta, gehiago galtzeko irriskuaren gatik, bertze aldarat itzuli!

Korrigaitzer, handik laster hotzak hartu ninduen burutik zango puntetaraino, eta urrun ginen oraino. Gogor egin non minari hastean, bainan laster nauzute zitzauntan: «Beta Combes, ez da haratik ez hualatik, hotze sartuta dut!» — «Nun nahi duzu bada atcheman atherberik, hortchet heldu zautkun horren kontua?»

Galerna bat heldu zitzaunkun gainerat, burumban. Jada zerua belyten ari zen alde guzietarik. Ortzjak hazi ziren laster. Eta ni ez ninduten gehiago chulik atchiki nahi nere zangoek! Abal zabala erori nintzen bide bazterrean! Urruntchago irrisa landa batean etchola bat ikusirik, Aita Combesek oihu egin zautan harat joateko: «Egizu oraino indar bat: sukhar korrekin etzaitzke bustian etzanik egon! Menturaz etchola hortan geruz bat badukexu ....» Abiatu nintzen hotzak tinkaturik, bainan hirun

urhats egin gabe berritz erori: « Jainkoaren nahia egin bedi, nik ez dezaket urhatsik egin gehiago, Aita Combes! » Jauts ahala curia hasa ginuen arte hortan ...! Orduan haucke ethorri zitzauntan zigorat: ta eta zeruko Ama Onari ez niola bere laguntza galbitu! Oihuka hasi nintzaion Eholzaren erditik, berehala: « Ama, ez naiz dohakabi eta eskergabe bat baizik, ni! Bainbertze eta hainbertzetan lagundu nauzu jada eta ahantzi dut! Oarka, Ama! Baina ez dute zure tothere neurrigabeak eta zure bihotz guzuz onak nere eskergabetasunari behatuko: orai ere lagunduko nauzu, eta gaitz hunen aztaparretarik alheraturik, imanen deuta zu berritz tideari lotzeko indarra! » Othortza bururatu orduko, chutik nintzen, sendo baino sendrago. Eskerrak nola bihurtu nituen orduantoko! Nere lagunak ederrik ikusi zuen neri egin jarraikiz, handik karat. Curia ere gelditu zen hainbertzenarekin eta zeru gaina egundaino bizala edertu. Carruraino bustiak ginen haatik, eta sukharra berritz ez lotzeko, zoin kroak hantchet berean bi eskuz, bihurtu gintuen, idortzeko. Alabainan bertze zoin korik ez ginuen eremanik! Hori arte ibili nintzen haatik gero, othortzean eta kantuz!

Mokongen ginen ilhuneko. Han ere ederrearik eskapatu ginen haatik! Bezperan hango gizonak curio herrikoan kontra gerlan arizanik, herritar bat galdua zuten. Hango gerlalan ez da maiz holakorik gertatzen, arsan erratiko. Mokongeko gerlariak doidoia izuliak ziren herriat, elsaia ondotik jarrautiko zitzaionketelakoan herriaren inguru guzian daktuzuen punta zornotzak landaturik. Punta horieri ohariturik eta horietan kolpa beldurrez, oihuka hasi ginitzaioten. Jada oro herriko etcherat bilduak ziren, gurlako jainkoari ohiko eskaintzen egiteko, eta arnoak berotzen hariak zituen buru gehientsuak. Beraz gure oihuak achta zituztelarik, uste izan zuten elsaiak gainean zituztela eta guri buruz lasterka ethorri ziren berez espata eta saietak harturik. Belhar handi batzuetan gorde ginen berehala, eta handik behinere baino garrarriago oihuka abiatu, gure izenak eta oro erranez. Jada ezagutzen gintuzten.

Fero haatik zer gau gochoa eragan zihuen Mokongen! Diharamuncan baxharrik pan zen kolanzerat Aita Combes: ni sukhararekin nintzen berritz eta zortzi egun luze irauan jautan. Ez naiz orhoit bertze behin ere holako sukhar bertetik ukhanik! Nahasia nintzen eta etche guzua nere ikharat dardaratzen omen zuen! Dena dela, nere lagunak arras eta arras lotatzen hasiak ziren, zurpaul eta mehatua, ilhuintzabatez koxamerat izuli nitzaiotelarik. — « Eia Kolangeko errika kura orai gauz balez iragan zinezakez, aita Douris-boure? » — « Beldurtzeko da ezetz, Aita Combes: lagunak telarra da epiazki sukharra? » — « Hlogera zaiten horrengatik, arlich-kidea! Hil arte bizitzen dire oro ... eta orduan ez da sukhar ez bertzerik! Oro sendatzen ditu heriotzak! » — « Balabiz, Aita ».

# Bederatzigarren Kapituluia

Bongao — Misionestak bakhoteha bere alde

Benbeit ilhabeto bazuen jada Koxamen ginela. Ez ginakien batere inguruen berri. Dizkitartean jaun aphez-pikuak basterpade jakion nahia zuen gure menditar-tetan zelhai handi bat edo bertze ez othe zen. Pehin errana dugun bezala, Koxamur hainitz ibilia zen, bereziki gurutzat ibiraren erosteko, estuun eta ezker. Buda, bazpahiru aldiz Koxamur beren herrian ikusi-eta, Tobangeko gizon batzu atrebite zitzaizkon ondotek, beren irrisa berak hobeki salduko zaukulutakoan, eta tuma zer erran zaukuten: mendiz bertzaldean, Bida ibaiaren bi bazterretan, zelhai bat bazela guziz edor eta luzea. Ez da hainitzeko Hemurrek ez bazaukun kolakerik erran: salatzea abe-katua zioten, bertzenaz kalituko zutela! Ber atsegina egin zaukun horren ikasteak, nahiz ez ginuen oraino ongi ikusten nola helduko ginen harat! Ordulik, ez ginuen haatik bertzerik kaskoan, joan behar ginuela eta joan behar ginuela baizik. Koxametarreri ez gionoten bakerik uzten gidatu behar gintuztela. Buzkenean batak hitzeman zaukun baietz, eta eguna hautatu ginuen. Dainan zer-nahi erranik herritarrek, hitza jan zaukun. Gehiago dena, ederki zakuan sartu gintuen bertzalde! Bereak entzun beldurroz, bi urte handiz etzaukun begietarat agertu. Gerortik jakina dugu beraz zer-nahi mehoteha aditirik jan zaukula hitza....

Balio othe du aipatzea hautatu egun hartan delako gizonak eginarazi zaurkidan urhats debaldetan nere gurutzefika galdu nuela? Hiruzpalau solbrisik atebeman zuten ur hegian. Erakiten hunkitu behar zuten ala ez. Dainan los zenbutein viabazteko holako padara nola utzi? Eriki puntuz hartu zuten beraz, berehala abar batean dilendian eman, eta lasterka misionestegirat ethorri, nahi baginuen erranen zaukutela nux zen gurutzefika. Gurutzefikarrik etzitateke ez sol ez erosi gub erranik, aras lotsatu eta gogoetatu ziren zer othe zen beraz eta othortzean hasi zaurkun, nihori makhurrik gertatu gabe, geronek altcha ginezan lehenbailehen!

Berituz ethorri zaurkun, bada, handik laster gure irrisa saltzuteak. Ehen aldian ez bantziren gaizki heldu gurekin, aldi hontan erdi-aur onkantu zaukutan heyon, herrirainoko bat egin ginezan ondoko egunetan. Aita (bubad)

eta Do Joan zitzaizkoten eta ahoaren bethako espantuskia,  
itzuli zaurkua etcherat.

— « Ni eta ai! Baiman errazue jaun aphezpekuak ustoa  
duen zelhaia hura ateheman duguen? »

— « Ez dugu arraz jinkatzon ahal bairtz, baiman bide  
onean garela uste dugu kaatik!... »  
Ez da meneko choria aratzerat utzi behar. Derchala  
etche bat erosi ginuen beraz Pohai derizan herri tipito  
balean, Robangetik aski hurbil. Dortz, libera galdetu  
zaurkua jabeak eta, bere dirua eskuratu orduko, lekukak  
hustu zituen, etche berri baten urrunago egiteko. Dihara-  
munean terean Do Pohaiarat igorria gintuen bertze  
zenbeitekin, Erochago Joan ginen geroni.

Echenbaieken baterrak ezagutu nahi gintuen. Nahi  
eta behar. Abiatu ginen beraz ur hegi, norbeitik  
utzi nahi ez bagintuen, urez joanen ginela. Ababainan  
ura ez da nikorena, eta ororena da. Jateko harturik,  
Aita Combes, Do eta ni Pohaietik urrundua ginen, gordoka  
bezala. Horia nun gizon bat atchematen dugun ora bat  
gabe, ur hegian. Nor ginen erran ginon lañoki. Hura,  
alde herrukka batetaki buruzagia zen. Dere etchean  
atkerbe bat eskaini zaurkua bihotz handiz. Tobau zuen  
herriak izena. Louak abiatu ginen harat. Harabehago  
bidearen erdian baxa-gathu bat bere umearren agorturik  
ez dakit gu lauetarik joan lotsatu zen gehiena! Nik  
ez dut bethi ukatuko izerdi hotz bat abiatu zautala  
kopeta behera eta, zer gerta ere, zuhaitz handi bati hur-  
buldu nintzela lasterko! Baiman baxa-gathua bere  
bidean joan zen ichtil-ichila eta prestu prestua...

Baxa-gathua sasian gorde zaurkua, bertze zerbait  
begiak zabalarazi zaurkua ederki: turdinazko gizon  
handi batek. Aras poliki moldatua zen eta zuhaitz  
berri baten erdian ezarria. Etxant iduritzen salbarrak  
egina dela. Ez othe da beraz hemen gaundi Banharrez  
bertzerik ibli?

Gure gidariak Feunk zuela izena jada erran othe  
dautzuet? Dena dela, sekulako begitartek ona eta  
ongi-ethoni ederra egin zaurkua bere etchean. Dihara-  
mun arte nahi gintuen atchiki. Onhartu ginon gogo  
onez egotea. Joley-Krongeraino berak segitu gintuen,  
askal ondoan. Herri hau Bla eta Po-ko bi ibaiak elgar  
ateheman duten tokian egina da. Ur berdintsu da  
batean eta bertzean, baiman batetaratu ondoan iduri  
dute zerbeit badirela. Ere muak eta eremuak badituzte  
oraino iragaiteko Mekong derizan ibai famatuan, eta  
guzi itsasoa, galdu arte. Kongaoko zelhaia ez doa  
Joley-Krong baino haratago.

Uruinago joateko Chedea ginuen. Hala Joan ziren  
Aita Combes eta Do. Ez nitzaizkoten jarrauki, Sukharrek  
berri harturik. Jai, Feunk anaiaren etchean gelditu  
nintzen.

Huna bada zer gertatu zitzaion ondoko gauan. Ni horik ez  
da ahaztu behar, are gutiago misio est batek, deus eta  
deus ez dela Jainkoaren laguntza gabe. Suparterrean  
nindagon, etzana, nere saskia aldean. Begiak betriak

nauskalakotz, aldeko jauntoek uste izan zuten lo  
nindagola, eta nere saskia berehala iphurduz, gora  
eman zautaten. Bainan barnekoetarik deusik  
etzizaiten gustatu eta ohoinetarik zaharrena  
ederki aditu nuen: «Ez du balio hoin gutirentzat  
kali dezagun! Bertalde nor daki chuchen nor don  
eta zer lotzere duen!» Batsa aisechago hartu nuela  
handik goiti sunheltuko ote duzue? Argia oihantzik  
agertu zenean, ez nuen hezur luzezik egin etche  
hartan. Bidean deus etzizautan gertatu.

Gerotik gure gortuz ikasia dugu zer zende den to-Bruon,  
ahal denda! Lana baino maiteago du ohointza! Bertze  
orduz Pomulus famatu haren herririk bezala, orai  
to-Pauerat bilgon dire zazpi eskualdetako gizon nahay,  
erdeas eta ohoin guziak... Bainan, jauntoak ez  
baitote tzareri bizia ematen eta uzten onen onarentzat  
bitzik, ahortu behar dugu to-Pauko jendeak ongi  
frango egin daukegula beraz. Egin daukegula, eta egin  
daukula segurki, guziz oraino gurekin nehorik guratzatu  
nahi etzuen dembora hartan! Doidoria aphaltua  
dautzuegu Junch: ez duzue beraz aharantzia nor den.  
Bada, Junch eta dok adichkidantzak egin zituzten egun  
batez, bertze batez do eta kiemek bezala. Ez gintuen  
segurki adichkiterat utziko, Junch nor eta zer zer  
ezazki jakin baginu! Ez da gutiago egia adichkidantza  
horri ete ederki baliate zaukula. Bi, zer beso tuzak  
dituen jauntoak!

Bi baino egun bat berantago itzuli zen Dohierat  
Aita Combes, bainan zer-nahi ikusi eta ikasirik. Rongron  
gaindi, laster itzuli ginen beraz lekku beretarat, hango  
jendeak oraino hobeki eragutzeko.

«Dahnarrak» deitzen baditugu hango gaindiko  
jende mota guziak, zuzen kontra egiten dugu: eskual-  
deka badute bertze izenik. Iphar aldekoak bederen  
«Sedangesak» deitue behar dire. Ferruntean hank  
haua Larrichago dire Dahnarrak baino. Hainitz  
ozarrago dire eta mila aldez mihi zikhinagoa dute.  
Teras langileak dire haatik. Eugintzako laner bertalde,  
zer-nahitako esku ona dute. Sedangesak egiten  
diotzate bertze salbueri beren laneko tresnak bai eta  
ihizi eta gerlakoak. Burdina, oihalak eta galze,  
horra eskualde hautako hirur hizipideak. Sedangesak  
burdinean ari dire: Rongotarrak oihaletan: Dahnar-  
rak gatz tratuan, Annameko aldekoak bereriki.  
Dembora batez Jaraitarrak zirelako bertze salbai batzu  
baziren beherachago: Madrongarren beldurrez,  
norapait joanak dire apaldi.

Berri eta chehetasun hank guziak Nere Jaun Lue-  
noti helarazi giniozkalarik, bakhotchari zure chokoa  
eman zaukun. Aita Fontaine joan zitzaunkuz beraz Jarai-  
tarrekin bizitzerat: Aita Combes Dahnarrekin gelditue zer.  
Sedangesak neretzat ziren. Jaun apherpikuak betki  
bazuen bere gibel-armua: apherzagi baten nunbeit egiteko.  
Horra zertakotz igorri zituen beraz Aita Desgouts eta do Ron-  
gotarren erdirat. Apherpikuaren manuskriptuak jauntoarenak

dire apezarentzat. Pakhotchak lorutan hartu zuen beraz bere bidea... edo hobeki bide horren hartuko chedex...

Bainan bita Fontaine eta ni nola hel gure tokietarat, eta guziz, nun koka, karat heldu ondoan? Eta hainbertzenarekin horra nun atherat heldu zaukun Kontrangeko etcheko jaun handienetarik bat. Kontrang korriska gothor bat da, Sedangesen eskualdean. Sedangesen mintzara beka duta Kontrangen. Ez dautzuet haatik errana Sedangetik eta Jaraitarrek bi mintzaira dituztela, eta mintzaira horietarik batek eta bertzeak ez dutela banharrarekin Berkoitzeko Estkuararekin baino ahaidetasun gehiago. Gure gizonak Panang zuen izena. Nola frangotan bere egitekoentzat Eastarrek gurutzatzen baitre Kontrangekoak, gure begitarteak etzituera bertze salbaiak beren bat harrituko eta lotzatuko eginik, Parang: tipust-tapast galdetu nion eia nahiko ninduen, saritan, bere herriaino segitu. Baietz segurki, eta bi egun nere beka egon zen. Katichimaren egiteko, Anamita bat nerekin hartu nuen. Aita Combes ere jarraiki zitzaunkun, nun eta nola kokatzen ginen ikusteko, gure turuzagi bezala jaun apezpikuari lehenbailehen berrien helarazteko. D. haramunear berean itzuli zen haatik bere etcherat.

Aita Fontainek eluen zenbeit egun buruan baizik Jarauko bidea hartu. Joly-Chunen hautatu zuen bere egoitza.

Gisa hortan salbaietako elizadi berriak hedadura pollita bazuen: Koxametik Kontrangerat, Kontrangelik Joly-Churat, Pohai erdian. Bita Fontaine eta ni egun baten bidean ginen Pohaietik: Aita Combes gu baino hainitz hurbilake.

Geochago, indarrak itzuli ondoan, hameka eta hameka aldiiz goizean abiatu naiz, etchetik... eta lo egi Kochamen!

## Hamargarren Kapituluia.

Ehen urthea Sedangesekin.

1852 garren urthean Joan nintzen Kontrangerat, eta erran dut nola jarraiki zautan haradaino Aita Combes. Adichkide maite horrek bere etcheko bidia hartu zuenarik, ihundura bazen bat eta ezin erramerko lotsa sartu zaut- kidan gorshutz gurzian. Alabainan salbain ordian bakharrrik gelaizya, hezen mintzairatik hutz bat jakin gabe, ez othe da lotsagarri? Panharren mintzaira ez nakiem segurki errotik ordaino, bainan bederen nere burua nolazpeit adiarazten ahal nuen. Kontrangen aldiz! Hana haste nuen beraz, egundaino bezala.

Salbai baten etchedan egin nuen nere egoizya. Ishal den egoizya, haatik. Jada berrogorta hamanbat burizyak bezen etche hartan, gizon, emazte eta haur. Erran gabe doa, oro nahas. mahas bizi zirela, gela jan-toki eta jan-tokia dukalke. Bango oihu eta kalapitekin, nere othortzak ez netzazken egin. Nola bizi kalako tokian? Egunez egun urthea zuen, Aita Des. Jouts onarekin bidetan heldu ginelarrik, zangoan minhartu bururatzeko gairki hasi behar zela. Bertze urthea ere gairki hasten nuela erran ditake. Gurutzte hau nola jasan bakharruk? Bainan, ez; ez nintzen bakharrrik! Eta benedikatua izan bedi segurki, berik kalitza ondordaino huste ondoan, kalitza eskaintzen dion dokakabeari kambertze ezitatasun aldean ematen dion Jainko guziz Ona!

Nere chokoran etzana nundagon jada, gaua bezen ilhun, nere bihotzmin handia Jainkoari eskainirik, arrats hartan. Kambertzenarekin korra nun salbaiak berroan sartzen diren etchedan. Bainan zer da hau? Sarta bezen laster, oro berritz kamporat joan ziren. Iduritu zitzauntan nigarrez ari zirela. Panharrez emazte bati berehala galdetu nion zer zuten nigar egiteko. Gut edo aski bazakien bankarra eta ikardetsi zautan eia ez nintzen ohartu oro choko berean izate zirela: choko hartan bazela ari bat hiltzen ari zena. Ohututu nintzen, hori aditu orduko, eta ni ere chokorat hurbildu. Ordaino buharre- tako haur gairko bat zoen hiltzerat. Ur chorta bat karturik pegarrietik, berehala bathaiatu nuen bitaren eta semearen eta Izperitu laundaren izenean. Haurrak etzen naski bertzerik igurikatzen: bathaiatu orduko, azken kalsa emanik hila zen! Or joan gogotek egin nion aingeru tpsi hari oihu: «Haa, haa laster zeru gobernerat, han neretrat othortz egiteko!» Berritz, nere chokorat itzuli mintzalarik, Aita Combes eta oro ahartziak

nituen eta atseginezko nigarrak heldu zaurkidan begietan  
arima bat salbaturik. Batzarri da ororen urtea: latzarri  
aitate eta amate, anai-arrebak azken aldirik besarka-  
turik desterrurat joatea, bainan gero zen sariak eman  
dioran Jainkoak, horiek egirik, sunhetearen hedatzerat  
doazineri! Brima baten salbatzea!

Irrisak huts egina zuen urte hartan Kontrangen. Jendea  
lotsa litake Frantziar ogiak hola huts egin baloza. Ez da  
batere lotsatzen salbaia. Sandak eman ez dion jatekoa  
oihanak emanen dola badaki. Urhaneko aiken eta lan-  
dare tipik zenbeiten erroak dena irin dire. Eur-sagarriaren  
sauria balukete Kasik. Betarik biziko da beraz, hemengo  
penea, nahiz, egia errateko, delako erroak beren irin  
guziaren gatik ez diren ahotik egin utziak eta ahulen  
azkartzeke eginak! Kontrangen etzen beraz, iririk. Hara-  
tchagoko<sup>hara</sup> balcan, hala-hala, zer-nahi laguten heldua: Hamon-  
gen. Harat joaten nintzen nere doiaren erosterat. Jada  
ehoa hartzen nuen, gero harekin, jan truk, Kontrangeko  
ateko chakar bati nere bazkari-afarien eginarazteko.  
Gaieko atchoak etzuen bizitzekorik eta indarriak joantxoak  
zituen oihanean erroen ondotik abiatzeko. Ederki eroria  
zuen beraz. Bere semea bezala maitatu ninduen laster.  
Mintzaira ikasiko nueneko, hasi nitzaion Jainkoaz min-  
tzatzen eta gerochago girichtinotu nuen.

Ehen urtean ez nuen errateko lan handi-handirik  
egin: mintzariaren ikasten arizan nintzen gehienik. Goiz  
eta arratsetan, ihiztariak choria bezala, hitz batzu  
aurerat etchematen banuzkaten salbaireri, egun guzua  
hitz horiekin zerbeit moldatu beharrez ariko nintzen.  
Banharren mintzariaz jada erran dautzetama hemengoz  
berritz erran dezaket: libururik gabe ez direla aise ikasten  
mintzariak, hau bertzeak bezala. Nosamen bederen hiruzpala  
lagunen eta elgar lagunt ginezaken, elgar susta. Hemen  
bakharririk ari behar. Egunak oihanean iragaiten nituen  
ardura, harat eta humat, aski ilhun zenbeit aldir. Hhabe-  
tuan behin edo bigetan lagunen ikusterat joaten nintzen  
haatik. Bi, hoin laster iragaiten zaurkidan hango orenak!  
Telabavian gero leudik ez nuen Kontrangen, ez meza sein  
durik ez bertzerik! Nigar egin badut behin edo bertze, usta  
duzue Jainkoak ez dauzkidala nigar horiek barkatu? Egia  
erran behar dautzet haatik: behi nere nere nigarrak ez  
dutela sobera dembora irauin: handik edo hemendik  
bethi zerbeitet begiak chukatzten zaurkidan! Eta bertzalde  
banakien mina eta behotzema direla misionester legeak!  
Bikenekotz nere othoitelako liburua ez otho nuen bethi  
nerekin, pinpirin beltzen urruntzeko?

Ni nindagon etcheke nautak tam zuen izena. Homen  
gaindi gizon guti ikusi dut hoin buru onekorik. Bi seme  
bazituen: Ngam eta Ngui. Hemengo etcheetan ez da egitza  
bereririk ezkonduentzat baizik. Lam alharguna zen. Gureki,  
egiten zuen beraz lo harek ere eta arratiak elgarren aldean  
iragaiten gintuen, su handi baten ondoan, jada adichide  
handi, eta hura nuen hango mintzariaren irakaste hobe-  
rera. Behin baino gehiagotan, othoitzen erraten ari nintze-  
larik, beha eta beha zagola okarturik, Jainkoari nola



bat egirik, idortzen eta berotzen ari ziren gochoki, kuaia  
biribil bat egosten ari zitzaizoten demboran. Baxa-gaklu  
bat skuri zutela erran zautedan, bainan uak tobatarik  
ihesi joan zela. Goseak ez du tegerik: Kuidak eskaini  
zautedanearan pachi bat, gogotik hartu nioten eta jan!  
Egunari argitu gabe, berri<sup>arri</sup> bidarean gaineon ginon, bezperan  
bezen fresko eta alegora. Gutik egin zuen haatik ibaiari handi  
batean ez baizinen oro iho, zaiak eremamik! Hamar  
orenak bagintuen konbrangon sartzan. Soroztik trufu  
ederruk egiten diotek salbueri beren chorien kantuar!

Eri, eta eri handi oraino, egon nintzen hortarik lekora.  
Etsitu ninduten eta lauzpabork egunez! Samen etchean  
berrogoita hamarbat lagun baitzen, ez nuen chokorik nerrotat.  
ororen erdian behar nuen birzi. Egun batez, berrogoibat ibahi  
zaitienetik egin behar izatu nituen kampsorat, eta azkenear,  
flakoaren flakoaz, zabal-zabala lurrerat erori nintzen  
nunbeit! Hantek iragan nituen hogoita lau oren luze,  
sukharrarekin borroka, ur hortarik gabe! Eteherat ibuli  
nintzenean, orok hil bat heldu zitzaiztela ueste izan zuten.  
Zaterat eman nahi zautedon, eta ez nuen jaten ghal. Solatze  
ziren. Hilak bizieri agertzen direla sinhestea baitute, nola  
etxiztauten ni bezalako hil bat agertuko? Eta ni bezalako  
hil batek zer etxizten eginen? Nunbeit othoitz egin daut  
orduanteke gaichoek, othoi ez nadin gaichtegi izan  
hil-eta! Baitoa doidea hartzen, eta holako chorokeruak  
entzun behar! Bainan horiek baino gehiago orhoitzen  
ninduen orduanteke aphez baten laguntza gabi hiltzek!  
Bihotza jainkoari altahatu nion beraz, eta beren nahi sun-  
durat erori, arnas erori! Bainan jainkoa urrikaldu  
zitzautan ....

Misionest lagunek etzakiten eri nintzela. Bizkitartean,  
hola nere buruaz etsitu nuenean, horra nun arnatsaldu  
batez atxean agertzen zautan teta ombes. Bingeru  
begiralaak zabilkan. Ez duzue sinhesten ahal zer ate-  
gina egin zautan hare, bizar handiak atxe hartan!  
Eta egungo egunean ere ez rezake finka ez ninduela  
atsegin horrek sendatu. Nigarrez hasi zen etxana  
ikusit ninduelarik. Bainan nere begitarteko ateginak  
nigarriak chukatu jozkan berehala eta jainkoaren ganat  
ibuli zituen bere begi ederrak. « Bi, joan ona zaren  
haatik, dauki maita! » Bospabei egun hartan deus ez  
nuen janik: berehala untyi baten bethe ahi egin zautan  
eta jan arazi. Biharamunean ... chutik nintzen!

Liburu hau ez titake burura, jainke jaunaren  
ongiegin guryak erran behar banitu. Lontat eta zembat  
aldiz ez hau hola-hola lagundu, salbata eta kontolatu!  
Oraino ichtorio bat, Kapululua bururatu gabe. Konbrangon  
edaten ginuen ura mundik heldu zitzaizkuen ikasirik,  
laradinoke bat egin behar nuela, goiz batez joan  
nintzen zanpa-zanpa. Ez nakiem salbaisik arte batzu  
barizuztela hedatuak, uraren sortzean, edaterat kaldu  
ziren orkatzen atchemaleko. Ez du lalio nolakoak  
diren arte horiek erratea. Sasi batzu bayiren uraren  
inguruan, han-hementa atxeka batzuekin. Betteka

horietan alambre mehe bat alde batetik bertzerat. Alambre hunkitu orduko, urrunchago zerbeitok Kanabera punta zorrotz bat jauzarazten zuen eta tiroa bezala atetikaren erdirat igortzen. Mirakuitu zen beraz alambre hunkitu zuen dokakabea ez bazen hil kotxa erortzen. Deuseri ohartu gabe ateka batetik sartu nintzen, bada, urari teka egon eta gibelat itzuli. Bainbertzenarekin gizon bat lasterka heldu zaut.

Delako buruzagia ondoko egun batez, Kiemi egiazpi ethorri zutzaion etcherat, baina, hurek oihanez oihan ibitarazirik, tehertua, soldado gehienak sukharrek harturik, lotatu zen... eta Ansonerat itzuli, aintzinean baine astoago!

Jbita Ombes zen irriskurik handiengan. Ez baitza kien guzien buruan zer gerta jakiteon, Kiemi apher- etchearen zain utzirik eta Koxamarreri bere phusta guziak fidaturik, Kontrangerat ethorri zutzaion ilhantz bidez. Elhabetz bat iragan zuen gurekin. Portze orde batez, zer atsegina izanen zen guretzat hirur misionestak etche berean kauritzea! Baina Kiemek igorri elke on guzien gatik, beldur ginen. Beldur eta lotsa oro garbaitu ondoren, gure tanaren buruzatzeke bezperan behaztopatzeak zake min egiten zautkun!

Porte bat egun ginuen Andredena Mariani, San Josepi eta San Frantses. Xabierakoari, kedoiak barradia ziten. Othortz frango ere egin ginuen, eta nola ez baita beharria bezalakorik othortz ongi egiteko, usta dut gure othortzek inder bazutala! Bhanitzia dut segurki zer othortz egiten ginuen, ahantzia ere botuak zenbat dem-bora, irauan behar zuen: huntar, orhoit nauz, sakharrik, egunean ez ginezakela sakhotchak hirur pipa baino gehiago ere! Eta ez othoi erran deusik ez dela kori edo deus guti dela bederen! Salbaetan dagonak barnean badu pipatzeko errabia eta behar bat. Ez ditake hemen egon pipatu gabe. Dena dela, piparen bethetzeko me-mentoa heldu zaukularik, nola kasten ginitzaioren saka eta saka, saka oraino eta saka oraino, gehichago iraunarazteko! Kenbat aldi ez dauku Jbita Ombesek erran... zuzen kontra ari ginela!

Jensonoko buruzagi gaichte karen mandatariak gerortik ere abiatu dire zuri buruz. Daitzpada nahi guntuzten atcherman. Jchin Konporiko herriraino heldu

giren. Handik Kocamerat egun bat askiko zuten... bidea jakitearekin. Konjoritarrak orras adiskideak baizintuen, nikork etzitzen gidatu nahi izan. Ber diren haatik Jainkoaren chedeak! Uste bat tekemago, baten orde berriagoi gidari atchemanen zituzten kan gairdi gure Kontia eta galduak gintazken, lana hasi gabe. Jainkoak bildotchari libaren draberako haizese igortzen dio egundainotik, eta guri ere aise jasaten ahal ginuen gurutzetik baizik ez dauku igorri hastean! Ezkartzagotu eta pituagoak igorri dauku. Baiman zer frogatzen du horrak? Debuak ez duela beraz nahi duena eziten....

Erangoko, Ansonako eta Peneko gure etcheak lurrean, giren: ez ginuen beraz Annamen gehiago egotzarik. Salbaitarar hartzeko edo salbaitaruk Cochinchinarat joetako, etzen gehiago egun argiz ibiltzerik. Niem gauzoak ongi lagundu gaitu orduantche! Anamitek etzieten hurbilegitik behatzen bere elefantekin zabilgkan kargeri... beharrik guretzat!

Gerochago oro antolatatu giren haatik. Ansonen gure mandatariak ezagutzen zituzten tegurki, ... baiman zer balio zuen tek preso altchazese, gu ezyn atchemanak baginen ordain? Peciak kusten zituzten beraz aintzindari etsaiek. Etzuten kontze egitekorik.....

## Hamazazpigarren Kapitulua.

Girichtino berriak Kocamen. — Egun gaichtoak.

✦ Bathaiko egunean Hemurrek bere jainko faltsoak ukatu zituenean, herritarrek uste zian zuten harenak egin zuela. Oro etziren gehiago mintzo haren heriotzeaz baizik. Baina egunak, asteak eta ilhabeak larzoaz eta Hemurrek behinere baino osasun ederragoa zuen. Gehiago dena, girichtino berriak paganoeri egiten etzuten trufarik etzen bere jainko faltsoekin gabilzkaten chimenokereentzat, eta korrengatik haren irrisa zen eskualde gurjiko ederrera.

Egunetik egunerat harrituago ziren Kocamarrek jainkoek Hemuri nola etzuten hilarazten, eta emeki-emeki beren bantari egin zuten zenbeitak menturaz jainko horiak etzirela hainbertzek uste zuten beren botkeretsu eta az-karrak. Azkenekozi begiak arras ideki zituzten bakhar batzuek. Hemurri jarraiki zituzten lehen bostzen izenak, huna: Jieng, Hemon, Lot, Joi eta Keloi.

Hemurren emaztea zen Jieng. Bada Jieng hau «bo-jasu» zen, erran nahi baita «sorgintza». Ez da hemen gandi sorgintzak baino traba handiagoak sinhestaren hedatzaileentzat, ezen salbaiek sinhesta gogorra dute sorgintzetan. Plabainan uste dute sorgintzak badakitela bertsek ez dakiten zer-nahi. Sorgintzak geroa eragutzen du; sorgintzak erraten ahal du zenbat dembora bixiko den norbeit, nola hilen den. Eta kolako zer-nahi! Norbeit eri dadiela, sorgintzak erranen dio nundik heldu zain gaitza, zer egin behar duen sendatzyeko. Ezen sorgintza bakhotchak badu bere «grou» edo debrua, eta hurek diozka oro erraten edo gogoratzen.

Ez da sorgintza horiek egiten ez duten gaizkirik. Hil dadiela norbeit, berehala sorgintzaren ganat doazi nori hilarazi duen jakiteko, eta bi begiak hetsirik bere jainko faltsoekin mila chorokeria egin ondoren, lurduzatu gabe sorgintzak hilarazten hautatuko du justu duen tokian. Behinere ez du haratik aberats eta botkeretuetan hautatuko, baina bai deus egin ez dezaketetan, ahaidarik ez duten alharguntza edo neskatcha gaicho batzuetan. Eta nola hurek hautatu alharguntza edo neskatcha azkengan tonamileri salduko baita, politenetarik hartuko du, egin dezan diru. Neskatcha bai gorjean jeikiko da urria sagi-tartean eta, hobenaren itzalik gabe, arratsean etzanean nurbuitko presondegian, esklabo joateko biharamunean. Sorgintzak hala nahi du! Eta ez da hori norjean behin gortetzen dena bakharrik, baina egun gurji-gurjiez! Bertzerik ere.

egiten dute sorgintsek, bainan ez delazket oro urrun hemen  
Lembora faltaz.

Bise sinhetuko duzue orai Jaunkoa urrun eta urrun Joan  
zela beraz. Hemurren emaztearen bilha eta segurki  
grazia handia egin ziola sorgintea dokakabe horri.  
Aras ukho egin zion, bada, sorgingorri; debrua biko-  
tzaren errotik arnegaturik, lepotik ditindan yabulka  
sorgin-seinalea harritzkoa besunka han-harat igorri  
zuen. Gehiago dena, salbauri aithortu zuten yabal  
yabala deusik etzakela hek baino gehiago eta edertki  
yakuan sortu zituela bere chiminokeriekin. Maria  
eman ginion izena bathaioan eta izen eder horri ohore  
egiten dio geroztik.

Egun berlan bathaiatu ginuen Hemon, Hemurren arre-  
ta. Egiazki eta egiazki erran ditake anaiaurron arrebea  
yela segurki: hura bezen ona, hura bezen zuzena, hura  
bez en maitagarrria. Hura baino erxiago, kaatik. Sorginen  
sinhestea kezurretan barna sortua zuen, eta Hemurrek  
bere bathaioke egunean harritzko jainko gerizatzaile hek  
gurziak urerat igorri zituelarik, nigar egin zuen gochoki  
arrebak. Pathais ondian, misionestek ez dute ukhan asel  
kide hoberrik Hemon baino. Bethargintza zen; aski gaztea  
eta, hemengoaz yateko, aski polluta. Ezkontzer zen bathaiatu  
aintzintchean. Bertze begi batez kusten zituen ora,  
bathaiatu eta. Madalena bak bezala, zerbeit kobeagorik  
gutziatu zuen eta botu egin etzela berritz ezkonduko.  
Tonna eman ginion izena bathaioan. Beta Combes arras  
elhaire baitzuen, huna zer erran zion bekin: «Beta, ez  
dakit bertzeak ni bezala diren, bainan girichtinotuz  
geroztik, nun-nahi izan nadien, Jainkoa bethi gogoan  
dut eta ez dut zorionik Hura gogoan baizik!» Hama  
urthe baino gehiagor ni horik ez diote gure girichtino berriari  
etsenplu ederragorik eman eta sainduek bezen heriotze  
ederra egin zuen gero. Uste dut bathaioke egunean bezen  
garbi Joan dela jainkoaren aintzinerat.

Seme bat bazuen, tot. Amarekin batean bathaiatu ginuen.  
Hamazazpi urthe zituen. Ezkondua da geroztik eta hirur  
haur baditu. Aras girichtino ona da.

Poi bathaioan Ein deitru ginuen. Hemen aiphatzea merazi  
du. Nor ez da orhoit gau batez Kozamarrek Helen gintuz-  
tela, Hemurrek salbaturik ez lagintu? Dada, Poi zen orduan  
gure etsearen buru. Jainkoak otso hori ere bildostu zuen  
arkenean eta orai orduko etseia da gure adichtadurik  
hoberena. Poi bezalako gizonak deusik ez dute erdizka  
egiten; arras tzarrak die edo arras onki. Bathaiatu  
aintzinean jan nahi gintuen Poiek, gero etzen guretzat  
baizik ari lanean. Bere stuzietan zenbat haur ez du  
bathaiatu berak, hiltzerat, zoazila ikus eta! Haren  
kharra handiago zen oraino, handiak hiltzeke mensesen  
ikusten zituelarik. Behin neronek ikusi dut hiltzerat  
zoakion ahaide baten ondian. Ehen ere hainiz eta hai-  
niz, othortu egina zen. Bainan debaldetan. Dokakabea  
bathaiarik gabe Joan behar zela beldurturik, apheza  
bezala mintzatu zitzaion. Bildu zuen arkenean eta lasterka  
ethorri zitzaion bilha. Jarraki nitzaion berehala.

Ondokotz, eriak elkea galdu zuen artean! Poi gairioaren  
marraskak! Etchea jendez battea zen: orhuka hari zitzaie-  
sten orori. « Hori dohakabea! Ez nau sinketsi, galtzerat  
joala erran diotalarik! Orai zertan da? Hfernuerat  
erortzeko eta han erretzeko bezperan! Huk bederen, kolako  
zorrigaitza begien aintzinean ikusi-eta, ez othe nauque  
inhetuko? Ez othe zaritz egiazko Jainkoaren ganat  
itzuliko? Ezen zorrigaitz zuen ere begiak hesten badi-  
tuzue! »

Hain saminko mintzo zen Poi nun oro lotsatuak baitzen-  
den hari eta erriari beha. Derebataratu zen halere era  
eta emeki-emeki sendatu. Bere haurrekin katechiman  
ibiltirik, bathaiatua da zerortik.

Poi (edo Lin, nahi duzuen bezala, gazterik hil zen eta galtze  
handia izan da guretzat haren heriotza. Bainan  
zerukotz, onthua zen! Jaunkoa izan bedi benedikatuia ....

Girichtino berrietan bortzgarrenak Heloi zuen  
izena. Hogoit urtetaratu joan. Adinarentzat akul eta  
mendreckkoa zen muthil gazte bat! Mair, eri baren,  
ordainez zpiritu eta bihotzeko dohanak gehienak berzi-  
tuen. Hala (ombetak, zuk baino hobeki ezagutzen zuelakotz,  
itutuki maite zuen. Nola etzuen beraz bereziki artatuko  
holako landarea! Hala egin zuen. Bai-eta landarea ederki  
plegatu! Girichtino guti kusten da Heloi bezen laster  
aintzindatzen. Beronek fegatu dut. Beratsko othortza  
gora-gora egiten zuen Heloiek. Behin hurbildu nitzaion,  
hura batore oharitu gabe. Harritu nintzen muthiko gazteak,  
othortza bururatu-eta, jaunkoari erran zirkkan bere bihotzetzko  
elke ederrak aditzean. « Bi Jaunko Ona, zoin miresgarria  
zaren zure sainduetan! Ez deus batzuetarik egiten ditutzu oro!  
Beronek zerbeit balinbadakit, beronek orai zerbeit balio balin-  
badut, zuk egin nauzula, zuk kolakatu nauzula aihortu behar  
dut! Bere bat bezala biziko nintzena, zuk argitu nauzu, zuk  
zerubtako argi eta jakitateaz gainditu, zuk frango atsegina  
bethe! Sorra eta ohore, Jauna, menderen mendetan! »

Heloi etzen aski azkarrak kampo-lanetako. Bortzalde  
haren burhasreki esku-gain puchka bat bazuten. Hala Combe  
sekin egoterat ethorri zen beraz, bathaiatu-eta. Misionista  
ederki laguntzen zuen, katechima egiten eta jaunorakoekin,  
bainan erran ditake haren elkei baino orgi gehiago egiten  
zutela etsenpluek. Zenbeit urte irauin zuen bere osasun  
teharrazen gatik. Min goizte batek zer-nahi ikusarazi  
zion azkenerat. Nik lagundu nuen azken egunetan. Ez  
ditake erran zer heriotze ederra egin zuen. Hala Combe  
ere pada hila baitzen, haren aldean ehortzarazi nuen,  
holako bi adichkide heriotzeak berak etzituela berechi  
behar iduriturik.

Urte hartan eta ondokoan hogoit lagun ibili  
ziren katechimaren ikasten: gutiz gehienak Poi eta Heloien  
adichkideak ziren. Bathaiatu gintuan oro, bainan hemen  
bakotcharen aipatzeko tokirik ez dut, ondokotz!

Erran gabe doa girichtino berri horiek bazutela  
irri-egile eta trufatzaile. Ezkerria frango ere egiten zioten  
segurki paganoek. Egia hau da haatik banharriak ez direla  
bere ptez gaichtakeriari emanak, eta hola ari baziren dehuak

jabirikala. Munduan ez da eskualderik bakotzekak nahi duena aiseago egin dezakenik, nikork behinere eta behinere deusik erran gabe. Behin edo bertze hango oitura guzian kontra doanari norberik menturaz, erranen dio ez ote doan errebelatzerat, bainan bertzerik ez. Bakotzekak nahi duena egin dezala, nikori kalterik egiten ez dion ber!

Horra zertako, burhasoek eta pendekiak gaichtakeriak egiten zozkatenean, etjeren guti harritzen gure griek. Tino berriak, eta huna zer erraten zaukuten: « her da hau? Bertze guziak bezala lanean ari kampoetan, nikori den gutieneko gauzkerik ez egiten, orori begitarte ona egiten, eta trufaka ari zaurku? Gaichtakeriak egiten dauzkute? Othoitz berri batzu egiten baditugu, behingo chiminokeria gozoak utzi baditugu, noik zer behar du? »

Jure jirichtinoak yinez kechate ziren azkenean eta, oro utzirik, herri berri baten egiterat joanen zirela norapait gogoan iragan zuten, bakea ez bazioten uzten! Bita Embesi zer zion chede kortax galdute zioten haatik. Juri egin zioten aitak: « Dohakabe koriek hemen bakharririk utzi nahi dituzte? Korien ondotik nabila, ni ez othoi ahantz! Guzien buruan egin jasanik egun othe dautzue ordaino? Koba da beraz hemen berean egoz zaituzten, zuen bihotz onak orori jabalduz. Emeki-emeki gogorrenak unketuko dituzte kola eta nere ganat ekharriko! Eta alduz hemendik urrunduz, zer ongi eginen dautzue? Noik bilduko duzkit? Jal litazke eta jaunkoaren arthaklea sekulan ez litake emenda .... »

Etjuten segurki aise sinhetzi hita Embesi: goroztik ere kopeta zimurtu zioten frangotan: azkenean erori ziren haatik haren erranerat eta urruntzea burutik utzi. Dolute othe zaiote goroztik? Ez, ezen beñhi emendatur joan dire gurechitinoak. Orduko trufatzairetarik frango bada bathaaturik egungo egunean.

## Memozortzigarren Kapituluia

Oraino  
benbeit girichtino berri Konbrangen ~~Vegun~~ guchtoak.

1854 garren withean Josepen lagun tipiak noiz-nahi etchean nituen. Eram gabe doa katichima irakusten ari nitziotela arte guzietan. Housirik askitsu bayakitela eta deusek etzituela gehiago lotatzeko lau bathaiatu nituen egun bator. Hola sei girichtino banituen Konbrangen. Kozameko girichtinoek « N. D. de la Delivrance » zuten gerizatzaile; Konbrangekoeri « Ama Pekatuak Gabekoa » hautatu nituen.

Withearen ondarrerat herri guxia bkoz aldaratu zen. Hango jendea ez bada arras buhamiak bezala harat eta kunat ibilki denetarik, ez da ere bethi toki berean egoten. Noizetik noizerat tokuz aldaratzea maite du, estakuru guly. Etche bat erre dadiela herri batean, maizko ager dadiela eritasuna, etsaiek herriko norbeit preso ereman dezatela, herrietarrak lotsatuko dire eta, hango jaunkoak ez dituztela gehiago alde, beraz norapeit joko dute berehala. Sorgintzak hitz bat erratea aski du holakoetan. Toki berria ere harek kantatzien<sup>du</sup> bere jaunkoekin mila chiminokeria ibili ondoan. Sorgintza ez ditake sorgintza ez balote orori hitzmaten toki berrian hiri ona ukharen dutela eta luze hiziako! Eta korrengatik toki berri hortarik ere laster aldaratu behar bada, nikor ez da menturatuko sorgintzari erraterat gexute bat bairik ez dela!

Konbrangetarriak hirur anuwiki edo kilometra urru. nago joan ziren. Pongatetik kurbittchago ziren hola. Etcholak egin arte, lo kampan egiten zuten. Nola ez bainuen hirur langile bairik eskuko, ez nintaker ni has lanean. Salbaiekin hitzartu nintzen beraz, behin Konbrangeko etchean egonen nintzela, orok berean etcholak egin arte: orduan lagunduko nindutela. Habeto bat egon nintzen beraz, bakharrik Konbrangen. Izandetan Josep ethortzen zitzauntan kaatik, meza sarinduko. Eta hitz dauzquet bazuela merezimendu, ezen hemen gaudi haurrik ez da oihanetan bakharrik aite menturatzen. Hain lotakorrak dire!

Izanda bator huts egin zautan. Hita arras eri, etzeyaken bakharrik utzi etchean. Bnaia zaharrenak lagundu zuten aitaren arthatzien. Ngam oraino paganor<sup>ez</sup> zen. Ez ditake asma zoin maite zuten elgar bi anaiek, Ngui bathaiatuz geroztik bereziki. Bethi kalapita zuten halera etchean,

Josepek Ngam bildu nahi egiatzko sinhestearen urha-  
tsetarat, Ngametik Josep lehengoetararik itzularazi behar!  
Bigeak aita sendatzea nahi zuten karatik. Josep othortzean  
ari zen goizetik arratserat, Ngam bere jainko faltsoan  
chemin berietan. Dotu bat ere egin zuen hunkak: aita sen-  
datzen bazitzaion, jainko horeri eskainiko zutela  
basa-idi, ahuntz, edo urde bat! Ez ditake jainkoeri es-  
kaintza handiagorik egin.

Josepek aldez jainkoari hitzeman zion astean hirur barur  
eginen zituela eta meza saindua entzumen, barur eginen  
zuen hirur egunetan.

Sam etxean kobekituz kalere. Josep et horri zitzaion  
beraz bilka, nek aita aise bilduko zuela eta bathaiatuko.  
Joan nintzen. Pulkarrak zituen hartuak lamak. Bere-  
hala odol-edaleak eman niozkan eta mina arindu. Send-  
zen yembeit egunen buruko. Sendatzen hasi orduko  
hitzeman zautan katichima ikasiko zuela ... eta hitza  
atchiki zuen.

Ngam ez ginuen aise bildu. Debuak etxuen nikhundik  
nahi gizon gazte suhar hori konberti zadin. Josepek  
bertz egin ahalak egiten zituen segurki, bainan Ngametik  
etxion amor eman nahi: « Ber erranen ditak orok ?  
Hi nausitu hitzautala ? » — « Ez nek ni nausituko, bai-  
nan jainkoa. »

Aknean erori zen Ngam: « pai grichtinotuke nauk,  
andia mailea. Aspaldi sinhesten kindutan, bainan  
ez nikan amor ematen akal! Egun eta egun berean  
joanen nauk aita Dourisbouren janat, argi nezan ! »

Ethorri zitzaion eta bathaiatu nuen, ... eta zoro-  
chago ikusiko durue zer grichtino ona egin duen segurki.  
Bathaioko egunean huna zer aithortu zauten: « Eri  
zinuelarik aita, debuari agintza batzu egin niozkan,  
bainan badakit Josepen othortzek sendatu zutela aita eta  
ez nere agintzek! Ez ditut beraz atchiki ez atchikako, nahi  
duenak nahi duena erranik ere: Jainkoak lagunduko  
nau kemendik goite ! » Aita semeak egun berean  
bathaiatu nituen. Aita Combek ber-berak egin zuen  
lamen aitatchigoa.

Urthe berean bertze kamarbat gazte bathaiatu nituen  
oraino. Kandituz zoakidan arthaldia: debuak kechatu  
zen. Eta amarru guziak taditu! Koxameko grichtino  
berueri bufak eginarazten bariozkatu guzi, Kontraz-  
lotsarazterat lchiatu zen, ette zoroenak kedatuz; goiz  
edo berant grichtino berriak gure esklabo izanen  
zirela; grichtinosen arimak jainkoari saltzen gintuela  
tratu hortarik behar ginuen dirua atteratzeko; grichtinok  
etxirela hauru ezkontzerat. Egun ezkont? katichima  
ikasten zabilzanetarik batak berehala ukho egin zauten  
hortako eta ez dut bospasei urtheren buruan barioz-  
kerat bildu. Egun sinhestia da zoroheria horiet eta hola-  
tuko bertze batzuek zer traba egin doten sinhestearen  
kedatzen ibili den misionest gaichoari!

Yembeit illabete lehentchago, jakin eregabe sek-  
lako mriskuak izatuak ginen. Buna nola jakindu nuen.

Rongaotar bat Kontrangerat ethorri zen beraz egun batzuz. Har-  
 rat eta hunat ibili ondoan, nere etxean sartu zen azkeneko  
 Onzi ethorri hobereana egirik eta etheko irrisa janarazirik,  
 hemen ohi den bezala, arno chorta bat eman nion eda-  
 terat. Eamek horuek oro ikusiak zituen bere etchetik. Aza-  
 tsean berean ikusterat ethorri zitzautean: «Ker begilarte  
 ona egin duzue Rongaotarrari?» — «Hala egiten dut  
 orori» — «Merezi ote zuen? Duela zenbeit dembera bada-  
 kizu zer erran dautan ehri horuek? Eia nahi dutan zure  
 etchearen arrotzen lagundu.... zu lehenik hil-eta? Hto  
 churuarenak eta beltcharenak erran niozkan eta zuru  
 muinetan barna sartu urrikari nuela lan horri lothuko  
 zena! Horra nor zinuuen etxean!» Dikaramuncan  
 argiko berritz etxean nuen lam: «Hto soberacko  
 mintzatu nintzen, Aita! Iriskua joana demaz geroz,  
 nikori etzozula deus bada kizulakorik irakusterat eman.  
 Neretzat samur litazke Rongaotar guziak, eta zuk etzi-  
 nezake deus irabaz!»

Bai, iriskua joana zen, debruak baino indar gehiago  
 baitu Jainkoak! Egun gaichtoen ikusterat ginoazin  
 haatik Kontrangen. Min egiten daut orhoitzeko  
 berak. Bainan Jainkoak behi badaki zer ari den....

Ordu arte Koxamen eta Kontrangen bardiñtu  
 joazin oro. Ez kan eta ez hemen etzen oraino kairitz  
 girichtino. Kienak haatik, hoberean-hoberenatarik. Pa-  
 ganoek berek etzaukuten gehiago hain begi tyarrez  
 behatzen eta iduri zuen laster uzta eder bat bitduko  
 ginuela. Jainkoak etzuen, hala nahi: Koxamek oraino  
 aintzinat egin bazuen, Kontrang kein ber-berean  
 egon zen. Kuna zertake. Haste hetan Koxamen etzen  
 hil ez girichtinorik ez katichiman yphiltzanetarik:  
 gehiago dena, Koxamen uzta ederrak izan zituzten eta  
 aintzineko gosetsearen ondotik asean eta behean birtzeka  
 selauruetan sartu zuten. Saibaientzat frogaz Jainkoak  
 gain-gainetik laguntzen zituela. Eta Kontrangen? Kan  
 aldiz hirur urtherik barnean zortzi girichtino garze hilik,  
 oro harritu eta lotsatu ziren! Lotzateko keriozkoak izate  
 ziren egiazte! Beha. Neskatcha<sup>bat</sup> sudurretik odol-hustu  
 zen ohar gabean: bertze bat suge tyar baten auskitik  
 pozoinatu: lau muthiko ezin-erazneko gaitz batek jo:  
 Joseph ahaide bat betbelako hertzetako min batek ere-  
 man; eta azkenik Joseph gaichoa buru-muinetako gaitz  
 erhautsi! Eta dembera hortan herriko pagano garze  
 guzietan bat bakharra ez eritu!

Nere zortzi girichtinoak sentimendu ederrenetan hil  
 ziren eta use guziak baditut zeruaren erdi-erdian  
 direla. Bainan debrua etzagon lo, eta kairitz pagano  
 dokakaberi badakizue zer sartu zioten buruan? Pa-  
 thoioak hilarazi zituela nere zortzi garzeak, .... bertze  
 guziak hilaraziko zituen bezala. Aise asmatzen dute-  
 tze ondorioak .... katichimaren ikasten abiatuak  
 nituen guziak gelditu zitzauzkitan bat bertzearey ondotik!  
 Pate edorki gasta zebraon haatik bere lana! Sinhestea  
 bazuen jada eta laster bathaiatzekoa zen. Lotsaturik,

urrundu zitzautean. Behin bidan atchamarik, bi  
 begien artean galdetu nion zer zituen posteta horiek.  
 «Hata, lotsa naiz katicimararik ibiltzako, pendek erraten  
 dutenaren gatik! Gerochago emendatzen, oroz icheltzen  
 direlarik eta zure ikasleak emendatzen, berretz itzu-  
 liko nitzaitez...» — «Gerochago! Gerochago!...» Eta badakit  
 gerochago biziko hauzen? » kartzari egun gabe betbetan  
 hila zen! Dohakabea...  
 ber bihotz minak witha hartan! Etxe ederra bururatuthe  
 orduko turrean! Debrua egundaino bezen nausi orotan!  
 Eta bihotz mina gehiago emendatzen zautan horiek oro  
 nere tekatuen gatik zirela! Koramen urta gero ta ederrag,  
 Kontrangen uztaiek batere! Hango apleza jainkoak  
 laguntzen, saindu bat zelakotz! Hemengoari begi zultzen  
 dlar, bere tekatuen gatik! Egundainoko Cain eta Abel,  
 ichtorioa! Nik ere othoitz egin banu kartsuki mendiaron  
 gainean, jainkoak ez othe zituen nere grichtino gai-  
 choak koramekoak bezen ongi zainduko? Ai, jainko  
 On eta Maitea, urrikal yakipit! Eta etzazu, nere ezdu-  
 tabunaren gatik, Jesu-Kristok berak erosi duen  
 artkaldea galtzerat utzi!...

# Memeretzigarren Kapituluua

Josepen eritasuna eta heriotzea.

Cheketasun batzu zor dauzkizuet Josep on eta maite haren heriotzeaz. Egia erraton dauzuet: Josep izan ez banu, ez dakit nola jataren nituen hainbortze eta hainbertze bihotzmin! Oren ilhun eta gaiehoetan harek azkaritu nau segurki kametka aldiz! « Jainko Ona, hūnek bederen maite zaitu egizki, eta ni nitzais lehenik mintzatu kutaz, nik erran diot lehenik zoin Ona zaren! » Behin uste izan nuen charran-pinak edo bertze holako gaitz batek ereman behar zaitala. Bere autaren etchean zagon oraino eta hango kalapitarekin etzuen onik. Bezkarrean hartirik nere etcherat ekharri nuen eta neronek arhatu. Eri eglia-gorik ez dut nere demboran ikusi: min guziak jaun-koari eskaintzen niozkan. Sendatu zen demboraren buruan, bainan begi bat galdurik, eta berritz itzuli zen bere etcherat. Irriwa horitzzen hasten den saiointone zen. Landan iragaiten dituzte orduko gauak salbaiek, basurde, orkatz eta gaineratekoen zain. Samek Josep igorri zuen bere landerat. Aste guzia han iragaiten zuen hauriak, bainan larunbatetan, urta jaunkoaren gomendia utzirik, bethi herrerat itzuliho zen, gaua jautsi orduko, igandex ez huts egiteko. Igande batez mezatik lekora landerat itzuli zen Josep, chuchen chuchena. Betlak hala manatua zion. Igande arratsalde hartan nik ere egiteko zerbeit banuen oihanear. Lamen landan gairdi joan nintzen. Josep ur hegian ikusirik, ichel-ichela hurbildu nitzaien.

— « Errak, Josep? Hola uruntzen dituk choriak irri-satik? »

Burua altchatu zuen eta nigar batzu ikusi niozkan begietan. « Ber duk nigar egiteko, haurra? » — « Baita, ez dakit ateginez ala zertaz ari naizen nigarrez: baina guzia xoriun handi batez bethea dut bethi! Nere othortzen artetik gogoan nabilkān gozjean nere bihotzerat jautsi dela Jainkoa. Hurra hain ona, ni bezalako doha-kabe baten ganat ethortzeak eginarazten daut nigar! Eta ez dakit nigar horiek jauzi zaurkidan Jainkoa hoīn ona delakotz, ala ni hoīn gaiehoen naizelakotz! Zuk erradazu hori, Aita? Nik baimo gehiago, milaka gehiago bada-kizu holako zeretan! »

barmatzen ahal duzue zer atsegin gozoa eman zauteadan  
 holako elheek! Har detsi non berehala: «Haurra, bethi  
 maitazak ongi Jainkoa, eta hira bethotza atchikak aski  
 garbi egun guzuz, Mahain Jaundurak kurbeltzeko, eta orduan  
 Jesusk berak irakurtzeko daik hira nigarnak zerutikakoak  
 direla. Berutikakoak,.... beraz atseginaz, koak, nahiz oraino  
 hira bekaturen gatik eginen ditukan! Munduko atseginak  
 bere othotz artetan, Josep...» — «Egun guzuz egiten dut:  
 etzautut ahanzlen ahal, Aita! Ez, othe dautazu zuk eman  
 bethotzeko zoriön guzia? Duela zenbeit egun ibitia dut  
 doidoia gogoan zer eginen nukan. Frantziatik ez bali-  
 zautzu gehiago heldu...» — «Ezer eginen nuke?» —  
 «Ezer eginen nukan? Ori, bigen lana. Digentzat aski  
 handi litakon landa bat neronek erabiliko nuke!», tira-  
 balde hura laster joan zitzauntan segurki holako elheetan.  
 Aritseko othotza erratean, oraino eta oraino nere haur  
 gaichoa heldu zitzauntan gogorat. Bai, egiazki Jainkoa ona  
 da, eta misionestari minarekin batean badaki ez bibe-  
 koaren natsiki egortzen!

Josepen charranpinatik sendotzeak atsegin handia  
 egina zautan. Ondikotz, etzautan uraun atseginak:  
 haurra bi egunik barnean hil zitzauntan handik las-  
 ter. Etcheke teiltatuaren erreberitzen buru-has arizantik,  
 eguzki kolpe batek atcheman zuen. Sakramendu guzrak  
 hartu zituen, bainan ez dakit ezagutzarik bazuen. De-  
 harrik bizpahiru egun lehenago Mahain Jaundurak kurb-  
 bildua baitzen kartsutasun handienarekin! Nere beso-  
 etan hil zen, bathaioke egunean emana non gurutzefika  
 pollet bat eskuan eta hari musuka. Norberlek memento  
 batez hari gurutzefika horren khentzerat bezala egink  
 oraino gehiago tinkatu zuen Josepek eta orpu bat egin. Eza-  
 gutra zerbeit bazukeen beraz oraino.

Bethorteko othe dautzuet haur gaichoak bethikotz begiak  
 hetsi zituelarik, nigarrez hasi nintzela gochoki? Hasi eta  
 luzer arizan! Nere haurra zen, alabainan. Eta nolako  
 haurra! Minaren minarekin, hilari oihuka ari ni-  
 tzarion: «Josep gaicho-gaichoa zoriönaren bilha joan  
 haiz jaunkoaren alderat, hi, eta ni hemen nauk oraino  
 bethotzin eta nigarren erdian! Dudarik gabe, ez nauk  
 aski garbi zerurat ariatzeko hi bezala! Bi, ez nezakala  
 ahasitzi zeru eder hortan! Eskergabetasuna ez duk haizu  
 zeruan! Bainan bazakiat hi ez haiz eskergabe izanen.  
 Jada lurrean ez khentzen hala!»

Neronek garbitu nuen gorputza: soineko hoterenak  
 eman niozkan eta orphen miñu bat kopetan pausatue.  
 Neri beha zauden oro, begiak zabalik. Pati aditu  
 niozkan juduaren elheak: «Beha zoin maita zuen!»  
 Hainitz nigar egin zuen lamek ere, bainan anaiak ukhan  
 zuen halbre bethotzinik handiena. Badakizue bi anaiak  
 zoin atchikak ziren elgarri! Ngam girichtinotuz gerortik  
 erran ditake atchikimendu horrek etzuela mugarik.  
 Hemengo salbaietan ohikuntza hau bada:  
 etcheke norbeit hiltzen delarik, orok behar dute beren

burua ederki zapatu. Gazteek guzuz ez dute neurririk  
 hasten direlarik: beren buruari kanibet ukaldika  
 ariko dire, jitar bati buruarekin kaskaka, hilari  
 beren atchikimendua frogatzeko. Oro beldur ziren  
 Josepen anaiak bere burua phorroka zezan. Hau  
 zeren beldur ziren oharirik, hilaren aintzinean  
 oihuka hasi zitzaionen. Ez dituzte ongi ezagu-  
 tzen girichtinoak. Nik ez dut uste duzen chade-  
 rik. Gizonak hil balautelandaia, ezpata hartuko  
 nuen hobendunaren jotzeko, bainan Jainko Onak  
 hartu daut. Berea zuen! Bertzalde hil da Josep,  
 bainan ez dut arras galdu, berritz ikusiko dut  
 egun batez. Horra zertako ez dutan, pagano nin-  
 tzelarik bezala, bururik galduko!»

Hutcha eder balean sarturik, beharamunean  
 ehortzi ginuen Josep. Ez nintzen kantuz Joan elizartean  
 bainan nigarrez. Huna hobiaren gainean ederki  
 lantharazi nituen hitzak:

Hic jacet Joseph Ngui,  
 Primitiae Ecclesiae Sedana....

Non sumus sicut caeteri qui spem non habent:  
 In Jesu, dona ei requiem...

Hemen ehortzia da Josep Ngui,  
 Sedango elizadiko lehen girichtinoa.  
 Bainan gu ez gare esperantzarik ez dutenak bezala:  
 Jesus ezria, emozu bethiereko bakea...

Gerortik Kontrangetarrek beren herria tokiz  
 aldaratu dute berritz, eta orai Josepen kobia etche-  
 tarik urrun da. Pasa-abereak behar jaten ari  
 zaizko noiz-nahi gainean: choriak kantuz ari dire  
 aldeko zukaitzetan. Bere Josep marea bakharrak da. Pa-  
 kharrak, hilak phiztu arte...

# Hogoigarren kapitulua.

André Ngam. — Debruak egiten diozkan tzarkeriak.

Josep hil-eta laster, André Ngam goiz batez ethorri zitzauntan etcherat. Choria bezen alegera zen. Galdetu nion zertako. — « Gau huntan Josep baitut! » — « Ber derasak, haurra? » — « Egia baizik ez, Aita! Josep zerutik zen. Oi, zoin ederra den orai! Urrundik oihu egin dautanean, nahiko nuen harat ganat zan, baiman ez nuntaken aira. Orduan hura jautsi da nere ganat eta badakizu zer fidatu dautan? Ez dela zeruko zorionaren parerik, eta nik ere egin-ahalak egin behar ditudala har sartzeko egun batez. Horiek erran-eta berritz goiti abiatu denean, oraino nahiko nuen atchiki: delabaldan, ezen berehala oihu egin daut urteko, urteko, turuko histura berritz loth litzaiakela, bertzenaz. Kitzeman daut haatik ethorniko dela oraino. Orduan alzarri naiz eta nere atsegina egin gehiago neretzat atchikiz ethorri nitzaitezue hoin goizik! » Eta amets edor horrek geroztik etzian Andreu Josep ahantzterat urten: baiman ethuntzeko orde, aloguantziar, bethatzen zozkam bihotza eta begitartera.

Guzien gatik etzen hori amets bat baizik: Jainkoak igorria segurki, baiman amets bat kalere. Idokera-chago ~~perduta~~ erranen deutzat haatik bertze zerbeit Andréri gertatua eta batere ametsa ez dena. Hori baimo lehen, hitz bat debruak noiz nahi salbaiari egiten diozkatzen tzarkeria batzuez.

Europar ez da naiz ikusten norbeit debruak hartua eta nihorik ez du aise inkesten debrua gorphutz batez jabetu dela. Eta ez naiz bakharririk mintzo gizon buru gaichte batzuez, argia bera ikusi nahi ez duten batzuez. Holakok bereen urguluan oro ukatzzen dituzte. Oro, Liburu Sanidue-tako erakaspenak barne! Hori etzaut batere karrigarri-karrigarri dena hau da: girichtino onetan ere badirela sobera dudatzen dutenak! Pichtan da elizak zerbeit fin-katu arte, har edo utz dezakegula zerbeit, bekaturik gabe. Ez da haatik aixerat hartu edo utzi behar. Elizak baditu othoitze berezi batze debruaren gorphutzetarik athera-arazteko. Froga da hori, debruak jabe ditakela beraz gorphutzuez: zoroheria da ukatzee. Ukatzzen dutenek ueste othe dute Eliza baimo jakintsun eta zuhurrago direla? Pavaian aithortuko othe dautzet? Gite edo aski neroni kantarik uzana naiz, eta salbaiatarat ethorri

nintzalarik, norbeitik erraten zautanean nunbeit itzal bat ikusi zuela edo oihu itausi bat aditu, irri egiten nion. Baster ohartu nintzen nere sinheste-eskaskak behar gabe harritzen zituela salbauak eta ritarik urruntzen. Ondutik, irri egiteko orde, ahal nuen bezala argituzerat behiatzen nintzen, eta bat edo bertze ethortzen zautanean arima hernatu edo bertze holako ichtorio zerbeitekin, zerua jifer-nua eta purgatorioa zer diren erraten nion lehen-lehenik. — « Berima zerurat, jifernurat edo purgatoriorat baizik ez ditakeenaz geroz joan, ez ditake han baizik kausi, eta beraz yuk erraten dautaruna egia bada, debrua deabila kor! » Hola, emeki-emeki, kasko barnean zituztoman chuchen-tzen ari niozkaten, behinere arras kontra egin gabe. Ez othe zautan kori manatzen zukuartzak berak?

Nere baitan ametsak eta amets kutsak zituztela mindagon haatik oraino. Gerochago, hainbertzek eta hainbertzek bethi gauza berak errepikatzearekin, duda bat ethorri zituztutan .... eta azkenean sinheste duk nik ere, kein batean. Berria ez ditake uka, alabainan. Nahi duenak nahi duena erran dezala, bainan orai zinez eta zinez hau bederen sinhesten dut: debrua salbairen ondolik deabitala jangotan. Tschentan da buruan gaichoeri tartu nahi tioketela, hil-eta gure arima burrean gelditzen dela, zeruko zoruona eta jifernuke zorigaitza ezagut ez detzaten ....

Gutiz gehienetan, norbeit hiltzerat doalarik edo hil-eta laster ariko da debrua lanean. Eteke ondoan edo kobetik hurbil zer-nahi harribots latzgarri aditzen da lehenik; zero, elke batzu. Itzal batzu ere agertzen dire artetan. Itzal horiek hilaren trakatsukoak dire, eta hura bezala-bezala mintzo. Oraino hilik ez den eteke baten ondoan kusten edo aditzen badire horiek, froga da eteke kartarik laster norbeit hilen dela .... eta hala gertatzen da bethi! Blabainan debrua ez othe dezake ikus eta ezagut norbeitik gordea deraukan gaitza, eta mirikuak bezen ongi finka heriotza ekharri behar duela nahi-ta ez gaitz horrek? Funtzean, segurki eta segurki gexurteak ez diren gizon batzuek holakoak finkatu dauzkitet: ez dezaket gehiago duda. Ez, ez dezaket duda! Gerla egin diote debrua Hemur eta Ngami: gerla, bertze ghirichtino berri frango eta frangori: gerla, gure zerbitzarietarik zenbeiti, .... salbaiek erranak bezen begi eta beharrez frogatu nahi izan dituztalakotz, sinheste nahi etziztelarik bizkitartean.

Bainan ez othe nairz terratu eta horietaz soberacko mintzatu? Dena dela, funa Anderi zer gertatu zitzaion, berak erran dautan bezala.

Josep hil ondoan, irrira horitzean, Sam bere landan zen egun batez. Egun guzti lanean arizan-eta, ilhuntzean Andre abiatu zen autaren ganat, gauaz abere gaichtoan zautzen laguntzeko. Bainan korra nun aita buruz-buru egiten duen lidean: « Gauaz ez duru beraz landan egon gogo, aita? Jurekin egoteagatik heldu nintzen, bada, ni » — « Nahi duenak eguner dit landan lo: Samik ez ditik

berritz han ikusiko!» — «Hertako?» — «Debruaak arras izitu bainaik!» — «Debruaak izitu? Uste nuen bertotz gehiagoko aita nuela! Funtsean: ez da zaintzaleak beharrik gure landan: zu, zoazi etcherat, ni egonen naiz landan... eta ederki te eginen ifernuko debru guzian zatik. Pekar arte beraz, aita». Orduan Sam izuli zen etcherat eta Andre Joan landarat.

Landaren ordian bazen etchola bat, ichtapa bat edo biga gora ombor pikatu batzuek airean zerakutena. Han egiten zuen te zaintzaleak. Nikorat mugitu gale, landa guzira begien aintzanean da, eta abere gaichtoak oihu batez urrunt ditazke. Erran behar dauquet hemen gaindi ez dutala ezagutzem gizonik Andre baino gutiago zerbeitik lotsatuko zuenik. Gurichtinotuz geroztik bereziki, ez daki izitzea zer den. Etcholan sartu zelarik, izurkia jada mendi gibelean gordechea zen, ikhuna heldu. Pipa baten erretzecho, suaren phizten hasi zenecho, herri nun harrabots batzu aditzen dituen azpiko aldean: «Eto, aitak egia erran zaitak! Baina, debrutte, ago nik su hau phiztu arte, eta ikusterat ethorriko nitzaik telora hortaraino! Ago!» Han bertzenarekin bertze harrabots batzu, norbeit goitika hasten balitz bezala! «Loberackto jan duk naski, te? Bainaian irri aski, kola! Har dezagun gurutzefika esku batean, arrotorioa bertzean... eta goazen etxaiaren ganat!» Eta orduan jausten da zurrubian Larra. Jautsi denean, harrabotsa gibeletik arizau: itzultzen da. Bainaian harrabotsak ere ingurua egin du, eta lauzpaborts aldez oraino entzuten du, lehi gibeletik! «Norbeit ikus baneraz, makikaldi batez kalitzeko, bainaian hunk du agertu nahi! Othort bat egin dezagun beraz, ikusteko. Ikasak beraz, madarikatua, nik ez dutala jautko Ona baitan baizik fidatu eta finkatu nahi: hiri bathaioko egunean ukho egin dauat bephikotz! Gorti egizak, nahi baduk, hie barne guzia: nik nera othortza egin gogo diat lehenik, eta te, gero». Hortan ichtidu ziren goitikoak, eta Andre lokharitu zen, deudik aditu ez balu bezala, eta te egin ederki argiraino....

# Koigoitabatgarren Kapituluua

Igandea nola atchikitzen duten solbaik. - Misioiester indarra.

Nik ez dut asti-buru ona egiazko liburu baten egiteko, liburu batean oro cheke-cheheki erran behar baitire. Larrienez ere orhoitzea zerbeit bazcut. Huna Josep hil-eta laster neroniri gertatu zitzauntan zerbeit. Hortarik ikusiko dezue girichtino berriek nola atchikitzen gaukuten igandea.

Pa girichtino berri ortzirale batez joan ziren, egun baten bidetan, norbeiten skusterat: bikaramunean itzultereko chedea zuten. Bainan egitekoek usta baino dembora gehiago harturik, larumbat aratsiak kan berean atcheman zituen. Ber egim? Eanean ziren segurki.

«Bekar igandea, eta bita karasko!» eta aroa galerratu batetik, goizalderat baizik iChargirik ez, bertzetik! Hau lana! Galere igandearen atchikitzea oro baino tehenago dela, bidetari lothu ziren zanpa-zanpa. Euria haki zitzaionten bidetan, ilhuna loditu bideteka tzarrentetan, bainan chusuk etzitzen lotzatu .... eta bikaramun goizean, meza hasten, eta kaperan sartzen zitzauzhun, lehertuak, Larruraino bustiak! Ez othe da hori ongi? Ongi baino hobeki? Nere girichtinoeri ez noten gorde hala zela. Bainan ez du balio zerbeit ongi dela erratea, beharrean bertze hainbertze ez egitekotz!

Indoko larumbat batez, Frohaiserat joana nintzen beraz, eta berdier lagun. Beratsuko sartzeko chedea ginuen. Bainan ikaragarritzko euriak hasi zituen eta berehala handitu ziren erreka gurpiak. Gehiago dena, embata tzar batek jukaitzak errotik atxeratu zituen oihanean. Pohaien egonez, bikaramunean gure mezak ematen ahalko ginuen segurki. Bainan zer erranen zuten Kontrango girichtinoek? Hekarik bigek doidea kolako bidetza egina meza sanduaren entzutako, misioiesterak gutiago egin behar othe du entzunarazteko? Jitzaunik ardiak baino alferriago izan behar othe du? Ni bederan Kontrangerat joanen nintzela egin nuen ik bita berdier, zure osasunarekin etzaitzela bidetari loth, zu, euriak euriari: gaude beraz hemen, ni joanen naiz. Dembora eder bat arte beraz, eta jainkoak atchik gaitzala!»

Etchetik atxeratu eta chun urhatsen buruko, euria bera

bezen bustia nintzen. Orduan ez nintzen haatik  
orai bezen ahul eta lotsakor. Mairiak zer ziren ez  
nakién oraino ez-eta bere buruari amor ematea.  
Mirikuek erakuten dautet geroztik zer den hori. Sal-  
batak ez dakite beren buruari amor ematen, ez dakite  
arhatzera zer den, eta bizkitartean munduan ez da miri-  
kurik osagarri gehiago duenik! Eran ditake ni ere sal-  
baiskoa nintzela bederen, orduan. Goizeko zortzietarik  
arratsaldeko hiriak arte euriarik etzen gelditu. Hain  
chuchen egun hartan, arinago ipaitako, bainan ez nuen  
athorra bat eta gaitza labur batzu baizik! Choria bezen  
alegera nindoa kalere nere bidan, bainan debruari  
gaitzeta zitzaion nere abgantzia eta laster sar-arazi  
zautan! Ordu arte ez nuen erreka behar batzu baizik  
atxeman eta aski ase iragan nituen .... gerriraino  
sarturik bederen. Huna haatik bat gothorragoa.  
Urak burumban zoazin jada. Zer egun? Hain chuchen  
beherachago zuhartz bat kusken dut errotik atxeratu  
eta, luze-luzea etzana, nahiko zubia egiten dautana,  
Hhara gorrian nere erreka erba hartan iragaten  
dut .... eta bertz alderat jauzi egiten, salbu! Salbu?  
Baduk kobarik. Hangoa abar batek trabatzen daut  
arean eta, behorreat erortzeko orde, erortzen naiz  
urerat. Beharrik ez nuen behoraino baizik, eta laster  
atxeratu nintzen. Bustiarena deusek etzen izanen,  
abar izan harek zarratza bat egun ez balaut zangoan!  
Eta zorigaitzaren zorigaitza! Orkan gurja odol-edalaz  
bethea baitzen, ireltu ninduten. Zer arratsaldea! Bainan  
oro ahantzi nituen Liharamunexan, kafera behetzen  
ikusi nuelarik ....

Hauk laster huna zer gertatu zen. Frogatuko dautze  
zer indarra zuten jada misionestek. Aspaldi zuen  
nihork etzankula gehiago atherik sudurrerat husten:  
aspaldi, nihor etzela gehiago gu ikurrik ihes abiatzen.  
Degutarte ona egiten zankuten orok, eta aski maita zuten  
gurekin hartaz eta huntaz mintzatzea. Hangoak ginen,  
hots, eta emeki-emeki buruan emana zuten hezen  
onaren ondolik baizik ez ginabiltzala. Hainbatzok  
nahiago zankuten, etchekoeri baino guri zer-nahi  
fidatu. Di herri gerlan has zitela, misionesta hartuko  
zuten ararteko eta haren erranerat eroriko ziren  
begehala batzu eta berzeak. Eta ez gintuzten ararteko  
begala nahi bakharrik haurzo-haurzoko herriek: bainan  
urrunenekoek ere deitzen gintuzten noiz-nahi. Deitzen  
gintuztenak guk ez gintuen beki ezagutzen, bainan  
hek nunbeitik bazakiten nor ginen, eta deulik ez  
ginuela zuzenaren kontua egiten.

Deraz Rode deitue herria gerlan zen Kontrangetarrekin.  
Portz gizon preso hartu ziozkaten Kontrangetarrek Ro-  
detarrieri. Portz lohakabe horiek herriko-etehean  
ziren, ongi estekatuak. Espaldiko auzia zuten bi  
herriek, eta, hastean Rodetarrek nausturik, zer-nahi  
gizyke egina zioten Kontrangetarrieri. Ez da beki Phagko  
eta hauk edorki mendekatu ziren, delako sei gizonen

bizkarrean. Eta horra nuz sei Rodetar hauk othoizten nauten, Rodetat joanik, heyen herritarreri erran dezaden ez diton sobera tema eta lehenbaithehen eros dezaten.

Padra, egin sinhetzia da bi herri gerlan direlarik, batiko edo bertze ko norbeit etzaiari bakearen eskaintzerat joan dela. Jere gutiago joanen baita niker, haron gizonak preso dauzkano! Beldotcha otsoaren ganat joatea da: mandataria taster prebendegian sar ezakete!

Deraz, Rodetarrek mandatu hortaz kargatu nindutelarik, aditu zituzten guziak irri karkaraz hasi zitzaizkoten. Bainan nik baietz joanen nintzela segurki inardetu nitelarik, aditzaile guziak alde guztetarik hasi zaurkidan ez nuela kolakorik egin behar eta ez nuela kolakorik egin behar, joatea bezen segura nuela han kiltzea. — « Bainan erradazue, adichkideak, nunbeitik kolako mandatu batz kontrangerat heldu banintz, norik nahi lute niri gairkurik egin? » — « Li, kemon nikork! Bainan guk ezagutzen zaitzue, keta! Rodetarrek aldi etzaituzte ezagutzen eta ez dauzute begitarte onik eginen, segur! Segur, gero! » — « Ikusiko dugu! Ikusiko dugu! Rodetarrek zuek bezen ongi bada-kite misionestak ez direla alderdikari, bainan bai ororen adichkide. Joanen nitzaioeta beraz eta fida naiz ez dautedala zuek baino gairki gehiago eginen! Ondoko egunetan orok eskorrak bikurtako dauzkidatzue, lurkate hori eginik! »

Joan nintzen. Rodetarrek sekulako begitartea egin zautedan, heyen lei altabunean kola fidatu nintzela kotz. Han iragan nituen bi egunak presta gorrian iragan gintuen, etchetik etcherat, arno berri pastatzen eta irrisa jaten! Herriko etchean egin niton nere mandatura, eta nik galdetu guziak berehala onhartu zituzten. Bi herriak bakea egin zuten: bakea, bezen onetan.

Portze behin, gure etheko Anamitaketa haurko herrietar batzue ziren samurtu. Uste dut gure Anamitek zuzena alde zutela. Bainan itchura guziak kontra zituzten. Salbaiek aras begi gaichtoz behatzen zuten heyen kandi-nahi eta iduriari. Batzue eta bertzeek arartekotzat hautaturik, adichkideku nituen egundaino berala.

Huntaz balia, nahi duzue zerbeit beharri chilarat sala dezazuedan? Salbaiek Anamitak batera ez dituzte maite, eta buru hortarik zerbeit ikusirik gaude segurki geroni. Banharra, bertze salbaia guziak berala da: ez dezake ikus goraskotik behatzen diona. Eta aldi Anamita, bere herrian ostikatu delakotz, Kamporat ordoko kantzen! Eater zer-nahi badela iduritzen zaito! Bannamek aphezrek berek aise balukete itzal hori: horra zertako ez diren gu bezen begi oner ikusiak kemon gaindi. Sobera manatu nahi dute. Padrie haatik, berehala errateko, huts hortan egundaino erori ez direnak: keta do hautarik da segurki eta segurki. Bainan bertze errepikatzeke, bana bertze Banharra makta, ago ditu misionest frantsesak. Beraz atchematen omen gaituzte....

Beren eztabadetan, zenbeit aldiz gudua hasi eta ore  
 zenbatetan ez naut arartekotzat hartu salbaiek! Ni  
 bezala bertze Aita frantses frango. Paurian nikork ez  
 du Aita Combedek bezenbat galds ukhan eskun eta  
 ezkerretarik. Orok maita zuten, Noiz nahi beren lan-  
 detar aino paiten zitzaizolen kusterat eta icklorio  
 chakar erraterat, artean pipa gozo zenbeit errez...  
 Bertze guziari partitu ondoan belharrik geldutzen bazi-  
 tzaion! Eta orok elke bera zuten mihiaren puntan:  
 « Horra gure naubia! Gu guziak baino mitetan han-  
 diago da, nahiz tipitu nahi duken! » Ez ditake beraz  
 erran zoin ongi ikusia zen eta zer ongiak egin  
 dituen hemen gairdi!

# Mogotabgarren Kapituluia

## Debrua garbaitua.

Debruak etzaukun epherik ez bakerik urten. Huna zer asmatu zuen 1857 garrenean Kontrango elizadi berriaren suntsitzeko. Jada erran dautzuet zer sunhetea duten Panharrek « deng » delakoan, eta ez duze ahantzia urrundik norbeiten hiltzeko Cotherea dela hori. Pada, nere zerbitzarietarik bat gisa kortan, neskatcha baten heriotzeaz kargatu zuen sorgintzak. Konke ring deithu herri batelakoa zen neskatcha. Kontrangoen eptoi batzuetan izanik, etcherat goalarik, bidelan ezagutu,ko gaitz batek hartu zuen neskatcha dokakabea eta etcherat gabe gorshutuz zen. Sorgintzak arroltze batzu hautsi zituen berehala eta hetan irakurtu nere zerbitzari delakoa zela hobendun.

Herbeit erran dezagun haatik, behenik, hobendunaren atchamateko moldeaz. Herbeit galdu dutenak joaten gaizko « 60-7000 » edo sorgintzari. Berlean errateko, sorgintza hainitz balenbada, ez da harbat sorgin. Bamarrretarik zortzietan sorgin edo sorgintzaren mintzatzerat doanak jada norbeit bade begietan, eta berehala hori uzendatzen dio. Deutik ez, baita gordaka ezin behar, herriko jende guzia deithuko dute holako egunetako sorgin edo sorgintzaren etcherat. Berlean hau eskuan eta ezker ibitiko da nun zer adituko duen hobendun bezala hautatu gogo duenarentzat. Herri guziaren aintzinean mintzatzeko orna ethorri zaionean, « Gotpasei arroltze kolota, mahain baten gainean ezartzen ditu, bere gitako othoitz batzu gora-gora marmarikatzen, eta, arroltze bat bi erkien artean poliki harturik, orori irakusten. Orduan norbeitik galdetzen dio erran dezan nun bizi den hobenduna? Holako herrietan bizi da? Ede holakotan? Herri bakhotcharen izena aditzean, gure sorgin edo sorgintza hasten da indarka, arroltzea behertu nahi balu bezala... » eta ez da behertzen arroltzea, hobendunaren herria uzendatu diotelarik baxik! Damurik!

Herria ezagutu ondoan, hobendunaren etchea bitlhatzen dute gisa berean. Gero, hobenduna beria. Eta futeko, brok sunhesten! Nihori etzazu gogoratuko ederki trufaz ari dela sorgina!

Beraz horra nola ikasi zuten Konhoringo salbaiek delako neskatcharen hilarazkoa nere zerbitzarietarik bat zela.

Mandatua izorri zautedan hobenduna berehala eman neyoten mendekatzeko... edo etsaituko ginela. Eanean nun...

tzeg eta lanean ginen etcheko guziak. Torroitzek min-  
tzatuz geroztik, inguru guzietan nikork etzuen dudatzeg.  
Eta, eruske guzuen gatik, guk nolabai lagun bat, guziz  
den gutieneko kobenik etzuen lagun bat? Othortu egin  
nuen lehenik Andredena Mariari, laguntzaren galde-  
bete. Jeta berdiez nere ondoan nuen belhauriko. Gero  
huna zer erran nioten mandatarieri: « Ehenkaulen  
stzul garza zuen herriarren ganat eta haucle errozue:

Dioten bezala gure Uok hobendun balinbada, ez duzu  
segurki barkatuko, eta emanen diotegu! Bainan ez da  
dubik areriat egin behar kolakoetan: Konhoringer  
guziak Kontrangerat datoyita beraz, sorgintzariekun ko-  
lako egunez. Honek frogatzen badaut Uok egiazki  
hobendun dela, arroltze behar den bezala hautirik  
eta ez nahi duen bezala, berehala Konhoringerat ere-  
manen duzue, nahi duzue naren hartaz egiteko ». Man-  
datarieri iduritu zitzaion ez nintzela garzki nintze eta  
nere mandatuaren ereman zioten herriarrieri. Haut onharte  
zuten.

Balkura horren aintzineko ospasi egunetan ez duzue  
aise asmaturiko zer arizan nintzen? Sorginek bezala  
arroltze hautatu! Othortu behar dut lehenak ez nirela  
erechki hautu ep. eta ere naski arras behar den moldan.  
Ez nahi in orain arroltze kolokoak hautatzen zituztela,  
hautu-errekha: dielakoty, onak baino kolokak. Bainan,  
beharia eragile handi baita, arroltze onen ere hauter  
edarki behatu nintzen....

Jeta berdiez lagun hartu nuen bilkurarat joitako. Jada  
hiruetan hogobat lagun baxen herriko-etchean oro  
lantza batzue eskuan eta ep. patak geritit. Andre Ngam  
eta Lam ere kan zaien, behar orduan gure laguntzako.  
Ni mintzatu nintzen lehenik: « Uste duzue beraz Uok  
nere zerbitzariak hilarazi duela Konhoringerko neska-  
tcha gaicho kura? Nunda hori erran dautzuen sor-  
gintza? Edo sorgina? Pat edo bertze barden zaut neri,  
bainan detorkidala aintzinerat? » Eta nik uste bainan  
sorgintza batekin behar nuela auzia trenkatu, alere  
moly eta beltyaran bat kurbildu zitzaion, tapa tapa.  
Haren begi gaichtoa! — « Ha! ha! Hi haiz beraz Konho-  
ringarren argitzaile eta gidaria? Hek dakizkake bertze  
nikork ez dakizkanak? Kurbil hakit oraino gachago  
eta nere aintzinean hautu hire arroltzeak! » Bainan  
sorgina etzen naski fida: etzuen kurbildu nahi. Herri-  
tarrek erranik etradin lotza, bek ere kan zirela behar  
orduan laguntzako, alde alderat ethorri zitzaion. — « Ba-  
dakik edarki arroltze hauter: nik ere bai. Nik eginen  
dairkiat beraz galdeak egun. Arroltze bat hartu zuen  
eskuan eta bere othortzak egin. Nik nere arroltzeak ez nioz-  
kan agertu. Pasi nintzen galde eta galde. — « Nork hilarazi  
dik delako nekatcha? Hala eritasunez kil duk? Usteago hake  
norbetek hilarazi duela beraz? Sactak igorririk? Nungoa duk  
hobenduna? Kontrangerkoa? Jetaaren etchekoa duk? »

Nahi zuenaren egiterat utzi nuen sorgina eta bere arrol-  
tze hautu zuten... nahi zuenaren. Eta orduan arkan galde

hau egin nion: «Nor duk bada, Ataren etxean hobendun? Ni Lederen?» Hkusi barintuzte orduan sorginaren zplimibekeriak ongi baino hobeki erakusteko se gurki eta segurki nik ez niela hobenik! Behinere egiten ez dena, bere eski eskuina epkerrarekin lagundu zuen eta arroltzearen lehertzeko..... bainan elertu gabe: «Peha! Nere indar gurien gatik arroltzeak ez du hautsi nahi! Jotak ez du hobenik!» Jorroltze egin hautsi kura turrean ezarri zuen orduan, pausatuta eta hatsa hartu nahi balu bezala, bainan burua izul artean handik hartua nion nik eta besoaren puntan orori erakutsia, oihuka: «Brok ikusten duzue zuen sorginaren arroltze hau? Ez omen du hautsi nahi! Bainan hauts dadicela, hobere, sorgin hau ez bada tera gezurti handi eta porjornatzaile tyari bab baizirik!» Eta, Krak, arroltzea hautsi nuen orotan biktan eta purretan alde guzietarat ichuri egin jatanerako ubain batekin!

Sorgin zaharra zer ikharak hartu zuen eta oro nola eta nola harritu ziren! Eskuko choria ez nuen aralizerat utzi, eta prediku hau egin nioten Sedangetar gaiztari: «Edichkide maiteak, horra nori fidatzen zaitzen zuen tealtabunearn! Horra norik eginarazten dautzuen horibertze gaizki! Bainan bertzerik era begietan ezarri nahi dautzuek egun: jauntto kunek eta hunen iduriko guziak deus ez dakitela.... zuek baino gehiago! Norbeit heriotze baten kargatzen duclarik, nikork ez dezote ezat erran; ikusten ez direnak dire horiek! Bainan huna zer eginen dugun: Ngam nunbeit gordeko da, eta arroltze bat hautsi, zuen sorginak erraten badakute nun den, esklabo baten saria emanen diot berehala!»

Ngam joan zen lasterka eta herriaren bertze buruan hurrerat joan etche zahar batean gorde. Sorginak hautsi zuen arroltzea eta etche baten izena eman zautkun, iferruko lebre beltzaren kopatarekin. Konhoringo eta Kontrangeko gazte batzu joan ziren delako etcherat, bainan Ngamik han ez atxeman. Elkea galduak zauden salbaiak sorginari eta neri beha.

Nere zerbitzari gurien izenak bazakurkan sorginak. Bainan haueke etzakien: Uokt bazuela bertze izen bat: Klon. Etzen izen goiti bat baizik Uoh. Salbaiak othoiztu nituen beharriak oraino hobeki idet zitaten, eta beerritz sorginari hurbildu nitzaion: «Kure arroltze batek hobenduna nere etxean dela erran batu, eia orai bertze batek hobendun kore nor den salatako daukun?» Eta terro terro etcheko izen guziak eman nitukan sorginari, Uokren orde Klon erraney. Etzen hau aditzean, lanak skubi zituen eta Klon gizona zen ala emaitza galdeku zautkun. — «Jotki duk kure arroltzeari galdetzea», nion ichardetsi. Ute uzate zuen seki berri zombelt nukela Klon. .... eta arroltzea etzen hautsi! Nik etcheko izen guziak eman eta arroltzea oro zen oraino. — «Horra beraz Konhoringar gaiztoak, Uoh hobendun da eta Klonek ez du hobenik. Eta bizkitartean Uoh eta Klon, Klon eta Uoh ez dire nere

etcheke bi zerbitzari: neskatza berak ditu bi izer horiek!  
 Kontrangoen hori orok badakite. Nork funkatuko du  
 ordaino sorgin hau ez dela gezurte bat? Hemendik goiti  
 nork erronnen du beraz lokk niñor kitarazi duela?»

Nihork etzuen ahorek idaki. Eta horrengatik  
 uste duzue jende gauekoek bere sorgin eta sorgintzak  
 bazterrerat utzi dituztela? Ta...

Hortan utzi gintuzten haatik Konkouringarrenk.  
 Hori lotzeko ziren, alabarran? Bi, deliruaren amarrua!  
 Eta zoin urrikaltzeko diren mensean ematen zaij konak!

## Hogoita hirugarren Kapituluia

### Ita Combesen heriotza.

« Hil aintzinean bortz gizonen bathaiatzeko zoriona banu? Hamabortz lagun katichima puska bat ikasten ahal baniota, zoin gogotik eta gogotik kanta nezaker Nunc Dimittis! » Horra zer aditu diotan, behin baino gehiagotan, Ita Combes maizari. Jainkoak aditu zituen haren othoitz saminak. Eta handizki aditu oraino! Beruierat chuchen-chuchena igorri zituen hainbertze haur aipatu gabe, eri zirelarik bathaiatu zituen bi aitaso chahar eta onex bertzalde, hogoita hamalau lagun bazituen bathaiatuak, eta hogoita hamalauak grichtino onak ziren. Horren gainerat katichima ikasten bazabilizkion hogoita hirur ikasle larri, eta segurki hauk ere gei onak iduri zuten. Baroak en beraz bakan. Eta Jainkoak, ongi baino hobeki frogatzeko, berak hala galdetuzen zuelakotz, deitzen zuela Ita Combes, eritasunik etzizon igorri eta katichima egiten ari zelarik hartu zuen.

1857 garrera zen: buruilarren hamarra. Ita Verdier joan zen Hoxamerat eta han bi egun iragan zituen gostuan Ita Combesekin. Hamalauetan nere lagunak etcherat itzultzeko elheak hasi zituenean, Ita Combesek erran zion Hoxesa zeran: « Ez naiz arras. arras fleitean eta behinere ez dakigu zer gerta dakikegun! » Eta kofesatu zen. — « Nahi duzu hemen egon nadin, eta Douribourek kontrangeko lanak bakharririk egin detyarke naz geroz? » — « Ez du balio. Zer gerta ere kofesatu nahi nuen: goazi ». Eta joan zen Ita Verdier.

Hau chuchen horra nun egun hartan berean Cochinchinatik Hoxamerat heltyon zaioten... Ita Dao. Europako eta alde guzietako eskulitzez mando bat kozala koagatua heldu zen Hoxamerat. Paritzen guretzat, bainan gehienak Ita Combesentzat ziren. Hautarik batean jaun apherpikuak jakinarazten zion Ita Saunduak apherpikutzat hautatu zuela eta beraz, oro utzirik, behen-baitehen joan Cochinchinarat, karquak hartzeko. Berunt lotatu zen Ita Combes. Kerbeiti suspichturik, aspaldi fidatua zautan sekular etzuela holako kargurik onkartuko. Beldurak hil othe zautkun beraz gure nauki eta adichkide ona? Hauritzek hala uste dute, bainan dakienak daki. Pena dela, berri hori ikasi zuenean,

ganeraterako eskutitzari etzuten behatu ere. Eguzia guzia,  
 behinere ez eta, elken-ikuna iragan omen zuen, nikorri  
 elke bat egin gabe. Arratscan katichima hasi zuen kabre,  
 gosturik ederrenean. Hain maite zuen katichimaren  
 egtea! Bainan ikasleak etzituen bertze arratscan bazeu  
 luyez atehiki, etzela arras trempuan erranik. Kamporat  
 zoazin beraz purrestan ikasleak, harrabots bat entzun  
 zutelarik katichimatigilik. Perriy, jauzian sartu ziren  
 oro, beldur gaichto batekin, eta bita Embes lurrean atele-  
 man zabal zabala, jada ellerik ez ezagutzarik gabe. Aita Baso  
 deitxu zuten berehala: kunek olidura sainduak emon  
 zozkan. Keken etzortzak bururatu orduko, Aita Embes  
 hala zen! Kogorta kamaki urtik pituen doidoia. Orok  
 usta ginuen behingo nauzi eta gidori baginuola harekin.  
 Jaintxoak etzuen hala nahi. Aita Embesen oreana etzorra  
 zen.

Bainan, ongi behatu, zer heriotze benedikatu! Horra  
 misionest gaicho bat. Pakhar-bakharrik bi zi do bere  
 salbaekin. Bere aphez lagunak ez ditu urrunetik urru-  
 nerat bairik ikusten ahal. Siyutuki bezala hil behar da,  
 aphez baton deutzeko demborarik gabe. Bainan jaintxoak  
 behar diren guziak eginen ditu: behenik Aita Ferdier  
 igorri eta bita Embes kofetatu da. Jada heriotze  
 bidetan da eta misionesta egundaino bezala bakharrik.  
 Pakharrik? Ez, ezen nikork usta gabean Aita Baso heltzen  
 da nunbeitik, azken laguntzen emateko aski goiz. O, jain-  
 ko maite eta ororen nauzia, zoin ora zaren haatik! Sinke-  
 tearen kedatzen dabiltzanak nola laguntzen dituzgun!  
 Begia nola atchikitzun diotzen! Sekulan ahanzten  
 banu guretzat duzun amodio ezin sinkezikoa, Jauna,  
 ihar bekik eskua, eta ahoan geldi emikia fura lauda-  
 tzetik icheitzen banauz!

Perri hau herrian kedatu zenean, oro nigar marrastak  
 hasi ziren chokho gurietan. Euria jauts ahal ari  
 zen, bainan ~~halere~~ laster jender bethe zen hilaren  
 ethean. Irisaren zain ziren bizketartean gizon gehienak  
 atabalek lasterka itzularazi zituzten herrurat. Errian  
 gabe doa burua galdu zutela kasik gurichtino berriak  
 eta gurichtinotzerat zoazinek, halako aita galdurik. Gau  
 guzia etzuen handik higitu eta nigar egletik icheidu...

Dembora hortan bita Ferdier eta nik ez ginuen  
 segurki holako heriotzerik gogoran. Piharamun arra-  
 taldetan gure bethiko lanetan ari ginen bi mandatarari  
 Europako eskutitzetan etzorra jauzularik. Paruten ere  
 Aita Basoren hitz labur bat. Eteheko berrien irakurtzen  
 hasi ginen behenik hurruyaka. Hain gocho da urrun  
 denean aita, amatto eta etheko guzien berrien ukhantea! Noiz  
 peit irakuritu gintuen beraz Aita Basok igorri lau hitz  
 ikaragarri hauk: bita Embes hil da!

Ortzia karroskan gainerat erori balitzaut ez nintzen  
 gehiago harrituko. Egundaino ez nuen gogoran erakili  
 holakorik gerta zitakeela ere. Beldurkabe handiak  
 ginen alde batetik Aita Embes eta ni, eta bertzetik hura  
 ginuen gure nauzi eta gidoria. Nola deudik egin haren

argiak gabe? Horigaitzak lehertua nigarrez hasi nintzen perrustan. Bainan bihotza laster altokatu nuen halere eta Jainkoari oihu egin nion: «Jauna, zuek eman zinaukuzun; zuek hartu daukuzue. Bai, egina izan bedi Nausiak nahi duen bezala eta bethi, bethi Benedikatua izan dadicela Haren izen Jaindua!»

Berehala Koxamerat Joan behar nuela segurki, bi mandatarieri galdetu nioten zuegi nindezaten. Baietz. Bainan ni lasterka nindoan, etz durkidan jarraikitzen akal izan eta berehala elgar galdu ginuen. Egiazki su nuen. Ahuntzako bidetze ederra eginik, Monexen nintzen, Pla dakizuen ibaiaren kontra. Er nintzen kan bazyik oharu odol-edaleak gerruraino lotuak nituela eta dena odolotan nintzela! Baia arras lotitua zen hain chukken aintzinetako eurruteekin. Nihork ez ninduen lagundu nahi izan bertzalderaino. Debaldetan lehertua nintzen beraz; gauaren nahi eta egun viagaiterat bortekatu nintzen. Eta hala egin nuen. Bainan bikaramunean argiko berutu bidan nintzen, eta lohi, euri, saki eta ororen zatik Koxamen zarphi orenetako.

Nere beha zauden saibaiak. Zer begitartea egin zautedan! Hitzik nihorekin erran gabe jada banakien orok nere bihotzmina erdirkatu nahi zutela. Bainan girichtino berriak, bita Embesen umechurtch dohaka-beek unkitu ninduten gehienik. Goroki nigar egin ginuen elgarrekin. Etziten arras lotia, Josepen hobiaren gainean Ezarriak nituen hitzak errepikatu niozkaten: qu ez garsela esperantzarik ez dutenak bezala!

Zada Kutchan sartua zuten Aita Embes bere apez jauntrickin. Nik egin nituen ehortzetak. Koxamen egungo egunean ez dute oraino ahantzia misionest bihotz dur eta kartsu hura. Salbaiek berehala ahantzten dutuzte oro; bizkitartean noiz-nahi bat edo beste ikusten dut Aita Embesen hobirat joana, belhauniko othortzean ari.....

## Ko-goita laugarren Kapitulua.

Titia Douristoure Koxamen. — Jonangeko elizadia.

Gure lehen elizadia Koxamena zen eta uste dut hango girichtinoak zirela hoberenak. Elizadi hori behar zen beraz, hobekienik zaindu eta artatu, oro jarraitik zaurkion ondoko egunetan. Ez ginen gehiago bi misionest frantses baizik, Titia Berdeier eta ni. Harek edo nik behar zenuen berehala Koxamerat joan. Here Lagunari galdetu non eia nahi zuen joan. Ezetz ihardetsi zautan, eristeke zela eta lotsa mintzaira berri baten ikasten hasteko otatzen harrakun. Kontrangeko girichtino hain maita nituenak utzirik, niri zagon beraz Koxamerat joatea. Urte bat lehenago ez dakit aise eroriko nintzen hortarat, baina zenbelt ilhabete hartan, hainbertze eta hainbertze girichtino on, hoberenak segur, khenduz, orotarot egina ninduen jantikook.

Jagan eta girichtino, orok jada ezagutzen ninduten Koxamen eta Loriatu ziren ni niredoala karat ikasi zutenarik. Hain maita zituzten misionest frantsesak! Titia Combesen dohan handiek gogorrenak bilduko zituzten, alabainan! Jaha, Titia on hori hil eta bikaramunean, bi Koxamar Dorez deitue herri batetarat joanak ziren. Berratsen Doreztarreri beren herriko berri handia supazterrean erranik norbetek heriotze hortaz atseginik baizik etzuela ihardetsi zuten. Edanako zen kola mintzatu zen dokakabea eta ilhunenpean etzen bi arrotzeri oharluea. Hauk chutitu zitzaizkion eta aintzinerat joan elhe horren churutzeko: «Eta errak, to? Ber gairki egin daik gure Titak egundaino? Kertako egiten daik atsegin haren heriotzak?» Dokakabeak etzakien norat itzul ez eta zer ihardets. Dorkamendu galdetu zioten, edanak eramanarazi zola segur holako elhea eta Titia Combes etzaukala segurki gizon txar batentzat. — «Ez, ez duk zeren berriy kolako atkeraldi zororik egin, Dorez eta Koxam adichkide egotea nahi daoket! Euriaren gatik, gausa hemen iragaitako hedea ginikan; orai etzazakeguk! Egur...» Eta handik joan ziren berehala. Koxamerat orduko, Dorezen zer gertatu zitzaion orori erran zuten. Bikaramunean Koxamar guriak Dorezen ziren elhearen churutzan. Etzen gerlarik izan, baina miki lurreari bi basa-idi eder gosta zitzaizkion haatik. Ez nintzen

oraino Koxamen, ni, hori gertatu zelarik. Joan nintzeneko  
basa-idietarik bat eskaini zautaten neretzat: ez nuen hartu,  
... baina herritar guziek edertu zabalatu zuten nere partez. O-  
rai errazue: Koxamarrek ez ote zuten Aita Combes egiazki  
maite?

Aita Bao Koxamen zen oraino. Inguruko herrickha batek  
misionest bat galdaturik, neronek eraman nioten urtearen  
ondarnerat. Tolang zen herrickha hori: Annameko bidea-  
ren gaurcan arras, Koxametik doindoa bi oronetan zen.

Koxamen lehen-lehenik egun nuena da, girich-  
tino-goen katichimarat deitza. Etyen kaatik lan orrecha  
neretzat katichimaren erakastea, banhar mintzaira ahan-  
tzichea bainuen. Hemengo mintzairak arras ikusteko  
guti dute elgarrekin, zougaitzez. Baina Jainkoaren lagun-  
tzarekin eta neroni ongi berमतुरिक, aski laster trebate  
nintzen berritz eta urke baten buruko kamabortz bat  
bathario banuen egirik.

Ordu arte bekaizgo eta truffek kalte handia egina zau-  
kuten. Iduri luke batzu eta bertzak berekin shortzi zite-  
ela Aita Combesek. Bertzalde, girichtino berriak hain  
erti eta lagunkin ziren oronetzat, nuen paganoak hazi  
baitziren herritar horiek holakatan ziozkaten erakas-  
penari begi hobez behatzen. Urterik ez da joan geroz-  
tik bathariorik gabe, eta ez narz egunik egon nere kati-  
chimetan ikasberik gabe. Jainkoa ari zen. Bai, jainkoa!  
Eta ez segurki ni! Kamaretarik bedera tzietan iguri-  
katzen ez nituen lekhetik heldu zauzkidan nere ikas-  
leak! Eta aldir nik gehienik othortu nuenak huts eginen  
zautan ... edo berantago ihardetsiko! Jainkoak konberti-  
dezake bakharrik: hona ledetke egia bat, misionestek  
egun guzuz beren gostuz frogatzen dutena...

Baiari gora, Koxametik oren erditu baton  
bidean da Jonang. Di herri hautako salbaki lekharri  
hainitz badute. Urte bat bazuen bizkitartean Koxamen  
nintzela, lehen aldikotz Jonangerat joan nintzelarik.  
Berchala egiazki Jainkoaz mintzatu nitzaion, eta zabal  
zabala begietan eman, beren jaunko faltoari ukho egiten  
ez bazuten, etzutela beren egunbidea bethatzen. Aki  
beltzuri gaichtoa egun zautedan hori aditzaion, baina  
aski laster zenbeit bakhar hazi ziren nere erraneri  
hobeki behatzen, eta horiek batetaratz ziren, etche bat  
egunarazi nuen Jonangen. Nere Anamitetarik batek hazi  
ziozkaten katichimak. Delake Anamita gizon zuzen eta  
erti bat zen, sunheste handikoa. Presondegian ere egona  
zen eta girichtinoo zelakotz!

Preso altchatu zutelarik Aita Chamaison, misionest  
frantzesaren xerbitzari zen. Kuangnameko aintzindari  
batek xer-nahi ikusarazi zion eta hiltzat utzi oihan  
bataon. Handik ethorri zitzaion. Gurekin zen haste  
hastetik banharretan eta haste hartako nekke, Luru-hauste  
eta gaurerateko guziak guk bezala jasanak zituen. Hu-  
nat gurekin ethorri Anamitak bat bertzearen ondolik  
hilak ziren, oro, hura salbu. Eta hura, berrogoita hamar

urterez goititan bethi gazte eta suhar! Behin sor-herrirat  
izatu da. Ez du bidetze hori egin anaiaren ikusteko bakar-  
rik, bainan bere etche-partearen unkitzeko « urrikirik  
gabe, die berak, Jainkoaren aintzinean ager nadin! »  
Korra, Jonangerat egonri nuen gizona. Hango mintzaira  
ez baitzakien errotik, katichima larrienak neretzat  
atchiki nituen haatik.

Kenbeit aste zuen doidora Jonangen zela nere Anamita,  
ondorio hobereak ukhan zetzazken zerbeit gertatu zelarik.  
Tzitziparka lotku nitzaion. Jonang tokiz aldaratu nahi  
zuten, eta aldaratzerat joan. Holakoetan zer-nahi zimi-  
nokeria egiten dute salbaik, eta uste dute orduan  
eginak oro gero ez badituzte erreberitzen urrun-urrun,  
heriotzera heriuan alhatuko dela. Hala-hala oitura  
zaharriak aldaira horietan utz ditazte irriskurik gabe.  
Denik ere zerbeit irriska dezake oitura horien kontra  
lehenik ahoa ideki duenak! Nere baitan egin nuen  
: « Zo! Huna padaria eder bat jende gaicho horien  
beren yiminokeriak utzarazteko ... neronek lehenik  
utzirik! Nere ondotik uzteko ez dute halako beldurrik  
izanen! Beldur hori galten badute bekin, kobeki  
entzunen nante! »

Herrri berri bat egiten denean, yiminokeria handienak  
galdetzen dituzten hirur gauzak dire, etcheak atchi-  
kiko dituzten pilarren chutitzera, sukhaldearen  
moldatzera eta lehen pegar uraren ekhartzera. Hirur  
gauza horiek nik egitea <sup>orduan</sup> galdetuztik ... nere gisan egin  
nituen. Eiran nahi dut, behinere egiten etzizuzten  
bezala egin rituela, irrisku guziak nere gain hartuztik. Eta  
oro jarriaki zaurkitan ichil-ichila ...

Europar etche baten egiteko lehen harria pausatzen  
duenak morteroa berak eman behar die harriari: he-  
men aldez haritzurkaldi bat nuen emateko. Gero bertzeek  
egiten zuen gainerateko guzia. Pilarra doidora eskuz  
unkutu eta, bertze etche batelarat joan! Sukaldetako lana,  
ez nuen gaichtoago; aski nuen sukhaldearen ordian su  
bat phiztea. Eiran gabe doa artetan trufa ederrik egiten  
nietela bere jaunkoentzat! Gero, uraren aldi. Herriko  
emarte jarriaki zituzkuz, hedan ithurrirat eta kan  
kanabola muthur bana eman zautedan bethetzeko ... eta  
artha handienarekin bethe niozkaten, irria begian eta  
trufa mihian!

Herririk nik nere gisan eginez gerortik, Jonangeko salbaik  
etzuten bertze deus egitekorik. Kanbat gaichte neretzat  
gauziki egin banuen! Bek nikolar hobenet ezutzen, eta,  
loriaren loraz, bazkari eder bat eskaini zautedan.  
Bazkal orduan sori bat galdetu nioten: behingo herriaren  
aintzinean chutik baitzuten harriko jaunko gerizatzaile  
bat, hura: « Luk gogo onez emanen gincuztuko segurki,  
bainan nor mentura haren unkitzerat? Dohakabea  
erhants bezake! » Ez nioten baimen hori baizik galdetzen.  
Neroni joan nintzen beraz delako jaunkorat, eta, errozgora  
ezarriarik lehenik, bizkarrean hartu, Koxamerat ereman  
eta hango urean sekulakotz pulunpate! Noste dut gerortik

ez den hainitz mugitu erreka ko harri eta belhar txarren artean.

Ordoko egun batez bertze hoinbertzeko edo handiagokoa egin nolen oraino landetako jainkoen kontra ....

Holako eta holatsuko bertze zozokeria batzuen galarazteaz bertze egitekorik badu haatik misionestak. Jainkoak errana da hau: « Hautatu haut erroetik atheratu eta landa dezatan ». Beraz salbaia gaieko horien bikotzetan zerbeiten landatzeko orena ethorria nuen. Hortzez eta hoiginez, kasu nintzen lan horri ... eta urthe bat gabe herri hortan banituen hamabortz girichtino larri: nestatcha bat eta hamalau muthil gazte. Zaharrenak etzituen kogoita bortz urthe oraino: gazteena hamabortzenan zen. Jiol zuen nestatcha horrek izena eta, nahiz deusik etzakuen, aspaldi bat haioaz nahitua zen. Ponangerat ahate aintzinean, han eta hemen frangotan ikubia nuen, eta bethi galde bera egiten zautan: « Nuk ere « Pa-jang » eyagulu nahi banuke, noiz eyagutarazte dautazu »? « Pa-jang » asma-zen duzue nor den: Jainkoa. Nestatcha horri zer emana zion holako gutizia? Ez dakit. Beraz girichtino ona da bethi Jiol ....

Jekota sartu zitzaunkunean Ponanger, jada hiruetan hogoi girichtino banituen: erdiak hil ziren pur pur, Pöuman, emeki bada emeki, hilari ordainak heldu zaizkote. Eta hautuzko ordainak, eiki!

Hemen ez da lasterka aintzinatzerik. Salbaia ez ditazke arriatsetan lauzik ikus, lanetik tebertuak itzuli dirielarik. Irrixa hortzen kasiz geroz ez ditazke arriatsetan lauzik ikus. Nola laster arzi beraz? Hurrengatik bazoazi, .... bazoazi. Haatik Ponangerko girichtino-geuen buruan zerbeit sar-arazteko, zer nahi ikusi nuen. Hango bidea arriatsetan egiteko, ez nintzen hoinitz egon.

Cau beltzean nola itzul Hoxamerat, alabainan? Ez ditazke asma hango bidechkak ... eta noiz nahi euria nuen! Dena dela, oro ahantziak ditut orai. Ahantziak, eta ederki ordainduak dauzkit jainkoak, Haren arthalde itzian ardi batzu gehiago bantue! Okala territz ere nekhatu behar banu ... sori berean!

## Hogoita bortzgarren Kapituluua.

Aita Ferdieren heriotza. — Saigonerat badoa Aita Dou-  
ristouwe. — Aita Besombes saltautan.

Jonango elizadica ezin chutituz ari nin-  
tzelarik Annabneko errebuman gertatu zirenak ez  
deltzazket aiphatu gabe utzi; guretzat ondorio handie-  
giak izatu dituzte, ichiltzeko.

Couranneko itsas-hegian zenbeit dembora egonik, Ri-  
gault de Genouilly itsas-aintzindari famatua Sai-  
gonen sartu zen bere soldadotekin 1859<sup>ko</sup> otsaitan.  
Errabiaren errabiaz girichtinoeri jazarri ziren Ana-  
mitak. Nun-nahi ondolik zabalzketen eta bat atche-  
mater zutenean, esklaboak berak baino garratzkiago  
zerabilkaten beren errebumarat eremanik. Iduri  
zuen iferru guria elizari gerlan tothu zela, behin  
bethekotz lehertzeko. Ez dut haatik gerla hortaz deus  
chehetasunik eman. Guretzat ukhan dituen ondoriren  
galik aiphatzen dut baikarrik. Oro jada sutan zirelarik  
bizkitartean bertze gurietan, Binhdinoko eskualdean  
nikun deus etzen. Hango misionestak irristkurik gabe  
elgar ikus zezaketen eta beren berriak oraino aise hila-  
razten zaurkuten. Baina 1860 garrenean bideak kutsi  
ziren: Binhdinoko eskualdea ere suak hartu zuen. Nihundik ez  
nuen beraz gehiago berririk.

Zenbeit elhabete gerochago, bertze zorizaitz handi batek biho-  
tza hantze zautan arras: Aita Ferdier hil zitautan. Kontranzen  
utzi nuen Koramerat ethorri nintzelarik. Jada arras ahuldua  
zen ordukotz; geroztik egunetik egunerat oraino gehiago tipitea  
zen. Ez dakit zer eritasun zuen: kiraturu zoon, behinere  
halako min handirik gabe. Elzitateka han senda oharu  
zelarik, bertze norapeit joatea galdetu zautan eta berehala  
kitz bat igorri nion Nere Jaun Cuenoti, bere ganat deith zezan  
eta Singahour-eko eskualdean sendatzerat igor. Zorizaitzer  
jaun apherpikuak elzautan berehala kardetsi ... eta gero  
badakizue bideak nola helbi zaurkunen nikorat abiatzeko;  
Banharrin erdian preso ginen.

Elzuen kiltzeak lotzatzen Aita Ferdier eta berehala erori  
zen Jaunkoaren nahi saindu gurietarat. Aski demboraz  
oraino, nahiz elzitatekan nikorat joan gehiago, noizetarik noize-  
rat bere meza ematen ahal zuen. Itzkenekotz hortako ere

etxuen gehiago indarrik. Egunak, asteak eta ilhabeteak etxerik iragan behar, kasik higitu gabe, bizirik helda! Etxeala gehiago demboraz handirik bizitzeko, beharriko etcherat eramanarazi nuen, bizkarrez. Bi aste zuen kan zela, goiz batez erran zautalarik: « Jaunkoa maiteak ni kulturea nahiduenaz garoz, nere guichtinoen artean nahi dut hil. Ereman nezaguz beraz lehenbailehen kontrangerat ».

Kala egun ginuen. Etxen gehiago kezur eta larri baizik. Bidean aste izatu ginuen hil behar zitzaunkela. Ez. Etxeala hil zen, ezti-etzia, 1867 garrenean, Aphiuraren 29.ean. Kan dago kura ere kontrangeko orhanean, Jotep Nguiren aldean, berriki xkitze arte! Eta ni, beharros dokakabea, oraino berri! Nik ekortzi behar nere lagun maiteak, ez naizelakotz on eta guri jaunkoaren aintzinean agertzeko!

Nere mihiak ez du atki hitz saminik hemen errateko zer bikotzmina eman zautan nere azken lagun fantesaren gaitzreak! Segurki bi aphez on banituen nere ondoetan, tita do eta ita bas: bainan ez jaun apkozpikuarekin ez bertze misionestekin berririk ez nezaiken gehiago gurutza, eta erran dutake galdua bezala nintzela! Sor-lekutik hoin urrun, kontseilari bat gabe, adichtiderik gabe, laguntzailerik gabe, salbaikin! Erabat bartzetzeko, ilhumbek argitzeko bakharrik! Bakharrik, ni hoin ttipia, ni hoin ez deusa, ni hoin jakitaterik gabea! Bi, ez ninduen gabeziak lotsatzen ez eta diru eskabak! Ez! Bizkitartean hunat ekharri nituen sorneko hek aspaldi hegate ziren eta jaunkoak daki zer pildak nerabilizkan! Kopata pare bat gelditzen zitzauntan dordoria, eta kura ere joantehea, eta, begiko nima bezala, meza sanduaren emateko begiatzen nituen! Eta gehiago dena, bide guziak helurik, heldurtzeko baitzen behin-behin ez nuela irinik eta arnorik eskuratuko, igandetako mezar kampo bertzerik eman gabe egon behar! Eta arte hortan barkaioak emendatur, baitzoarri, irinik gabe nola egin beharko nuen guichtino berruen Mahain Sandurat hurbilarazteko?

Urrungoek misionestak urrikari dituzte nekhatzen direlakotz, maiz beharria dutelakotz lege. Bada, deus ez dire horiek, jasuteko dituzten bikotzmin eta beldur guichto baitzen aldean. Jainan zer diot? Misionesta egiazki misionest balinbada, gabeziak eta gaineratekoak ez dute lotsatzen: arkarthen eta sustatzen, ba. Heronek frogatua dut hori. Nik bezala egin dute bertze pangok. Bainan mina barnekoa delarik, ilhundura eta desjustua bakharrik den bati heldu zaizkolarik, ah! orduan ikaragarri da! Orduan hamaka aldiz jarri naiz Koxamako ibaiaren ondoan, bertze orduz Israelitak Nabytoneko ibaiaren ondoan bezala eta nigarrez hasi: Capit pavere.

Bi urthe luze iragan nituen nihungo berririk gabe. Bideak bethi setiak ziremarz garoz, lanakien Annamen etxetala beraz oraino guichtinoeri barkatzen. Noizean behinka hango merkatzale eragun batzuek jakinarazten zautedan hango eta hemungo guichtino gaicho batzuen oraino oro elatsi zozkatela, eta larrute eta biphildurik utzi. Bainan merkatari horiek Andersonkoak baitzuen gutxi gheienak, beraz

gorla tokietarik aski urrangoak, ez nituen arras sinhesten  
 ahal. Ber zokaketen guzien buruan? Behin haatik merka-  
 tari horiek berria ekharririk Anamitek gizon huri bizar  
 luze bat preso ereman zutela bere adunaren gatik, beldurte  
 nintzen Nere Jaun Cuenot othe zen bederen. Horia zen,  
 zorrigaitze. Geroztik jakina dut hilaraztakoa zutela, usta  
 gabean heriotzako gaitz tzar batek ereman zuelarik....

† Ankardean soldado eta marinel frantsesak Cochinchina  
 beheira guziaz jabeturik, nahi eta ez baka egina-  
 razi zioten Anamiteri eta hitzemanarazi girichtenoari  
 etziotela gehiago deusik egimen. Misionestak ordutik  
 nun nahi ibil zitazken beren erakastanaren kedatzeke.

Gizon gazte batek ekharri zautkun berri on hori. Pazuen  
 haatik berri tzarrak ere, hala nola jaun aphezpikua  
 presondegian hil zela, misionest frango ere bazela  
 hilik, girichteno hainetaz desterraturik. Eta kolako! Gizon  
 gazte honek erran zautkun oraino nola gorde zen Suizonen  
 heriotzeari espakatzeko bita berrengt, eta, bita saundua  
 bertze bat izendatu arte, kura zela gure buruzagi eta  
 nausia. Hitz bat igorri non berehala chehetatun guzuekin.  
 Demboraren buruan orkoiat nauz galde hau egiten nola:  
 «Nor duzu bita saundu?» Eta bertze hau ere ba: «Ber du Fran-  
 tziako errege edo emperadoreak izena?» Ez dakit nola ez  
 non ere, bertze ordur, Jaule ermitauak San Antoni bezala,  
 galdetu oraino: «Etcheak egiten othe dituzte oraino gizonak?»

Benbit ilhabeteren buruko bertze galte. Batzgarri  
 bat ukhan ginuen. Nihork etzuen bita berrengt horrek baino  
 gai gehiago Nere Jaun Cuenoten kargua hartzeke: «cholera»  
 deitue gaitz ikharagarriak ereman zautkun! Erromatik  
 jada jakinarazi zioten aphezpikutzak kautatu zutela,  
 bainan aphezpiku-titulua gibelat igorria zuen, bere burua  
 tipiegi zautkalakotz kolako kargu baten bethetzeko. Paperak  
 Erromako bidetan... eta bita berrengt jada bertze mun-  
 duan! Ber den gizona!

Ez ginakien gehiago zer egin. Nor zen buruzagi?  
 Nor eman gure berriak? Jakuteko, goiz batez Annameko bidet  
 hartu nuen.

Kamahirur withe barzen salbaetan nintzela. Ez  
 nuen Annameko erresuma ezagutzen. Zantziatik heldu nintze-  
 larik, misionestak etzitarzen gauaz taizik ibil. Egia erran,  
 aldi kuantan ere aski lotia nintzen egunaz ibiltzeko. Ana-  
 mitak segurki hitza emana bazuten baka utziko zautku-  
 tela, hain aise badakite hitzaren jaten! Bertzalde ez  
 nuen paperik eta banakien legearen arabera behar nituela.  
 Dimkidenen nihor ez atakemanik, Suizoni buruz abiatu nin-  
 tzen den berarik galdu gabe. Bainan urez joan behar bainuen,  
 unty baten beha gelditu nintzen giako ondoan. Anamita  
 gazte batek berri on bat ekharri zautkan harat: Giako por-  
 turat misionest bat ethorri zela. Bita Besombes zen. Bi jauzi  
 joan nintzen porturat eta nere lagun berria gochoki besorkatu.  
 Bita Verdier hiler gerortik, begitarte churrik ez nuen nihun  
 ikusi. Eta badakizue? Bita Besombes frantsesak elkeketa kati  
 eta ez nion aise ikardetsi: frantsesean harrotzen hasia  
 nintzen zinez! Biri frango eginarazi nion. Nere gamat heldu

zen Bankarren elizadietarat, bainan ez baitzauzkidan nahi nituen chehetasun guziak ematen ahal izan, bere bidetan utzi nuen eta nereari jarraitu: in Arhal bezon laster itzuliko naiz haatik, eta hainbertze herritarrez Saigonen ikusteko atseginak ez daut ahantzgaraziko nere egimbidea (Bankorreten dela!).

Saigonen aduritu zitzautean Frantzean beren nintzela. Untzi hek ikusi nituelarik soldado eta marinela frantzesez betheak, karrika luze edo betan sartu nintzelarik, guziz kango eliza churi eta ederreten kantu batzu aditu nituelarik eta eliza horietako meza eta elizkizun paregabeak entzun, choratu nintzen eta uste izan nuen amets luze batetik atkeratzen nintzela. Nagarrak jauzi zautzidan. Bainan Saigonenko choramenduek etzautedan burua jalarazi kalere eta ikasteko nituenak ikasi orduko, egiteko nituenak egin orduko, begiak eta bihotza laster nere Bankar maitetarat itzuli nituen! Dierkala nahiko nuen abiatu, bainan Nere Jaun Sefebvre, (Chinchina beherko jaun aphezpikuak nere osasunaren gatik zenbeit egun egonarazi ninduen. Jausatuek nintzelarik eta berritz joatea deliberratu, egundaino bezala bertze zerbeitok gibelatu ninduen, eta arte hortan Pindinoko eskualdean sekulako nahasmenduak jauzi ziren.

Kuna zertako. Bita Besombes bere paperekin zen eta nihorik etzertoken deusik egin. Chichpa batzu Salbustarat bazeramatzan: horien ageria ere bazuen. Bainan nola nihor ez baitzen fida Huko erregeak eginon zuenaz, orok hitz baten jateko gei baitzaukaten, Bita Besombes, gu behin aldan bezala, gauaz eta gordeka ibilki zen. Bera mugazaineri aise espakatu zen eta Bankarretarat heldu. Bainan horra nun mugazainek delako chichpak atchematen dituzten. Egunen bertzerik behar eta nahi kan gaundiko aintzindaruek behar batzuek oihuka eta jalapartaka berritz girichtinoeri jarartzeke. Gaicho girichtinoak! Doidoria desterrutik itzulerik, beren egartzen chititzzen eta antolatzen hastenat joazin!

Horiek aditurik, Bita Besombes chuchen-chuchena prefetari joan zitzaion haatik, eta, paper guziak estuan, bere chichpak galdetu. Hainbertzenarekin aintzindari handi bat harat ethoririk, oro antolatu ziren eta zerla hori phitzarazi zutenek beren karquak galdu zituzten. Jada erran baitugu frangotan jaunkoak bethi badakuela gaizkitik ongiaren atteratzen, hala egin zuen aldi hontan ere: Huko erregeak ordu arte behinere ez baitzuen gutaz mintzatzen aditua eta haron skharan biri baigonen, Bankarren eskualdetako elizadi guziri bere baimena eman zioten, eta misioneroi behar zituzten paper guziak iporri karat. hunat ibiltzeke.

Saigonetik ez nintzen mugitua, ni, dembora hortan. Kang Erretorgoa emana zautan Nere Jaun Sefebvre. Sei ilhabeten buruan hartu nuen bakharrik etcheko bidea.

Ez dakit zembat herritar eta adichkide kausitu esk ikusi nuen Saigonen. Hainitz. Eta batzu bertzeak baino maitagarriago! Bihotzak zureke bat egin zautan beraz eta begi bat busti, agur erraterat joan nitzaotelarik larro terro. Ez dut ere sekulan ahantziko zoin onak izan ziren neretzat bai Carmeseko bai Jondoni Pauloren berora

maiteak. Saigoneko girokhtinoek ere gogotik atchekako omen  
 ninduten segurki! Paman ez nintzen hangoa eta untzia hartu  
 nuen joateko. Saigoneko auzapateza eta hango fauna eta gehiena  
 untzuraino ethorri zitzautean, azken agur baten erraterat. Bi, zer  
 jende onak! Hoinbertze atchi kimerenduk nola unkitu  
 ninduen! Dinkhdinen fita Besombes nere beha zagon. Elgar-  
 rekin egin ginuen handik goitikako bidea ....

## Mogoita seigarren Kapituluua.

### Pikota.

Bake osoan bizi zen gure elizadiala. Jaganook etzuten gehiago trufarik ez bertzerik egiten girichtinoen eta arthaldea bethi handituz joan, eta ni, ni lehen kalako ihunaldiak nituena, orai irriz eta kantuz ari nintzen ardura! Pikotz guzia loraiz bethea mundagon, egundaino ukhan dugun zigornaldirik ikaragarriena gainkoak eman zaukularik. Bdi urthoz pikotak erkaute gintuen, eta girichtinoetan hiruetarik bat hil zitzaunkun. Pikota zer den salbaiek etzakuten ordu arte, salbu chakar-chakar zenbeitak beren kaurrean aiphatzen aditurik. Izzenak berak lotsatzen zituen chakar hauk. Korigaitzez, itchura guzien arabera girichtinoek eKharri zaukuten pikota! Huna nola.

Girichtino bat behararekin borroka ari zen Antonen eta lotsatu zen, han egonen zeno urthoak etzituela aise gurutzatuko. Bere etchekoekin guri buruz abatu zen. Ondikoz, bidean zerbeit gisaz pikotak hartu zuen eta Pohaien bita Doren zerbitzari guziak ohartgabean kutsatu zituen eri dohakabeak. Cochinchinarat joana zen bita de, hain chuchen. Baina aski kurbil bazen bertze misionast bat eta kel egin zuten. Eritasunaren berri jakin zuteneko, salbaiak arrunt lotsatu ziren inguru guzietan eta komkomeko girichtinoek berek etzuten gehiago gurutzatu nahi zohaietokoskin. Kanabera punta zorroztuak bi herrien artean landatu zituzten-eta!

Nihori etzizaion haize zohaietokos erien ikusterat joate. Apherzari berari debekatua zitzaion. Baina bazakien apherzak artzain onak bere ardentziaz hil behar duela eta huna nola jokatu zen, eritasuna Pohaien tokiala zeno. Potovinetarik laster ageri baitzen eri balek laster hil behar zuen ala ez, bat hiltzerat goala kusi orduko, norbeit lasterka kanabera-punta artez-arte, bitaren bita joaten zen, gauak gauari. Piharamun gorjeko eri gaichoak sakramendu guziak hartuak zituen eta argia gabe, bita bertiz etchean zen. Eta nihor etzen ohartu! Heronek gero eta gero ikasiak ditut koriek.....

zenbeit astez pikota Pohaien egon zen, baina gero fama hedatzen hasi zen han eta hemen ere ageritzen hasi zela. Ezkenekotz orotaratz hedatu zen, Ez ditake erra mundua nola lotsatu zen! Ezen gehiago ez ahai-

degorik ez adickidantzarik: eri etzena ibesi zoan ahal  
 bezen laster eta ahal bezera urrun, oihan zokhoetaraino,  
 han zuhartz erro eta behar tzarrez biziko bazen ere. Eriak,  
 bakharrak ari behar zuen gaitzarekin borroka. Gose eta  
 egarriak, bertzalde! Baziren sukhararekin ezin egonez,  
 urerak jauzi egiten zutenak fustkatzeke eta han itxotzen,  
 indarrek utzirik. Helak ere nun-nahi atcheman zitazken,  
 bidetan, oihanetan, landetan, baso-gathu eta abere gaieho  
 batzuek jada erdi irelziak! Herrietan kiltzen zirenak han  
 berean usteldu behar zuten, nikor ez baitzen chorteko.  
 Ez da beraz harritzeke gaitza zabalitzen ari bazen egunetik  
 egunerat.

Koxamen nintzen orduan. Gaitza etritzaukun berehala agertu.  
 Inguruako herri guzjak jada erdi hustiak gaitzaren gatik eta gu  
 oraino oro senda! Gau balez atkea ja zautan norbeitik eta  
 lehorat erran: «Aita, eri bat badugu etxean, zate laster  
 ikusterat. Ez dakigu ez othe duen pikota!» mandatariori  
 jarraiki nitzaien berehala, eta eria ikusi orduko ez nuen  
 dudarik ukhan: pikota zuen. Ez noten etchekeri gorde hala  
 zuela. Harritu ziren. Oro herari ematerat zozain berehala,  
 neronek gelditu ez banitu: «Norat nahi duzue joan? Jankook  
 nahi gaitu frogatu: benedikta dezagun Heren izen taundua!  
 Bainan gurichtinoek ez dute, paganoek bezala, elgar utzi  
 eta ukatu behar. Herri guzia neronek bitduko dut bihar  
 eta elgarrekin orok ikusiko dugu zer egin. Ordu arte, ez  
 lota!» Eta berehala etche hartako sendoak eta nere meneko  
 Anamitak igorri nituen oihanerat etchola handi baten  
 argiko egiteko. Gero, nikor ohartu gabe, eria harat ereman  
 ginuen. Bonamitek etzuten irriskurik, pikota orok ukhana  
 baitzuten haurrean: ez-eta nik, ezon bizpahirur aldiz bederen  
 chortatua izana naiz.

Erran bezala, biharamunean herri guzia bit-arazi nuen  
 herriko etcherat eta egia ikaragarria salatu nitzen: «Dai-  
 nan, haur marreak, zer nahi gerta dardien, gauden elgarrekin.  
 Gurichtinoek zerbeit badugu kiltzeak baino gehiago  
 lotatu behar gaituena, hura da arkezik eta sakramen-  
 duak gabe kiltzea. Eta bakhotcha bere alde joiten bada,  
 ni ez naiz orotarot kiltzen ahalke!» Drok batean ihardatu  
 zautedan: «Ez, Aita, ez dugu iketi joan nahi. Kiltzekatz,  
 zure ondoan nahi dugu hil!»

+ Etsen guti horren ardi-stea. Bertze etchola batzu egina-  
 razi niokaten, nikor eritzen bazen ere. Echen eria hura  
 sendatu eta ongi sendatu arte, nere Anamitak eta ni  
 bazrik, nikor etzitzaien kurbildu. Bertzerik etsen demora  
 hortan eritu eta orok uste ginuen Koxam salbu zela. Bai-  
 nan ariera pozonatu zuten eta pikota oihan zokhoetaraino  
 heldua. Koxam ere hartu zuen beraz eta ederki zapratu.  
 Nik errana bazrik etzuten egin halere Koxamarrek. Norbeit  
 eritu orduko, oihaneko etcholetarat erematen zuten be-  
 rehala, han arthatzeko. Eri handienak berech han ere. Haur  
 ikusten nituen marjenik, gorphutzak bezala arimak artha-  
 tzeke.

Bi, oihan zokho hartako ikaragarrikeria! Etzuten gehiago  
 guzonak iduri eriek. Edean ukhurtua, alde guzietarat

zoakioten ustelduraren erdian belhauniko hainitzetan,  
 arken sakramenduen ematen hasten nitzaioetarrek, oho  
 saunduak ez zikhintzeko, erriak chukate behar nituen  
 aldi guziz. Ker bihotza behar den holakoetan goitika ez  
 hasteko! Ehen aldietan bihotzak gaurdi egri zautala ez  
 dut gordetako. Geroztik barnea egin zautan haatik! Ehor-  
 tzetek ez ninduten batere gutiago lotratzen, herritik  
 nikor ez baitzen harzu hilari jarraituzerat.....  
 Hala hala, zer atseginak ere ez nituen! Gucho erick lain  
 ongi hartzen zituzten beren gaitz, eta kerretzek nun  
 uste baitut oro Jainkoarekin direla zeruan! Oraino pagano  
 zirenak, bakar batzu saltu, oro bathaite nituen, ematen  
 ginozkaten artha onek unkiturik. Di, Jainkoa zain ona  
 den! Hainitz eriarazi du... salbatzeko! « Felix calamitas »,  
 oihu egin dezaket beraz nik ere, guzjen gaitz: pikota  
 etborri ez balitzauku, hainitz eta hainitz beren ilhun-  
 petan egonen ziren!

Iduri Luke ikusi ginuenean gaitza ez ginezakela geldi bere  
 bidetan, ez guntuela baturpada eriak zokko hartaraz er-  
 man beharke. Baiman ez nintzen airerat ari. Jaganok  
 etzuten guk bezala egin beren herrietan, eta pikota hainitz  
 lasterrago hedatu zitzaioen. Oro hasik batean eritu  
 ziren eta kampo lanak nikundik etzitzuten hortakotz egi-  
 ten ahal izan. Pikotaren ondotik gosetzek atcheman  
 zituen beraz. Guk aldiz eriak arthate gutien, eta kampo  
 lan guziak egin, hainbertze eri ez ginelakotz batean, eta  
 gero selhauruak bethi bezala bethi ziren.

Eta bita besombes nere lagun berria zer ari othe zer dem-  
 bora hortan? Nola ez dutan aiphate zaudete segurki?  
 bertako? Dera eritu zaukulakotz. Etzuen haatik pikotak  
 hartu, bigetan bederen chertatua izana batzen, baiman  
 oihanetako sukharrak. Ehen itabetean ederki ihar-  
 doki zuen eta loruetan erratan zautan: « Ikusiko duzu  
 ni ez naizela erituko! Ez dut egundaino ora beren bat  
 indar ukhan! » — « Hobe, adichidea, hobe, baiman etzazu  
 lasterragi egin kukuruku: badakit hemengo berri! »

Eta egiazki gaitzak etzuen ordu arte hartu, gero azharki-  
 ago hartzeko bairzik. Sukharrez bertzalde, kazterua zikhin  
 bat ukhan zuen: bai eta barneko gaurdura batzu. Bai-  
 nak hala nil zitzaizkon nun deusetako kalapurik ez  
 batzuen gehiago. Erran ditake beraz, guzjen buruan  
 pikota dembora hartan nik baine gehiago ikusi zuela...

Jada errana dut eta territz erran nahi: hemen  
 gaurdi bada nautien naut bat, sukharra. Nuhork ez dio  
 buru egiten ahal. Salbaiak berak noizean tehinka harhan ditu,  
 baiman kempotar bati ez dio barkatzen. Gutiz gehienak  
 hobiat erematen ditu. Sendatzen direnak ongi eta ongi  
 ahuldu eta zebaturik uzten ditu. Eta utziko! Hau ongi jakin  
 dezatela gure ondokiek. Ez diotet lotatzeko erratan: misio-  
 nesta deutek ez du lotatzen, baiman ez diten lotza! Mi-  
 sionest garze batek hunat ethortzen bade amets bat: mar-  
 turgoaena. Hemen badute marturgoaen mentura. Ker  
 diot mentura? Segurantz badeute, segurantz. Baiman  
 marturigo hori ez da nahi luketen su, argi eta odolareki-



## Hogoita zazpigarren Kapituluua.

Gau latzgarri bat. — Jaunkoa gure alde.

Gutik egin zuen pikotak ez bazuen beste gin misionesten lan guzua. Solas horri lotu gabe, bertze ichtorio bat nahi dautzuet haatik kondatu, ikus dezazuen Jaunkoak nola laguntzen gintuen segurki. Gisa hortan, kein batean bederen, gure Jaunkoaren alde. rako zorra tiputuko dugu ....

Pikota hasi baino urte bat lehenago, zenbet ko xamar makurtu ziren hauek batzuekin eta kolekko herriak joan egoterat. Kolek hamarbat aneurkin edo kilometretan da. Harpi joan ziren denetarat: bortz pagano eta bi gerichtino. Bertze hirur ere baziren haatik katichiman ibiliak. Pikota etxean sartu zitzaiozelarik lotsatu ziren eta beldurte ifernurat joan beharko zutela. Elgarrekin mintzaturik, muthiko gazte bat etxerri zautan bitxa, izendi uretan. Eguerdi zen. Antzineko gaur suharrarekin iragana bainuen neronek, elzama nindagon. Euria ari zen bertzalde parrapatat, eta ibaiak jada handituak ziren. Panakien bertzalde arratsari buruz suharrak berrituz hartuko ninduela. Bainan kiruri bathaioaren antzinean etzen suharrak ez bertzerik; chutitu nintzen berehala eta abiatu. Koscamelik kolekrat joateko ez da lur biderik oren erdi bater: nahi eta ez uruz joan behar. Di tnamita hartu nituen, antziska batean eremateko. Eur biderat heldu ginelarik koxamerat itzularazi nituen, ongi eta ongi erranik ilhuntzeko toki bererat ethortzeko, suharrak han hartzerat itzi gabe, eta oinez jarraiki nitzaion nere mandataru gazteari.

Eren etxean sartzean kalako usainak sudur guzua bethe zautan nun alditchartzer bainintzen. Gu gaiehoen loria berehala phiztu ninduen haatik. Di oren iragan nituen kan, eta beharrenek erreplikaturik, hirur bathaio egin nituen. Husi bazinute etche hartako zoriona! Huna zer erran zautan emazte gazte batek: «*Ita orai kil naitke bederen! Ez dut deusen gutziarik gehiago lurrean!*» Gaiehoa! Jaunkoak abitu zuen eta ondoko gauean berean deitxu. Eta segur haren gorputza ondoko egunetan ez bazitaken usteldura meta bat bazik, arima zeruan zen bederen bathaioke garbitadun eta distiraduran! Bertze bigek gazte garbaitu zuten eta ez dute segurki ahantzia Jaunkoaren dokaina.

Bainan iguzkia aplatzen hasia zen eta etcherat  
 itzuli behar nuen. Gorteko muthiko gazte bera jolari,  
 ur hegian buruz taka taka abiatu nintzen. Ondikotz,  
 etchetik ehun urhatsen buruko korra nun hasten  
 zaukun ortzia karraskan! Nere laguna igorri nuen  
 gibelat, **bakharrik** ere bidea egiten nuela.  
 Sobera atsegin ukhana nuen arratsalde hartan. Jain-  
 koarekin zorretan nintzen beraz. Eurria hazi zuen  
 jauts-ahalala ... eta ur hegian nere gizonik nikun ez  
 ageri! Deha egonik, koxamerat itzuliak ziren, holako  
 demborarekin eta orri segurki ez nintzela kamporat  
 menturatuko. **Hotz** ikaririk pido hasiak nituen. Dada,  
 handik koxamerat bada kizue ez nuela tur bedarik.  
 Etsen abale guzietarik hazi beltza baizik. Eta korra nun  
 urak atheratzen diren karraskan, zuhaitz eta oro  
 errotik atheraturik berentzen ereman nahi balituzte  
 bezala! Gaua, gau lodi bat ethorri zen hainbertzena-  
 rekin ... eta ni bethi kan! Kan, eri eta atherberik  
 gabe! Ker egun? Othortz kartsuena jainko maiteari bi-  
 hotzaren erdi-erdetik esthaini-eta, makhil bat pikatu  
 nuen sarian eta abiatu. Abiatu norapet. Ondikotz,  
 mendetik beherik karraskan ethorurik, ur tzar batek  
 nere bidea hautu zautan! <sup>okel</sup> Etzuen iduri kalako urik  
 bazela: sartu nintzen. Iselhaunetaraino nuen doindia,  
 bainan kalako indarra eta oldarra zuen nun, oharu  
 gabe, laur hatzez goia kan-karat eremana bainin-  
 duen! Beharrik jaunkoak ez ninduen utzi! Haintzonde  
 baten ondoan <sup>viagaitan</sup>, adur batzueri artaparka tolu  
 nintzen, chutitu eta uretik ahal nuen bezala atheratu.  
 Erreka bi urhatsetan zoakidan karraska gornian. Kan  
 sartu banintz, nereak egun zuen ... mviakuitu batez  
 kampo.

Labertua, lohiaren erdian jarri nintzen den guteneko  
 bat nerebaitaratu arte. **Hotz**aren hotzez sua nuen gor-  
 phutz guzian. Bainan sukharriaren gaur erretaren  
 bertzaldorat joanez baizik ez nezakela leu egun ikusi-  
 rik, chutitu nintzen beurriz. Kan berean etzen bertzal-  
 derat viagaterik. Gorachago erreka herlichago zitakala,  
 beraz viagan errechago, gibelat itzuli nintzen han-ke-  
 menka galtza eta atheta pluska ederrik utziz. Bainan  
 leu guti dire horiek, gaineratekoen aldean. Halere, nere  
 erreka tzarra viagan nuen arkenecan ... si oren handiz  
 hirur kilometra ttipi egun ondoan! Hamenka orenak  
 bezala ziren. Harzea eta eurria gelditu ziren hainber-  
 tzemarekin. **Thuna** bethi bardin lodi zen haatik. **Di**  
 urhatsen nuen **belz** zerbeste turbidurik, onzi karlatu  
 nuen eta ikusi zuhaitz lodi bat zela turretik bi metretan  
 bi aldetarat zabalitzen zena. Chutik ez nindagoken ge-  
 huago. Zuhaitzerat igan nintzen beraz, hortzak ederki  
 tinkatu, eta ichtapeka eman. **Han** pausatze nintzen,  
 amets batzu bezala egun hartako urhats eta gertakariak  
 gogoan nerabilz kala. Bainan errazue? Hirur lagunen  
 bathaiatzak ez othe du hainbertze bako? Hala heldu

zautan bederen gogorat nere zaldi gogorriaren gainean: « Ni  
zer naz? Deus, etabaino gutiago, bainan gaur bederen erran  
dezaket egiazki misionest narzela! Jainko maitea, azkenean  
urru kaldu zitzauzkit, ezen gau hontan zukaiz baten gau-  
nean egin behar badut lo, zure amodioak hortaratu nauela  
erraten ahal dut! » Ez dut uste ohantze kura munduko tro-  
nunik ederrenarenzat trukatuko nuen orduntzeko....

Gau guzia kan iragaita hobe nuela nindagon, kotza  
sartzen nahi zitzaientalarik. Kan egotea, hiltzea zen. Jain-  
koak badakiela oharnean ere bere misionestaren zaintzen  
belharrez, belhar, sabiz, sasi abiatu nintzen eta joan, joan,  
joan bethi, azkenean landa irrisa batetarat heldu arte.  
Baintzalearen etchola gogorat ethorrik, eskumi eta  
ezker bithatu nuen, eta noizpeit atchemanik, sartu:  
« Orai banu su ttipi bat, idortzeko bederen! » Etlabainan  
duen kura behinere etzais aski gizonari! Egia erran,  
sukhar harekin eta laruraino bustia, ez da harritzeko  
nik sua gutziaturik ere! Nola egin ordian surik? Hare-  
kin? Hain chuchen horra nuz su phizteko dobakabe bat  
jarpan atchematen dutan. Ez gero, biga: bat, bat bakarra,  
dena ere bustia! Kharan iraganarazi nuen harri baten  
kontria.... eta phiztu. Jainkoak kala nahi duenean, oro  
alde paitei zautzkitzu: horra froga. Her sua egin nuen!  
Ez dut uste gau onder turra nik baino justuanago iragan  
zuen gizonik badela munduan, jainkoari oihuka in koin  
ona zaren! zoin ona zaren! eta zoin ona zaren! »

¶ Ondoko egunetan kaatik, nahi banuen eta ez, nere  
ohean luze-luzea egon behar ezate nuen, bi bitharrik  
hartuak eta hatsa korrokan. Ez da behinere deustar  
esphantuka ari behar. Nik uste bainuen bulharrik gaitz  
guziak baino azkarrago nituela, horra! Behin hiltzerat  
nindoala heldiurik, ez non nahi baino lasterrago  
nere bekaturen barkamendua emanarazi Aita Desombesi,  
eta harek barkamenduzko kitzak tururatu gabe, jada  
ezagutzarik gabe nintzen. Gaua hasterat joan. Behara-  
munean nerebaitaratu nintzelarik, badakizue zer ikasi  
nuen? Odoadura foundua bera ukhana nuela, orok nitaz  
etsiturik! Bainan ole suinduarrekin Aita Desombesk  
nere zangoak unkitu zitueneko, bera alditxartu zen eta  
zabal-fabala lurrerat erori! Herri guzia gure alderat  
bildu omen zen berehala, ni gar marraskaz oro! Uste dut  
norbeitik gure chortzetak ere althatu zituen. Bainan Jain-  
koak ez gutuen oraino nahi. Sendatu nintzen: Aita De-  
sombesk ere, ba. Behinere etzela kaatik arras ongituko, nere  
jain Charbonner gure aphezpiku berriak (Echinchinarat  
deutu zuen. Pidea ahal zuen bezala egin zuen nere lagun  
gaichoak, noiz-nahi hiltzeko iruskuen. Aphezpikutegian  
urthe batez ukhan zituen artho onek kobekitu zuten habere  
... eta oraino ikusiko duzue banharrekin borroka....

Bainan ez othe da ordu jainkoak gure elizadi  
berri maiteari igorri ziozkan frogantz a kharragarriak  
aupha delzadlan azkenean? Ba nahi.  
Jada errana dut girichtino batek ekarri zaukula pikota,

etxura guzien arabera. Jada baginuen hortakotz, mehatxua  
frango aditurik eskuin eta ezker. Jainkoak bere gaztegia eman  
zion haatik, gehien-gehienik gure kontra mintzatu zen doha-  
kabeari: etxeko guzja hustu zion, lau anaia eta hainbat azken  
kaureraino, Bera barne.

Debuak dohakabe horri ordainak atxeman ziotzan hahre  
gure kontra gerla hasteko edo hat-arazteko. Etsaiak ez ginuen  
aldeko herrietan. Bi egunen bidean bilhatu zuten beraz:  
Lodangetarrak. Hauen chede gaichtoak aski laster beharri-  
taratu zitzaizkion, bainan ez noiz jazarri beharrek gintuen.  
Horra zertako egun eta gau ikharan ginauden. Damurik!

Hirur aldez abiatu ziren guri buruz. Dokaiako eli-  
zadia zuten gehienik begietan eta lehen chedetan, terri-  
hortaz jabetuz geruz, gaineratekoaz aise jabetuko zirela,  
inguru herriak ez baitziren segurki gure alde agertu nahi,  
kontra ez izanagatik. Lehen aldian lau ehun Lodangetar  
baziren jada bidean, hegaztinak kontrako aldeak hasi  
zitzaizkotelarik kantuz eta gibelat eginarazi.

Digarren aldian, oraino gertari gehiago bidea zen  
eta bideari lotu. Hastean hegaztinak alde agerturik,  
airean Dokaiako ondoraino hurbildu ziren. Han baze jalku  
batek bidea pikatu zuten haatik. Bate-gathu bat bidean,  
zer jainkoen mehatxua! Berruz ere ukho egin zuten....

Hirugarrenean, bertz ehunaz goiti baziren. Hi-  
tzartua zuten traba guzien gatik bururat helduko zirela, eta  
guzuz, Dokaiako ondo-ondoraino heldu ziren. Hain chuchen  
salbu bizpahirur atxeko chakar eta zenbeit haur, Dokaitar  
guziak orkanean ziren, egortza berrien egitea ari. Etsaiak  
etzuen beraz hainitz irris katuko Dokaien sartu balitz: oro  
suntutzen ahalko zuten nahi-nahirat. Bainan jainkoa  
etzagon lo aldi hontan ere eta berruz salbatu gintuen.

Oren erdi baten bidean ziren Lodangetar gerturik,  
gure elefantetarik bat, orkanean alkan bilirik, bidearen  
erdian tente eman zitzaizkotelarik. Elhargi bafada batek  
oro argiturik hainbertz emarekin, etsaieri odolala berrakala  
hortu zuten zainetan.... elefant harrak, eta etziren nahi  
baino lasterrago beren etxetarat heldu, zin egirik zirik-  
tinoak hilen zituela nahi zuenak: ez, tek!..!!!

Hapdik zenbeit egunen buruan mezua igorri zaututen  
etzirela gehiago haserre eta adichkidetu nahi zutela: "Egiz  
nahi ginautzeon gerla etzen zuzena, gure jainkoak hirur  
aldiz trabak igorri dauzkutemaz geruz!"

Jainkoak lagundu gintuen oraino. Bethi barden urrikal  
dakigula....

## Hogoita zortzigarren Kapituluia

Aita Pesombes, ederki lanean hasi orduko, tultzen da

Kasik gure girichtinoen erdia galdu ginuen pikotarekin, eta zorigaitzez, Kozamen bederen hoberen hoberenak. Pikota etkorri aintzinean erran ditake girichtinoek egiten zutela Kozamen legea. Jagonoek deusetan etzioten buru egiten behinere eta finka ditake kasik herri hori arras girichtinotua zela, pagano bakhar-bakhar batzuekin. Nola, bertzalde, herriko buruzagiek deus ez baitzuten hasten misionestari bere baumena galdatu eta baizik, sekulan etzen makturrik. Herriko buruzagi on horietarik bat baizik etzen kaatik gehiago bigi: Hemur. Ondikotz, zahartzen hasia hau ore! Eziolago beraz, gehiago haubertze behatzen. Hemen gaindi nauki izateko, ez da indarria eta bihotza bezalakorik, eta bigak galtzen dire adinarekin. Gairo Hemur!

Hau ere aithortu behar dut: paganoetan bakhar batzu baxrien ordaino gure erakaspenari aski begi gaichtoz behatzen zutenak. Bentzinean gordatzen bazuten, kopeta altchatzen hasi zuten girichtinoak gutitzean. Elhea zorachago zuten; jada eztabaidea batzuetan zuzen kontra ibiliak! Eta horria nun Kozamen lauro herri batekun makurtzen den. Pagano eta girichtino, orori erran ginisten bere kala zer zuten egiteko, zuzenki ibili nahi bazuten. Ez gintuzten entzun. Ez gintuzten entzun, diot, eron biga baginen hola mintzatzeko: Aita Pesombes berriaz nerakin nuen. Begiak argitu zitzaizkion orduan eta ikusi ginuen gure elizadiari erroak eginarazteko, bertze lur batean landatu behar ginuela, edo bertze gisa batetarat bederen.

Hastene pagano herrien erdi-erdian egiten gintuen gure etcheak. Ez ginezaken bertzela egin, egia erran. Hala girichtino berriak irritku gurien erdian ziren kaatik. Horietarik urruntzako, norapit herriaz kampo ereman behar gintuen beraz. Hala deliberatu ginuen. Bakhoteha gure alde lanean hasi ginen, toki hobereetan. Ez ginuen dudarik salbaisk, gure landa ederrak kurti-eta, emeki-emeki gularik hurbildu nahiko zutela: aski ginuen orduan guk eman legeak onhartu nahi zituztenak baizik ez hurbiltzerat uztea! "Hartatu gaichto gure herrietarik urruntzako kalte zenbeit balinbadu mementoan! Hala-hala hemen bizitzea baino ez othe dugu hobe bertze zenbeit erroak ongi egitea?" Hemen gaindi lurra ez da nihorena. Bakhotehat nahi duena eta on iduritzen zaiona hartzea eta atchi-

kitzea aski. Ez ginuen beraz, beldurrik norbeitik kontra  
egin zezan kauso herritarik. Halere eskuak bethe ginioz-  
katen, lanean hasi gabe, seguragoz. Girichtino batzuekin  
joan ginene, bakhotecha gure alde, jarraiki nahi etzazki-  
gunak aphez anamit balen eskuetan utzirik. Hauiekin  
aise gurutzatzeko, ez ginene urrunegi joan. Eta lotu  
ginen lanari, pozak eta emak. Prounan Aita Desombesen  
lanak aipha delzagun lehenik.

Tolangetako elizadia suntsituecha zen pikotarekin. Hil  
etjoren girichtino baklarrak eskuin eta ezker joaitako bez-  
peran ziren Hadrongetarren beldurrez. Aita Desombes  
galdelzerat joan zitzaioien eia nahi zuten herri bat egin  
harakin. Fouetz, gogotik. Bainan guziak ongi ad delzaguen,  
hitz bat erran behar dut Hadrongetarrez.

Motongetako hegoaldean badire lehenik zelhai handi  
batzu, gero mendichka berro bat, eta gibelean aran edre  
eta aberatsenak. Haratago, mendi handi bat, luze-luzea  
mendelera doana. Mendi horren mazelan dagozi,  
Motongetik bi egunen bidan bezala, delako Hadrongetarrak.  
Gerla arras maite dute eta txarrak dire. Lurrak hobere-  
netarik baitatuza eta ibil-errechak, emazterei egina-  
rarten diozkate lanak, berak Danharren kitzika-  
tzerat joaitako. Holako itzuli bakhotechan esklabo bat  
edo bertze erematen dute hemendik berentzat edo Sas-  
tarreri saltzeko. Gu hunat ethorri, gerortik ere, eskualde  
hartan ehun bat herri bada gutenetik Hadrongetarren  
lotsaz husturik. Eta orai horra eskualde bat osoa, hain  
ibil-errecha itakelarik, larre doana! Hadrongetarren  
izen bera aiphatzea aski zaiote hemen gaindikiko haur-  
reri ikhara paizarazteko.

Aita Desombes ibili zen oihanaz oihan Tolangetik Ha-  
drongetarren herruraino nun atchemanen zuen lur  
hoberena eta herri baten egiteko egokiena. Han elizadi  
bat egin-eta, Hadrongetarrak etjivela alde huntarat  
gehiago abiatuko egiten zuen. Guk geronek ez dugu salbai  
horuen beldurrik. Ez daukute egundaino minik ez kallerik  
egin: berak lotsatuko dire gutarik tipienari zimiko baten  
egiteko ere. Bainan gure meneko guzoran gu bezen ake  
itz othe etzazkete oihanetan, bat edo bertze preso ereman  
gabe, etzakitelakoan gure meneko zirela? Hori ez gniakien  
oraino, bainan Aita Desombes fida zen haren kopelak Ha-  
drongetar txarrenak lotsatuko zituela eta bide chuchenean  
atohikiko. Pere lagunekin hitzartu zuen beraz bera joanen  
zela lehenik hautatu tokerat eta landa bat ederra eginen  
langile batzuekin, uztaeren mementoan makhurrik ez hazen,  
Tolangetar guziak joanarazteko.

Artean errateko, Aita Desombes bezalako gizon bhotz dun guti  
da: deusek etzion burua galarazten. Etzakien kechatzea zer  
den irriske handienetan ere. Iduri zuen-eta kasik irris-  
kua etjivela ikusten! Huna zerbeit Aita Desombes elke  
guziak baine hobeki ezagutaraziko daubzuelena. Cochinchina  
nan bizi zen orduan. Gau batz, heldu zairko baba-gathu  
handi bat badela etake inguruan. Hartzen du bere chickpa  
eta kamporat badoa. Harid bi argi sabian: bata-gathuaren

begiak. Chuchen-chuchena ladao bi wihatsetarano eta tiro batez, zabal-zabala, marruma bat eginarazi gabe, sasion etzaten du basa-gathua. Bertze kolatuako zer-nahi erraten zuten hartaz, ongi ezagutu zutenek. Horra zertako salbaiek nahiago zuten hari fidatu armada oso bati baino. Horra ere zertako hain aise onhartu zuten harekin herri-baten altzaltzea, hadrongetarren bide-bidean izanagatik...  
... bera lehenik hastekotan lanean!

1866garren urtearean ondarrean ginen, hola bakhotchak gure alde hartu ginuelarik. Dolangerat Joan zen lehenik eta handik oihanerat. Bita Paoren beharrik etzen beraz gehiago Dolangen: Koxamerat igorri nuen, hango lanaren egiteko. Bita Besombes etzen bakharrrik Joan toki berriat; hamazazpi edo hemezortzi lagun ereman zituen berkin. Haularik sei. Anamitak; bertze guztiak salbaiek, ezkongde eta ezkongei. Oro, ordu arte. Atoren muthel eta zerbitzari zirenak. Etzoazun urrun: dordoa orentse baten bidarat. Paiman sobera zen hori bera goizean eta arratscan egiteko: bitak berehala etchola handi bat eginarazi zioten beraz han egoteko alderat eta etziren ondoan beriz hasi oihanaren errotik atheratzin landaren egiteko eta irrisaren eraiteko.

Erran gabe doa holakoetan bethi lehen lanak direla bortitzinak eta Bita Besombes etzen hainitz jostatu lehen egunetan, tenbeit ahuntz baintuan Annametik ukhanak, bizpahirur igorri niozkam. Hola, esne chorta bat bederen barukeen, hasteko, baiman basa-gathu tatak ebatsi ziozkam. Haldi bat ere banion emana Dolangerat ibiltzeko: kura ere ebatsi zion basa-gathu berak edo bertze tatak. Haldirik gabe etzen Dolangerat paaterik eta gauak han iragan behar zituen nahi eta ez. Sangileak hain lotse ziren Hadrongetarrentzak, berak urteko!

Eta egia erran, gaichock bazuten Hadrongetarrentzat lotsatzeko arrazoina frango. Dehin, Bita Besombes nrapert bartzeturik kanabera landare batzuen bitza edo ibizi zerbeitin ondotik, Hadrongetarriak ustegabea gainerat ethorri zitzaizkoten langileeri eta nekatcha bat ebatsi zioten. Bita itzuli zelarik, oro nigarrez ateheman zituen eta, han irristu sobera bazela, ihes abiatzeko heinean. Bitak hitzeman zioten, munduko etsai guzzen gatik, nekatcha Joan bidetik itzuliko zela laster etcherat. Ohi-nak nungoak ziren jakin zueneko, bi Annamita igorri ziozkaten eskulitz motz kuneekin: «Nekatcha hori autaso kink ongi ezagutzen duzenarena baita, emazue zer gauzki egin dautzuen. Paiman kobenik ez badu eta guzzen kontra ebatsi badiozue, lehenbailehen itzuliko duzue». Eta Hadrongetarrek nekatcha itzuli zioten. E-gundaino menturaz etzioten nihori deusk hola itzuli! Bichtan da berri hori ere laster hedatu zela orotarar eta bitaren fama etzela tipite. Sangileak etziren gehiaz lotse eta goizetik arratsarat goxo buez ari ziren beren oihan zirkuan. bukatzak atheratu eta tokia garbitu zuten segidan, yikhin guztiak erroerik. Gero lurra apbaindurik, irrisa

erain. Irriisa ederki abiatus zen jada, herriko-etehea landaren erdi-erdian hasi zutelarik. Gero, selhauruen aldi. Ezen selhauruak ere egin behar ziren, irriisa polliki hori-hererat baitzoan! Her egun gochoen esperantzaz! Baduk ko-beruk: horra nun eritzen den Aita Desombes, lebbetan!

Deu hori ekharri zautedanean, berutz ere su-kharraekin nintzen. Nere laguna ni baino eriago zela-keela, zeiki nintzen nere oke tcharretik eta bideari lotu. Lotzatzen hasia zen Aita Desombes. Etxakuen batere zer-ruen, baina eberaken jan eta edanik atchik. Miri-kurik ez den tokietan ez da sendaguru bat baizik: othoitza. Gero sendatzea edo kiltzea, Jainkoaren gain!

Gau hura eriarakin iragan nuen. Biharamun goizean hobekichago iduri zuen. Hofesatu nuen kalere eta nere etcherat, itzuli nintzen, Andredena Mariak kan iragaitzko. Bideak sukharra emendatu zautan oraino eta bi egunen buruan mandatu ekharri zautedalarik Aita Desombes gaizkitu zela, ez nintzen hizi. Aita Paao Joan zen beraz, Kolangerat. Elkea galdua omen zuen ordutik, eri gaizkoak. Egagutzaz bazuen oraino eta zerbeit gitar Aita Paori adiarazi zion berutz ere bere bekaten barkamendua nahi zuela, eta Aita Paok barkamenduaren hitzak erratean eskua altzatu zelarik eriararen gainerat, huri bi nigar gorro jaurzi zitzaizkon begietarik. Berehala oliodura soundua eman zion. Horren beka bezala zagon Aita Desombes arken hatsaren emateko: 1867 garren urtean eta agorri-laren hamaseia zen, Andredena Mariaren phesta biha-ramuna. Ez dut dudarik Ama Onak deitue zuela bere ondotek aingeru eta sounduen egoitza ederrerat sar-aratzeko.

Noik erran behinere Jainkoa zer chedek dabilkan! Horra mitioest garze bat. Garze bezen kartua da, eta iduri du banharren elizaduan ez ditakela deus onik gehiago egin hori gabe. Eta horra nun, lanean hasi deneko, Jainkoak bere ganat deitzen duen! Gure Aita keruetakoa, halere bethi egin bedi zuk nahi duzuna! Peroni ere eta nere adichkide bakharra hila, nola erran nere bihotzmina!

Ez nuen Aita Desombes chorzerat urten ahal oraino arrias fintakua etzen herri batean. San bat da kaatik homen gandi gorputz baten toki batetik bertzerat erematea, ezon salbaek usta dute kutsua bidean ichurtzen duela. Egj-takoty, bideko herri guzjeri zerbeit eman behar zautu.... Kutuaren urruntzeko. Nek ez nuen kolako antolamendurik onhartzen ahal. Gerlarik ere ez nuen behar kaatik. Benamita eta langileeri urez bertzaldetik ekharrazazi nisten gorpu-tza, nihungo herririk unkitu gabe. Gau bat ota eman zuten bidean Johaieraino keltzeko eta kan neronek egin nituen elizkeria guziak.

Aita Desombes gaizkoak ez erratekorik gehiago izutako, berehala hura zer gartatu zen. Ozia itzi eta segituz behar zen? Hastean segitza hobe zela egin nuen eta Aita Paok kanat igorri. Etxuen hauritz dembora berutz gurekin zela. San handi-handirik ez baitzen oraino eginik, lotsa zitaken.

Ez, etzen latsatu eta hilak zerutik lagundu zuen. Uxta  
 ederra sartu zen withe hartan selkauruetan. Gero, orok  
 elgar lagunduz egoitza berri batzu egin zituzten eta, hi-  
 bertuak ziren bezala, Tolangeko girichtino guzrak ethorri  
 zitzaizkoten kan egoterat. Berri berriari « Bou-za »  
 eman gunion izena, ondo hetako ibai handi baton ize-  
 retik. Egungo egunean kirur kumbat bezitzale bada  
 kan. Girichtino baino pagano gehiago oraino, baina  
 hurbiltzen ari zaurku emeki-emeki haur ere, eta espe-  
 rantra dut laster bertze girichtino berri andana eder-  
 bat ukhanen dugula ....

## Hogoita bederatzigarren Kapituluua.

Bertze herri bat: Jo-Ni-Krong. — Sagun herri bat: Aia Suchet.  
eta huren heriotza. — Panharren elizadia zerlan den.

Arita Presombes bere oihanean lanean ari zen demboran, hitz dauzquet ni ere ez nindagola eskual gurutzaturik. Patakizue Koxamen hasten dela Kongoako zelhai ederra, Pla ibauaren bi aldeetan egun baten bidean hedatzen dena. Eskuineko aldean hautatu nuen toki berria, Koxam eta Rohaien artean. Ez da lur ustel horiek baino aberatsagorik. Eresna on batzuekin laster baratze choragarri bat iduri luke eremu guztiak. Urthe guziz uholdeek busti aldi bat ederra ematen diote alde batetik, eta bertetik, ez ditake asma zenbat chirripa on heldu zion ma-  
lietarik, .... urrisa aise landa ditaken zokko busti guzti aipatu gabe. Painan salbauek ez dute aski tresna kolako lan bati lotzeko.

Eta egiazki orai arte bederen ongi egin dute ez lotzea! Esku hutsekin edo kalatsu egin behar direlauek oro, ez du balio amets handiegitan hastea. Bertako usta lutzue salbauek maldak biltzatzen dituztela edo mendiak edo oihanak, beren landen egiteko? Heien eta aiek handiena belharra baita, eta bere urrisa beharretan edo toki urtsu batean egiten badute, laster urrisa horri belharra nausituko baitzaie. Kolako toki batean, sarra-akala, belharra sortzen da, eta arrotsean ez da ageri goizean nun zer sorratu den. Gehiago dena, ez da aski belharriaren erroetik aheratzea ere, berehala ez erreteketan: ondoko gauean berean ikintzak egundaino bezala har-araz bezok.

Koxametiek urruntzeko jada eman dauzkitzuetan eta kuruez kampo, bertze hau ere banuen beraz: bere lur tehorrekin Koxam nikolaz etritakesla gehiago yabal eta handi, kango patarretan golderik ez baitzidiken higi. Pada, ongi ikusten nuen gurichtino berriari baitz pada irakuti behar neozkatela nekhararitzako molde berriak, oihanetarat joan etziten. Oro toki aberats eta ibil-eruek batean bilduz baizik ez nezaken gehiago zerbeit egin ....

Ongi buruan ibilik nituen oro: nere herri berria laborari etake handi bat uzanen zela, eta kolako. Nere Anamitak behenik igorri nituen Kogou deitue salbaie-  
tarat, idi eta basa-idi batzuen erosteko. Gero Cochintarat joan zion golde eta gainerateko tresnen bilha.

Nik bezala egin zuen bita dok, lurrak oraino nereak baino ibil errechago baitzuten, eta hainitz hurbilago. Nik baino lasterrago hasi zituen lan berriak: bainan orduan eta gero, bethi elgar lagunduz egin ditugu gure urhats guziak.

On da orai bederen erran dezazuegun, izan dadien Europakoa edo Anamita, hemengo apherz batek zer langile eta laguntzaile duen bere etchean eta monean. Ehenik, zenbeit Anamita, berak nahi gutelakotez jarraitu: gauzkonak, katichima, prediktu eta gaurerakoetan laguntzeko. Komentuetan bi zi diren fraide kartsu batzuen lan ber-berak egiten dituzte. Katichima eta predikteez bertzalde, ez dire haatik lotia zer-nahiri lotzeko, ala barnean ala kampoan. Lur-lanetan trebe dira gutiz gelienak. Anamitek irakutsi diote salbairu Goldaren erabiltzen.

Tophez baten etchean bertzalde badire, esklabo izanik, apherzak erosi dituen seki eta langileak. Eta artean errateko, sos gehiago baginu esklabo zaichoen erosteko! Nanan .... bainan ....! Esklabo hautan, oraino haur kutsak badire: erosi orduko batkaiatzen ditugu. Handiagokoeri katichima irakusten diotegu ehenik, gero batkaiatzeke esperantzian. Nere etchean ez dut esklabo-ohirik bairik. Badire erosi nituelarik jela ezkonduak zirenak. Hautarik ahal bezen gure erosten dut haatik, zukaizta ez baita gogortu-eta hain aise plegatzen! Beraz, aruntetan nere seki eta langileak ongi moldatu eta plegatuak dire eta ez dute errateko handirik. Adinerat keltzen direlarik, neronek ezkontarazten ditut, bakhotchari hobekienek doakion bezala. Ez dute ez notarian ez auzapehazaren aintzianan iragatzaeren beharrik nere ezkongeiak, egun handia ethorri zaiotelarik. Kofesatzen ditut, ... eta ezkontzen! Eta hogoi urthe baintu salbairu erdian bi zi naizela, hau finka dezaket kopeta gorarik! Nanan berritz itzul zaite gure elkerat ....

Herriaren egiteko tokia hautatua nuen. Hona marrak jarraikarazterat behatu nintzen orduan. Gutiz gehienek bairtz ihardetsi zautedan ehenik, bainan dudak ethorri zitzaizkoten laster. Berritz bildu nituen ... eta berritz hitza hartu zautedan. Dena dela, Kosametik joateko eguna ethorri zenean, handi handia, bi familia jarraitu gauzkitan! Ez dut ukatuko zerbeit egin zautala segurki, nere arthalde guzietan kan urteak, bainan ez nezaen gehiago gibelat egin, Anamitekin baklarrak bi zi beharko banuen ere. Jarraitu gauzkitan bi familietarik bat ez dut erran beharrik hemurrena jela. Heruz kamjoko aita-familiako batek galdetarik hura ere nerekin har nezan, bairtz ihardetsi nion gogotik. Paganoa zen. Hamasei lagun bairtuen berkin: hiru etarik biga bederen, haurrak eta ezkongeiak. Hemen gandi 1866 garren urthea zen eta abendoa. Hemen gandi hazilatik apherita arte, ez baita euririk ez oro gaiektorik, ez ginuen etcholak egin arte lotsatze korik.



beraz eta hainitzek beren haur tipiak bathaia-arayten ere...  
 Ethorrez gerortik, ezagutza zutenak laster abiatzen gauzkuten  
 katechiman. Larruetan badira kaatik hain hil-eruechak ez  
 direnak. Pakhar batzuek deus ez dute adite nahi. Agian  
 demborak eta jaunkoak bilduko dituzte....

Joanak eta ahantziak dire segurki orai tehen dembora he-  
 tako oren latzgarri eta lotsagarriak. Nekork ez gintuen  
 ikusi nahi orduan: gure etchola beharrik, geronek egin  
 behar gintuen oihanecan. Thal dena jan behar ginuzen.  
 Orri orotarik badugu: irrisa nahikoa, arthoa ausarki.

Artho bikitik ez dugu kaatik oraino irin egiterik, ehotz-  
 korik ez baitugu! Ererrik jan behar teraz artho turua!

Exkual. Herriko arthoa hemengo irrisa irinetik egin ogia  
 baino hainitzeg, hobea da, nereztzat bederen. Typera bat  
 baginu, hainitz balio luke gureztat: arthoak ez du irrisak  
 bezenbat arthatzeg beharrik. Ez du beharvoren beldur  
 handirik, irrisak bezala, lasterrago handitzen delakotz.

Artho eta irrisaz bertzerik ere badugu orai gure  
 etcheetan: orlo, cherri, ahuntz, idi, basa-idi, uss eta ere  
 zenbeit zalodi. Elefantak bertzalde. Pannan zaldir,  
 ibiltzueko, zerbeit badugu oraino eskas: bideak. Orri arte  
 zaldir ez dut bita. Doren etcherainokoa baizik egiten  
 ahal, Rohaetik Jo. Ri-Krongerat bide pollet bat eginaregia  
 baitugu geronek. Elefantak, alabainan, karga handien  
 ibiltzueko dire. Badute jada zer egin irrisaren landatit  
 etcherat ekhartzueko. Zenbeit aldiz Annamerat ere  
 igortzen ditugu kaatik muthilekin gatzarek bilha, bai eta  
 Frantziatik igortzen dauzkuten phuska guzian....

Horiek oro ez dire jada guti. Eta koren gainerat  
 nik hau erran dezaket: Jo. Ri-Krongeko erregea naizpla.  
 Egia auzortzueko, nere erregetasuna ez doa urrun, Pan-  
 nan zerkitzen edo nun nahi begarren baino ez othe  
 dut kobe kenen lehen? Onik badu nere erregetasun  
 tipiak: horre esker, laster ez bada noizpeit, hemengo  
 jendea egiatzko jaunkoaren ganat itzulitko da. Egin di-  
 tudan Orri guzietan, ez dut egundaino bertze chedorik  
 ukhan. Bita Do Rohaien ni kenen bezen jaun handia  
 da. Handiago ez bada!

Eta kalere hau auzortu behar lañoki: lurrean  
 ez dela zorion osorik. Jatekoa ausarki... eta ezin gehiago  
 jan, nik! Haragirik ezin gehiago har, barnea unka-  
 tuegia ruelakotz! Jatekorik ez ginuen demboran, idi bat  
 janen nuen harrak. Orri idiak ba... eta ez jastatu behar!  
 Zenbeit dembora bazuen jada jaun aphezpikuak orriana  
 zantala pausatzerat eta sendatzerat haren ganat joa-  
 teko. Herri berria egin eta joanen nintzela ikardetna  
 non. Eta herria egin orduko, kuta pesombes hila! Ez ne-  
 tzarcken salbaidak aphezuek gabe utzi.

Behin, egun ikhun batekin, gogoetan ari nintzen nere  
 buruarekin, sekulan kiltzerat heldu banintzen edo bertze  
 norapeit pairen, Dankharren elizadia berehala suntu-  
 tuko zela segur. Horra nun urkat arrot bat aditzen  
 dutan hainbert enarekin, athean. Itzultzen naiz. Eta  
 zer ikusten dut? Misionest churi bat: bita lueket.

Ez ditake asma zer lorrik hartu ninduen. Lorrietan zagon misionest gartea ere. Begetarrik, begetartetik, bere urhatetik beretik ageri zuen hala zago! Hagoita lau urte zituen. Di musu gozoren artetik, luna zer erran zautan: «Bita Douristoure, Jainkoak igortzen nau zure ganat. Padakit eri zarela eta ezintzen hasia. Nik aldiz indar frango badut, eta ongi lagunduko zaitut!»

Ongi lagunduko! Sukharrek berchala hartu ez balute, ba! Di ilhabete gabe hil ez balitz, ba! Jainkoak geroz ezgularazten balauku, ez ditake zoruonik. Padaki segurki zer au den, ero gordez. Bita suchet ethorni zelako terra laster hedatu zen herruan eta atseginak gairdi egin zuen bihotz gurietan. Nikor etzen tamerat paan egun hartan eta orok, berro-berro, itzuli bat egin zuten gure etchoraino misionest berriari agur batera erratiko. Bita suchetek etzakien mintzaira; nik ehardesten nioten beraz, haren partez: «Kuster duzue zoin maite zaurken jainkoak! Etsalzerat zoroazten, eri naizelakotz, nere heriotzeak urrehurtet utziko zintuzfela. Orain nik badut ordaina, eta zuek aita. Nik atsegun handi bat badut bihotzgan: zuek ere algeratu behar duzue nik bezala. Bita berri hunek bere autamak eta kamahirur hauvide etchean utzi ditu: frogga hoberik othe ditake egiazki maite zaituztela? Guziz, zuen arimak maite dituzte? Nola ez duzue beraz ordainez maitatuko? Eta bereziki zuen arimak nola ez dituzte kobeki maitatuko?»

Segurki frogatu nuen laster lagun bat ona baino hobea egorri zautedala: kartsua zen, ichila eta bihotz onkoea. Ez nezaken adickkide hoberik asma eta gutizia. Kol-eta bizpahirur egunen buruko jaun aphezpikuari hitz bat igorri zion salhuetan pada laketua zela. Dembora berean erraten zion ni arras eri nintzela eta segurki jaun aphezpikuak ongi eginen zuela lehenbailehen bere etcherat deitzen behinduen, arhatziko. Nere jaun charbonnier onak galdea igorri zautan beraz. Ondakotz, galdea hori heldu zitzautanean, Bita suchet pada hila zen. Sukharrek ereman zuten. Kutchu bat baitzen neretzat egina, hartan sartua ginuen eta ehortzi. Hoberiaren gainean azken hitz batzuen erraten hasi orduko bi ilhabetez hitak eman zaurkun etsenplu eder eta esperantza handiez, nigarriek ithe ninduten eta ez nuen ahorik idekitzen ahal izan. Bi, bethi egin dadilla halere Jainkoaren nahi saindua!

Jaun aphezpikuari berri hauk igorri niozkalarik, ohararazi nuen berriuz nere chokhoari egundaino beren estekatua nintzela, eta ez nintzela, eri erjanagatik, mugituko bertu galde bat ukhan arte. Berrehala ihardetsi zautan haatik: «Ber irabaziko dute Bankarrek, hori kiltzen bariztaioite? Ez othe dute hobe zenbeit dembora zutarz gabetza, berriuz, azkartua itzul zakioten? Ez duzue gehiago luzatzerik: zoto, katorkit lehenbailehen.»

Orok usta ginuen Cchinokunako aireak sendatuko ninduela. Gaurkirik barizik etzautan egin ... eta jaun aphez-

pikuak zenbeit demborarentzat igorri ninduen.... Frantziarar.

Eguno egunean fortyi-bederatzi ehun Panhar bada batthauririk, zazpi herrietan kokatuak oro. Pohai bauta erdian, handik herri urrunenarar egun baten bidetsua da. Jo-Ni-Krong eta Pohauko inguruetan Cochinchinan bezalako irrisa landa edre batzu orai ikus ditazke nun-nahi. Ebereak ere badituzte aspaldikoan salbaik. Etchaldeek ageri dute gothortzen ari direla.

Ita dok behin igorri dauzket Frantziarar hango berriak. Salbaik nere beha omen daude segurki. Bertho opitarren egiten ikasteko erraten daut, eta artho-irin egiteko tresna zerbeit eraman dezadan gibelaratekoan.

Mainan hango elizadiak baluke bertze zerbeiten beharra ere: chickpa zenbeitena. Chickparek ez dutero, gure girichtinoak behi irriskuan izanex dire, Kadrongetar eta bertze holako batzuen ondoan. Eta aldiz chickparen izenak berak urrunarazten ditu ohoen handienak!

Zainko Onak behi atchik datzala hango girichtinoak eta egin dezadala berritz hetarat itzultzeko grazia!

Siburu hau irakurtuko dutenak othoiz bat egin nahiko dute Panhar gaichoentzat (1)....

Ita Dourisboure

(1) Siburu hau Kocamen hasi zuen Ita Dourisboure eta Frantziar burutatu. Irakurtzalea ez dezatela beraz nahad «han» eta «hemen» batzuek.  
J. E.

## Izker Solas.

Benbeit dembora Frantziar egon eta Aita Douisbowue berritz itzuli zen salbaitarai: 1870garren urthea zen, eta hazila Kuna handik urthe baten buruan Parisera itzortzen zituen berriak.

Idiokitxo maiteak.

..... Nere girichtino gaichokk elstia ninduten. Asma zarue beraz zer atsegina ukhan zuten berritz kusi nindute larrik. Oo arras ohzi zoztzen. Makhur tipi guziak bizpahirur elhabeteren buruko chuchenduak ziren, eta girichtino berri zenbeit egun bainan jaunkoak frogatu nahi gintuen oraino, eta martxoan zigorrada bat igorri zuten behinere baino handiagokoa. Beha.

Parisaren eruten lasterat gindozin. Hona nun bertze orduz Pharaon urgulutuari bezala jaunkoak otte beltzak izortzen dauzkun. Benbeit egunen buruko, ogi, belhar, koste eta ore iretsoak zituzten. Pizpikur aldutoraino gure eraintzak egun izan behar gintuen debaldetan. Otteak urrundu jarlarik, dembora joana zen deusetako. Gosete ikharagarrienari ginauden. Borioez, jaunkoa ibrikaldu zitzaizkion eta euri gozo batek kampoak phiztu zituen, galduak uste gintuen urrisak parte bederen alkeratu zirez eta urtheko dor bildu ginuen.

Hortan geladitu balire guziak, deusk etzen izanen. Bainan nola eskualde hautan egundaino ez batzen otte beltzik ibili, debruaren mandatarik berekala fama kedatu zuten guk ekharrazazi gintuela segur nunbeitik. Gezurra handiago eta bidea lasterrago egiten du. Hala egun yuen hurek ere eta hainitzek arras begitan hartu gintuzten. Guri hurbil bizi ziren salbua gaichokk etzuten haatik holakorik sinkatu eta gure aldean hartu zuten, gure ontasunak kerinak bezala larrutuak izatu zirela. Bainan gure etsaiak hain azkarrak ziren! Eta guk hain haikter motzak gezurrari begalak pukatjoko!


Jazartzen hain zaurkun beraz laster eta gau bater bortz nekatcha ebatu zaurkuten, prete oremen eta esklabo bezala nunbeit saltzeko. Bertze behin zarpe gizon hil zaurkuten eta berrogoibat kolpatu. Benbeit elhabete karagarruak iragan gintuen hola. Guaz jauntzuak kampoan etzirik ere, ez nuen to onik egiten. Gartzetan martirgoa gutziatua nuen segurki eta ez ninduen oraino beltzak lotatzon. Bainan hiltzekotz, jaunkoaren gatik hil nahiko nuen, eta ez otte tzar batzen gatik! Guzien buruan horien gatik hil behar banu oraino egun bater, egun dadiela jaunkok nahi duena!

Juriakua joantehea da orai. Ez da gehiago salbai hainitz, otteen ethortzea gure gain ematen duenik. Bainan deusk ez daut burutik khenelako temen gandi urkatu handi baten egiteko, orok chickpa bana eskas dugula bi jangotako

gau-chori tzar batzuen urruntzeko herri huntarik eta inguruak  
 oihanetarik. Aspaldi sarraraziko nituen Annamen gaindi,  
 nik, baina jawn aphezpekua letxi lotsa da.

Sagun herri bat badut zenbeit dembora huntan: Nita Hu-  
 gon. Pertze bat ere ethortzekoa omen zen: Nita Geoffroy,  
 baina Annamen geldiarazi dute. Aspaldian ez nuen  
 Nita Anamitiki <sup>herri</sup> herriekin. Itxuraz duzue beraz aute nahizake  
 hortan zer jawan dukedan bakharrik, letxi bakharrik!  
 Ez bainaz oraino arras lotsatu! Kolakotan aithortzen  
 da gogotik zorn guti den gizona! Badakit Parisen ukhan  
 duzuela segurki jarraituko: nik ere ukhan dut nere doia!  
 Othortz egizue beraz, eta eginaraz neretzat.

Nita D.



Nouvellettre à M. le chanoine Soubebt, du 8 août 1934. Classé à S



